


eman ta zabal zazu



Universidad  
del País Vasco

Euskal Herriko  
Unibertsitatea

EUSKAL HIZKUNTZALARITZA ETA  
FILOLOGIA MASTERRA

---

**ADINAREN ARABERAKO  
BARIAZIO LEXIKOA  
IMOZKO HIZKERAN  
INKESTA LINGUISTIKOAK**

**Egilea:** Alazne Fernández de Muniain Lomillos

**Zuzendaria:** Eneko Zuloaga San Román

**Saila:** Hizkuntzalaritza eta Euskal Ikasketak

**Ikasturtea:** 2022-2023



*Ama Extremadura, aitta Zamoratik  
abuela ta abuelo haien aurretik.  
Herri hontan sustraitzen asmatzeagaitik  
neuk e' maita dezaket guztien gainerik,  
euskeraz badakit, bertsoz darabilkit,  
dena zuengatik, halaxe dagokit [...].*

Jon Maia Soria: 1997



*Taxiori*

## LABURPENA<sup>1 2</sup>

Aldatzen den hizkuntza, bizirik dagoen seinale. Joan den mendetik hona, euskal hiztun-erkidegoaren profila nabarmen aldatu da: eskolatzea, euskararen estandarizazioa, babes ofiziala lurralde batzuetan eta erdaren hegemonia dira, labur esanda, horren eragile nagusiak. Lan honetan, Nafarroako Imotz ibarreko hizkeren aldakortasuna izanen dugu hizpide, eta ahotan hartuko ditugu, ezinbestean, arestian aipatu faktoreak. Duela mende erditsuko hainbat inkesta linguistikotatik abiatuz, eta gerok ere landa-lana metodotzat harturik, gaur egungo hiztunengandik bildutako emaitzak ekarriko ditugu. Langai behinena lexiko-lagin baten azterketa da: hiztunen mintzoan arreta jarriz, imoztarren orduko eta egungo hiztegiaren arteko aldea agerira aterako dugu. Lanaren abiapuntua aldakortasuna bera da: Imozko testuingurua aldatu da, arrunt, eta horrekin batera hizkuntza. Hori dela eta, aldaketak espero izatekoak dira herriz herri, etxez etxe, belaunaldiz belaunaldi, bai eta banakoz banako ere. Baiki, Imozko euskara etengabe aldatzen ari da, baina bereziki bizia izan da aldaketa azken mende erdi honetan. Emaitzek hipotesi nagusi hori berresten dute eta, hala berean, baieztatu daitezke (i) XX. mendeko hiztunen euskara dialektalagoa zela; (ii) joan den mendeko zenbait kontzeptu zaharkitu direla eta galzorian daudela; (iii) orokorrean adinduak kontserbatzaileagoak eta gazteak berritzaileak direla; (iv) erdialdeko euskararen formek indar hartu dutela, nafarrerazko<sup>3</sup> formen kaltetan; (v) dialektoen berdintzera jo dela eta tokian tokiko aldaki markatuak estandarren alde desagertzen ari direla; eta (vi) lekukoa zenbat eta gazteago, hainbat eta hibridoago hizkera. Nolanahi ere den, ez dugu sumatu gazteengan espero genuen estandarrenzko berdintze-joera handia: orokorki tokiko formei eusten diete.

**Gako-hitzak:** dialektologia; soziolinguistika; hizkuntz aldakortasuna; lexikoa; adina; Imotz.

---

<sup>1</sup> Bihoazkie nire eskerrik beroenak lan honetan eskuzabaltasun osoz parte hartu duten muskiztar, goldaraztar eta etxalekuarrei: etxean bezala sentiarazi eta ikasketa ezin interesgarriagoa ahalbidetu didazue. Mila-mila esker, halaber, gidari izan dudan Eneko Zuloaga UPV/EHUko irakasleari. Azkenik, eskerrik asko ibilbide luzeko tren honetan lagundu nautenei: niretzat erreferentzia diren adituei, liburuzainei –eraman handikoak–, baita bidaide izan zaituztedanei ere.

<sup>2</sup> Egitasmo honek Euskaltzaindiaren 2023ko [Mintzola](#) saria jaso du.

<sup>3</sup> [Nafarrera - Euskaltzaindia](#).

## RESUMEN<sup>4</sup>

Lengua que cambia, lengua que está viva. Del siglo pasado a éste, el perfil de la comunidad vasco parlante ha cambiado de manera notoria: la escolarización, la estandarización del euskera, la protección oficial en algunos territorios y la hegemonía del castellano –y francés, en el País Vasco Norte– son, en pocas palabras, los principales factores. En esta obra se nos presentarán inevitablemente al tratar nuestro objeto de estudio: la variación en el euskera del valle de Imotz, Navarra. Partiendo de encuestas lingüísticas de hace alrededor de medio siglo, y habiendo usado también el método de estudio de campo, este trabajo incluye los resultados obtenidos de hablantes de hoy día. Nuestro principal quehacer es estudiar una muestra del léxico, y dar cuenta de la diferencia entre el habla actual y el habla de entonces. El punto de partida es la variación: el contexto de Imotz ha cambiado de forma considerable y, al mismo tiempo, la lengua; por lo tanto, esperamos cambios en los datos recabados –entre pueblos, entre casas, entre generaciones y entre iguales–. El euskera de Imotz, naturalmente, está cambiando constantemente, pero el cambio ha sido especialmente significativo en este último medio siglo. Los resultados confirman esta hipótesis principal y asimismo muestran que (i) el euskera de los hablantes del siglo XX era más dialectal; (ii) varios conceptos del siglo pasado han quedado desfasados y están en vías de desaparición; (iii) en general los mayores son más conservadores y los jóvenes innovadores; (iv) las formas del euskera central han tomado fuerza, en detrimento de las formas del dialecto navarro<sup>5</sup>; (v) se está dando el fenómeno de nivelación lingüística, desapareciendo así variedades locales en favor del estándar; y (vi) cuanto más joven es el testigo, más híbrida es su lengua. Con todo, no hemos observado, por parte de los jóvenes entrevistados, una gran advergencia lingüística hacia el euskera estándar: en general, mantienen las formas locales.

**Palabras clave:** dialectología; sociolingüística; variación lingüística; léxico; edad; Imotz.

---

<sup>4</sup> Este proyecto ha sido galardonado con el premio [Mintzola](#) 2023 que concede Euskaltzaindia.

<sup>5</sup> [Nafarrera - Euskaltzaindia](#).

## ABSTRACT<sup>6</sup>

A language that changes is a sign that is alive. The Basque-speaking community's profile has notoriously changed since the last century due to different reasons such as education, the standardization of the Basque language, the official protection in some territories and the dominance of Spanish –and French in the Northern Basque Country–. In the present essay they are inevitably presented to us when developing our object of study: the variation of the languages in Imotz Valley, Navarre. It also includes the results of current Basque speakers, obtained from fieldwork and starting from linguistic surveys carried out about half a century ago. Our main mission is to study a sample of the lexicon, and to show the difference between the current speech of the neighbours surveyed and the one people of that area had years ago. The starting point is the variation: the context of the valley, as well as the language, has changed significantly; therefore, we can expect changes in the collected data –between towns, households, generations and between equals–. The constant change of Imotz's Basque language, of course, is a fact. Its most significant transformation has been during the last half century. The results confirm this main hypothesis and, at the same time, show that (i) the Basque language spoken by the people from the 20th century was more dialectal; (ii) several concepts from the last century have been outdated and are close to disappear; (iii) in general, the elderly are more conservative and the young are innovative; (iv) the forms of central Basque have gained strength, in contrast to the detriment of the forms of the Navarrese dialect<sup>7</sup>; (v) the dialect levelling is taking place, thus disappearing local varieties in favor of the standard; and (vi) the younger the speaker, the more hybrid their language. Even so, we have not observed, on the part of the young people interviewed, a great linguistic levelling towards standard Basque language: in general, they keep the local forms.

**Keywords:** dialectology; sociolinguistics; language variation; lexical; age; Imotz Valley.

---

<sup>6</sup> This project has been awarded the 2023 [Mintzola](#) prize granted by Euskaltzaindia.

<sup>7</sup> [Nafarrera - Euskaltzaindia](#).



# Aurkibidea

1. ATARIKOA.....	11
2. MARKO TEORIKOA .....	16
2.1. OINARRI ETA KONTZEPTU TEORIKOAK.....	16
2.1.1. Soziolinguistika eta Dialektologia, eskutik helduta .....	16
2.1.2. Soziolinguistikaren hasmenta .....	17
2.1.3. Labov eta hiztunon gaitasun soziolinguistikoa.....	19
2.1.4. Aldaketa linguistikoa.....	21
2.1.5. Sinkronia eta diakronia.....	24
2.1.6. Aldakortasunean eragiten duten aldagaiak .....	26
2.1.7. Aldakortasuna eta euskara .....	28
2.1.8. Euskal herri-hizkerak egun: gainbeheraren faktoreak .....	29
2.1.9. Prestigioa, uste baino baldintzatzaileagoa .....	31
2.1.10. Euskara giputzaren ospea Nafarroan .....	34
2.2. AURREKARIAK.....	37
2.3. IMOTZ IBARRA ETA HIZKERA(K) .....	40
3. HIPOTESIAK ETA METODOLOGIA.....	46
3.1. HIPOTESIAK .....	46
3.2. OINARRI METODOLOGIKOAK .....	47
3.2.1. XX. mendeko corpusa aztertzea .....	47
3.2.2. Galdetegia osatzea .....	48
3.2.3. Inkestaren aldia.....	49
3.2.4. Datu-prozesaketa .....	53
3.2.5. Datuen analisia .....	54
3.3. AZTERTUTAKO CORPUSA ETA BERRIEMAILEAK.....	54
4. DATUAK ETA EMAITZAK.....	59
4.1. IMOTZ BARNEKO EZBERDINTASUNAK .....	60
4.2. GIPUZKOAKO EUSKARA GUREAN .....	64
4.3. ERDIALDEKO ETA NAFARRERAKO EZAUGARRIEN ARTEKO LEHIA.....	69
4.4. EREDU ESTANDARRAREN ERAGINA.....	71
4.5. GAZTEEK AGERTURIKO ESTANDARRERANZKO JOERA EZ-ZORROTZA ...	74
4.6. GAZTELANIAREN ERAGINA .....	76
4.7. TERMINO ZAHARKITUAK, AHANZTURAREN OSINEAN .....	79

4.8. UNEAN UNEKOAREN MUGAK ETA IDIOLEKTOA.....	82
4.9. HITZ BAT, HAINBAT ADIERA.....	83
4.10. SENEZ SORTZEKO GAITASUNA .....	84
5. ONDORIOAK .....	86
5.1. ONDORIO NAGUSIAK .....	86
5.1.1. Adituen esanak .....	86
5.1.2. Emaizen irakurketa.....	89
5.1.3. Hipotesiak.....	97
5.1.4. Alderdi eztabaidagarriak: inkestaren argi-ilunak .....	102
5.1.5. Gerora begira: egiteko dauden zereginak .....	103
5.1.6. Parte-hartzaileei eskerrak .....	105
5.2. LANAREN EKARRIAK .....	105
6. ERREFERENTZIAK.....	108
7. ERANSKINAK.....	114
7.1. ERANTZUNEN LEGENDA .....	114
7.2. INFORMATZAILEAK.....	114
7.3. GALDETEGIA .....	115

# 1. ATARIKOA

Hizkuntzak aldatuz doaz aldi oro –hil direnak izan ezik–: fenomeno naturala eta saihetsezina da. Hizkuntza aldatzea bizitzako gertaera bat baino ez da; ezin da prebenitu edo saihestu, eta ez da berez ona edo txarra (Campbell, 2004: 3-4). Honela dio Robert Lawrence “Larry” Trask hizkuntzalariak: “Language change is ceaseless and remorseless. Every language that is spoken continues to change, not just century by century, but day by day” (1996: 12).

Hizkuntzalaritza Historikoaren oinarrizko abiapuntua da hori. Hizkuntzak berezkoa du aldakortasuna, ezin ulertu dugu betiko geldirik dagoen izaki perfektua balitz bezala; ekintza da hizkuntza, ez emaitza bukatua (Camino, 2009: 32). Ildo berean, Koldo Mitxelena euskal hizkuntzalariak zioen: “Si el paisaje inmutable que vemos a nuestro alrededor no es constante más que en apariencia, si los montes mismos varían [...], a nadie le extrañará que las lenguas, como las costumbres, las instituciones y los valores morales, vayan modificándose ([1977] 2011: 42).

Horrenbestez, etengabeko aldaketa hizkuntza-ekintzaren berezko ezaugarria da.

Hizkuntza ez da monolitikoa. Hizkuntza aldakorra da. Edozein hiztunek daki bere hizkuntza ez dela uniformea, ez hizkuntza-komunitatean, ez hizkera-komunitatean, ez bere jardunean. [...] Esan daiteke, beraz, hizkuntzak, bizirik dauden neurrian, ez direla estatikoak. [...] Historian zehar (diakronian) aldatu egiten dira nabarmen, baina hiztun garaikideek ere ez dute berdín hitz egiten; beraz, sinkronian ere ikus daiteke aldagarritasuna (Martínez, 2010: 86).

Lan hau Dialektologiaren adarrari dagokio nagusiki, izan ere, Imotz ibarreko aldaera linguistikoa(k) edo geolektoa(k) zertan d(ir)en aztertzea du xede. W. Nelson Francis linguistak lau arrazoi posible eman zituen norbait Dialektologian aritzeko. Lehena jakin-mina da; hots, hiztunek berek sumatzen dituzten ezberdintasunez –hitz, ahoskera eta abarrez– gehiago jakiteko nahia (1983: 7-8). Bigarrenik, arrazoi antropologikoak ditugu, soziolinguistikara garamatzatenak; alegia, ikerlariak informazio gehiago erdietsi nahi du gizarteaz, kulturaz, mugimendu eta harreman sozialez, historiaz eta giza antolamenduaz, finean, hizkeran islatzen diren alderdiez (1983: 8). Hirugarrenik, arrazoi linguistikoak aipatzen ditu; hau da, hizkuntzaren egitura sistematikoaz –ahoskera, gramatika, esanahia eta hiztegia, sistema integratu landu baten parte gisa–, hizkuntz bariazioaz, hizkuntzaren historiaz eta aldaketa linguistikoaz gehiago jakiteko nahia (1983: 9). Azkenean, arrazoi praktikoez mintzo da; esan nahi baita, dialektoa markatzaile sozial den gizarteetan, markatzaile horretatik askatzeko eta

forma estandarra erabiltzeko behar besteko ezagutza bereganatzea (1983: 9-10-11). Aipaturiko interesgai horiek guziak uki genitzake, baina gure jakin-gosea lehendabizikoan eta hirugarrenean pausatutik dago lan honetan.

Zabal ulertutako Dialektologiaren barnean, ikerlana Soziolinguistikaren magalean datza, linguistikoaren eta sozialaren arteko erlazioak egiaztatzea interesatzen baitzaigu. Soziolinguistika, azken batean, linguistika da, hizkuntza fenomeno sozial gisa ikertzen duen adarra. Geron eginbidea laburbiltzeko, Iñaki Camino euskalariaren ondoko hitzok gure eginen ditugu: “Idatzi ditugun lerro llabur hauetan hizkuntza baten barreneko aldaera edo formen arteko lehiaz aritu[ko] gara gehienik, ez bi hizkuntzaren edo gehiagoren arteko gora-beherez. Hartara, hizkuntzaren soziologiako gaiak alde bat utzirik, soziolinguistikaren ardatzari uztartuko gatzaizkio funtsean” (2005: 157). Konkretuki, soziolinguistika bariasionistari. Juan Manuel Hernández Campoy soziolinguistak honela definitzen du diziplina:

Partiendo de la base de que la variación en la lengua está socialmente condicionada y haciendo uso de los métodos y descubrimientos de las ciencias sociales [...] y de las modernas innovaciones técnicas [...], el principal objetivo del sociolingüista es obtener una descripción completa y representativa de la variedad de habla local de los habitantes de una comunidad (1993: 163).

Hizkuntzaren aldakortasunaren gai zabalean murgiltzen garelarik, lausoa da Dialektologiatik Soziolinguistikara dagoen muga (Camino, 2005: 157). Dialektologiaren arrakasta hizkuntzaren aldaerak aurkitu, deskribatu eta sailkatzetik etorri da, eta Soziolinguistikak aldakortasuna opatu du (Camino, 2009: 259). Gure txikian, horra hurbiltzera saiatu gara azterketan.

William Labov hizkuntzalari estatubatuarra aitzindaria izan zen hizkuntzaren eta gizartearen arteko harremana ikertzen, eta berak garatu zuen, hain zuzen, *soziolinguistika bariasionista* edo *soziolinguistika laboviarra* izenez ezagutzen den eremua. Laboven doktrineta bat da aldakortasuna hizkuntza-egiturari datxekiola. Humberto López Morales soziolinguista ere modu berean mintzo da: “La variación lingüística es sistemática y está altamente correlacionada con factores lingüísticos y sociales” (1989: 183). Hizkuntz bariasioa mintzo eta hizkuntza-maila guzietan gertatzen den bilakaera natural eta saihetsezina da:

La variación, definida como el uso alternativo de *formas diferentes de decir lo mismo*, se puede encontrar prácticamente en todos los niveles de la lengua, desde el más concreto (fonético-fonológico) al más amplio (discurso, por ejemplo), pasando por la gramática y el léxico. Y, a partir de aquí, se puede formular un principio sociolingüístico de la variación (Moreno Fernández, 2009: 22).

Soziolinguistikak aldaera testuinguru sozialean azaltzea bilatzen du. Hizkuntz aldagai batzuen –lexiko, fonetiko nahiz sintaktiko– deskribapena egin eta horiek esplikatzen diren arrazoi sozialak bilatzen ditu (Zarraga, 2010: 59-60). Bereiz ditzagun, baina, *aldagaia* eta *aldaera* kontzeptuak:

Al elemento, rasgo o unidad lingüística que puede manifestarse de modos diversos –esto es, de forma variable– se le da el nombre de *variable lingüística*. Así, una variable lingüística es un conjunto de manifestaciones de un mismo elemento y cada una de las manifestaciones o expresiones de una variable recibe el nombre de *variante lingüística* (Moreno Fernández, 2009: 21).

Aldagaia askotariko emaitzak eman ditzakeen balioa da, eta linguistikoa –mendekoa– edo soziala –askea, estralinguistikoa– izan daiteke. Hizkuntza-aldagaiak parametro sozialekin korrelatzen dira, hala nola adina, sexua, klase soziala, arraza, erlijio-afiliazioa eta abarrekin –hots, aldagai sozialekin– (Hernández Campoy, 1993:163).

Geroago (§ 2.1.6) aldagaien inguruan sakonduko badugu ere, arreta gune izan ditugunak aipatuko ditugu. Linguistikoen artean, lexikoari behatu diogu –nahiz eta, ezinbestez, beste hizkuntza-mailak ere gaingiroki azaltzen diren– eta sozialen artean, aldiz, adinari. Bestela esanda, lan bariasionista honetan, belaunaldien arteko forma lexikalei erreparatuko diegu. Izan ere, hizkuntz aldaketaz ohartzeko egoki da lekuko zaharrak eta gazteak baliatzea; gazteen mintzoak hizkuntza nora mugitzen ari den erakusten du, estandarren joerak ageri ditu, hirietako ohitura lektalak, mintzo jantziaren eragina, batasunaren oihartzuna eta abar (Camino, 2009: 302).

Hizkuntz geografia alderdi lexikoaz kezkatzen hasi denetik, argi geratu da geografian gaindi hitzen migrazioak gertatzen direla; hasierako gunetik hedatu eta hurbileko edo urruneko eremuetaraino ailegatzen dira (Camino, 2009: 36). Alde horretatik, ikusiko dugu zerk zuen eta duen indar gehien Imozko hiztunengan.

Orduan, gure aztergai nagusia adinaren araberrako bariazio lexikoa da, ikuspegi bariasionistatik. Imozko euskarak –euskarek– mende erditsuan izandako zenbait aldaketa identifikatu eta bildu ditugu. Ikerketaren asmoa da egiaztatzea eta agerian jartzea Imozko mintzaira(k) aldatu eta une oro aldatzen ari d(ir)ela hainbat faktoreren eraginez –eskolako euskara batua, aldaera estandarra, gaztelania...–. Hizkera ikuspuntu soziolinguistikotik ikertu dugu –esan bezala, adinak eragindako desberdintasunak–, baina ikuspuntu geolinguistikoa ere Imozko euskarak dituen zenbait berezitasun erakutsiko dizkigu.

Azterlanak, bada, Imozko euskara hobeki ezagutzeko eta nolabaiteko erradiografia egiteko aukera ematen du. Tokiko euskara dialektala galbidean dago, orain arte ezagutzen genuen moldean: urtetik urtera gero eta bertako dialektodun gutxiago dago. Azken urteotan euskaldun kopurua ez da gehiegi aldatu; kontua da, batetik, ezagutzak eta erabilerak ez dutela bat egiten –gaztelaniaren mesedetan– eta, bestalde, horietako askok euskara batuan egiten dutela, baina ez tokiko edo *eskualdeko batuan*<sup>8</sup> –zeina, berez, *euskara batu nafarrera* edo *nafarrera batua*<sup>9</sup> lerratzen den–. Egoera horien arteko nahastea dugu Imotzen. Aurreikus daiteke pixkaka-pixkaka Imozko euskalkidun-komunitatea txikituz joanen dela; kasurik onenean, gero eta euskara estandarizatuago baterantz.

Ikerlanak, halaber, Imozko hizkerak eta imoztarrak omendu nahi ditu, beren mintzamoldea balioetsi eta zukua atera. Hala bada, orrialdeok asmo zabalago baten oinarriak izan nahi lukete, sinestaturik gaude etorriko den egitasmo handiago baten hauspoa izan daitekeela. Lanak ez du aldakortasunaren gaia malenkoniatik edo etsipenetik bideratu nahi: aitzitik, hizkuntzak bizirik segitzen duela erakutsi nahi dugu, baldintza optimoetan ez egonik ere. Gure lanaren bidez, Imozko errealitate linguistikoaren argazki eguneratuagoa dugu.

Ariketaren balioa aitortzearekin batera, argi utzi nahi dugu ezin har ditugula eskuratutako datuak egia unibertsaltzat: txostenak dakarrena estimazio bat da. Badakigu, jakin, lana osa daitekeela: ikerketa sakonagoa eginez, inkesta gehiago eginez, ukitu gabekoak aztertuz... Nolanahi den, espero dugu lehen hurbilketa hau komunitate zientifiko edo profesionalarendako ere ekarpen onuragarria izatea. Hizkuntz bariazioa iker-eremu emankorra da azken garaiotan, eta gero eta ugariagoak dira euskal hizkeren aldakortasuna ikertzen duten lanak. Esparru horri interesgarri deritzonari geron lana ere erakargarri gerta dakioke, areago, Imotz bezalako ibar txiki bateko euskara kontuan harturik: horrexegatik da berezia, baita dagoen makalaldiari dagokionez ere. Jarrera dramatikoak pentsatzera garamatza “azken mohikanoen” –edo, zorte onez, haien aurrekoen– lekukotasunen aitzinean gaudela; lazgarria lirudike hori aitortzea. Nahiago dugu errealitateari irekitasunez heltzea. Gure premisatik edo hatsarretik abiatuz gero, hau da, une oro eta edonon hizkuntza etengabe aldatzen ari dela, pentsatu behar dugu oraingo

---

<sup>8</sup> Interesgarria iruditzen zaigu Koldo Zuazo hizkuntzalariak eginiko sailkapena: *nazioko batua*, *herrialdeko batua* eta *eskualdeko batua*. Honela dakusa Zuazok *eskualdeko batua*: “Euskara Batuaren egiturari eutsiaz, eskualdeko lexikoa, sintaxia eta bertako zenbait ezaugarri fonologiko eta morfologiko darabilena. Beste era batera esanda, eskualdeko substandarra da” (2000: 168).

<sup>9</sup> Uler bedi *nafarrera batua* Zuazoren *herrialdeko batuaren* ildo beretik (2000: 210). Esan beharra da bat egiten dugula bere analisiarekin eta proposamenarekin.

“azken mohikanoak” aurretik “lehen mohikano” ere izan zirela; hots, beren aurreko belaunaldiak ere “azken mohikano” izan zirela, eta horrela gainerakoak. Izan ere, hizkuntza-egoera zehatz bat beti izanen da aurreko baten ondorio eta hurrengoaren aurrekari (Reguero, 2016: 4). Mitxelenak ere antzera zekusan: “En todo proceso que se desarrolla en el tiempo, sea físico o social, una situación no es más que la continuación y el desarrollo de la situación anterior: [...] todo estado de lengua procede de otro anterior” (1981: 292).

Nolanahi den, errealitatea ikuspuntu gordinago ala naturalago batetik hartzen bada ere, lanaren premia dudagabea da.

Datozen orrialdeek ondoko atal nagusiak dakarzkigute, hurrenez hurren:

2. MARKO TEORIKOA. 2.1. OINARRI ETA KONTZEPTU TEORIKOAK. 2.2. AURREKARIAK. 2.3. IMOTZ IBARRA ETA HIZKERA(K). 3. HIPOTESIAK ETA METODOLOGIA. 3.1. HIPOTESIAK. 3.2. OINARRI METODOLOGIKOAK. 3.3. AZTERTUTAKO CORPUSA ETA BERRIEMAILEAK. 4. DATUAK ETA EMAITZAK. 4.1. IMOTZ BARNEKO EZBERDINTASUNAK. 4.2. GIPUZKOAKO EUSKARA GUREAN. 4.3. ERDIALDEKO ETA NAFARRERAKO EZAUGARRIEN ARTEKO LEHIA. 4.4. EREDU ESTANDARRAREN ERAGINA. 4.5. GAZTEEK AGERTURIKO ESTANDARRERANZKO JOERA EZ-ZORROTZA. 4.6. GAZTELANIAREN ERAGINA. 4.7. TERMINO ZAHARKITUAK, AHANZTURAREN OSINEAN. 4.8. UNEAN UNEKOAREN MUGAK ETA IDIOLEKTOA. 4.9. HITZ BAT, HAINBAT ADIERA. 4.10. SENEZ SORTZEKO GAITASUNA. 5. ONDORIOAK. 5.1. ONDORIO NAGUSIAK. 5.2. LANAREN EKARRIAK. 5.3. AKABERA. 6. ERREFERENTZIAK. 7. ERANSKINAK. 7.1. ERANTZUNEN LEGENDA. 7.2. INFORMATZAILEAK. 7.3. GALDETEGIA.

## 2. MARKO TEORIKOA

### 2.1. OINARRI ETA KONTZEPTU TEORIKOAK

#### 2.1.1. Soziolinguistika eta Dialektologia, eskutik helduta

Gure egitasmoa Dialektologiaren eta Soziolinguistikaren esparru teorikoetan kokatzen da; auzo-diziplinak dira eta harreman hertsia dute. Aurrera egin baino lehen, komeni da bakoitza zertan datzan berrikustea.

Ez bai handiak izan dira deliberatzeko Soziolinguistikaren ikergaia hizkuntza ala gizartea ote den. López Moralesek argi dakusa: “Aceptando que la (socio) lingüística es una disciplina lingüística, sería ocioso discutir su objeto de estudio, pues éste no podría ser otro que la lengua. [...] La lengua es la variable dependiente” (1989: 25-26).

Soziolinguistikak, handi-handika, gizartearen eta hizkuntzaren arteko elkarreragina aztertzen du:

Dialektologiak dialektoak aztertzeko helburua duen bezala, soziolinguistikaren zeregina da hizkuntzaren estratifikazioa azaltzea. Horretarako soziolektoen deskribapena egitea beharrezkoa da, dialektologiarentzat aldaera geografikoak aztertzeko den bezala. [...] Dialektologiak aldaera diatopikoak aztertzen ditu, soziolinguistikak, berriz, aldaera diastratikoa du helburu [...]. Dialektologiak aldaera geografikoak sistema diren heinean aztertzen ditu, hau da, azpisistemaren deskribapena egitea du helburu. Soziolinguistikak, berriz, aldaera gizarte-testuinguruan azaltzea bilatzen du. Alde batetik, hizkuntza-aldagai batzuen (lexiko, fonetiko nahiz sintaktiko) deskribapena egin eta horiek azaltzeko arrazoi sozialak bilatzen ditu. Bestetik, gizarte-talde ezberdinen hizkeren ezaugarri nagusiak biltzen ditu (Zarraga, 2010: 59-60).

López Moralesek ere, ildo beretik, bereizketa egiten du: “La dialectología debe estudiar los lectos, diatópica o diastráticamente, como gramáticas internalizadas, igual que la lingüística estudia los sistemas generales, las llamadas lenguas. La sociolingüística ha de estudiarlo todo *en su contexto social*” (1989: 31). Gaineratzen du: “La sociolingüística trataría de establecer la estratigrafía de los lectos a través de las variables analizadas, lo que implica forzosamente un análisis de covariación entre dos conjuntos de datos: los lingüísticos y los sociales” (López Morales, 1989: 32).



Dialektoa hizkuntza baten mintzamolde edo aldaera geografikoa da: geolektoa. Jack Chambers eta Peter Trudgill hizkuntzalarien arabera, dialektoak hizkuntza jakin baten subdibisio edo *subparte* gisa har daitezke (1994: 20): “Un dialecto es una forma de lengua subestándar, de nivel bajo y a menudo rústica [...]. *Dialecto* es también un término aplicado a menudo a las lenguas que no tienen tradición escrita [...]. Y por último también se entienden como dialectos algunas clases (a menudo erróneas) de desviaciones de la norma” (1994: 19). Eransten dute: “*Dialecto* [...] se refiere a las variedades que son diferentes desde un punto de vista gramatical (y quizás léxico) además de fonológico de otras variedades” (Chambers & Trudgill, 1994: 22).

Dialektoa, orduan, aldaera *diatopikoa* da, hots, eremu geografikoaren araberkoa –adibidez, euskalkiak–. Soziolektoa edo dialekto soziala, ordea, aldaera *diastratikoa* da, esan nahi baita, gizarte taldearen araberkoa –adibidez, gazte hizkera–. Chambersek eta Trudgillek bata zein bestearen garrantzia nabarmentzen dute: “La variación social en la lengua es tan común e importante como la variación espacial. Todos los dialectos son tanto espaciales como sociales, puesto que todos los hablantes tienen un entorno social igual que una localización espacial” (1994: 82).

Dialektologiak azterketa diakronikoan zein sinkronikoan tradizio handia du. Bi garitako hizkera alderatzea azterketa diakronikoa egitea da: hizkuntzaren garapena denboran zehar aztertzea, aldaketa gertatu den edo ez behatzea. Denbora-puntu jakin bat edo unean unekoa miatuz gero, berriz, azterketa sinkronikoa egitea da: bidean dauden aldaketak antzematea eta aurreikuspenak egitea sinkronikoki lan egitearen parte da. Bi kontzeptuoi [§ 2.1.5](#) atalean helduko diegu berriz ere. Soziolinguistika azterketa sinkronikoa egiteaz arduratu ohi da baina, azken urteotan, gorakada nabarmena eta oso indartsua izaten ari da Soziolinguistika Historikoaren esparrua<sup>10</sup>.

### 2.1.2. Soziolinguistikaren hasmenta

Soziolinguistikaren sorrera 1950eko hamarkadan dugu, modernismoaren garaian. *Soziolinguistika* hitza aipatu zuen lehendabizikoa Haver C. Currie izan zen. López Moralesek dioen bezala, terminoak oso ibilbide “prekarioa” izan du, sortu zenetik hamaika

---

<sup>10</sup> Soziolinguistika Historikoaz gehiago jakiteko, jo erreferentzietara: Conde Silvestre (2007) eta Conde Silvestre & Hernández Campoy (2012).

zehaztugabetasun izan ditu eta (1989: 7). Soziolinguistikak 1964. urtean hartu zuen eskolaizaera, Kalifornian antolatutako nazioarteko kongresu batean. Bilkuraren emaitzak William Bright-ek bildu zituen (Zarraga, 2010: 31) eta orduz geroztik hainbat adituk landu zuten termino berria: besteak beste, William Labov, Peter Trudgill, Joshua A. Fishman, Dell H. Hymes eta abarrek (López Morales, 1989: 8). Ekoizpen gaztelaniadunek bi hamarkada geroago eman zuten terminoa argitara, hala nola López Moralesen eskutik edo, gurera etorrira, Karmele Rotaetxe linguistaren eskutik (López Morales, 1989: 9). Euskaraz, XXI. mendean finkatu da bariasionismoa zenbait ikertzaileren ikergai nagusi gisa –ikus Camino (2005)–.

Labovek hizkuntzaren ikerketan korrante berri bat aldarrikatu zuen. Joera horrek aldagai soziologikoak enpirikoki lotu zituen hizkuntzaren fenomenoekin. Horrela, ikusi ahal izan zen hizkuntzaren sistemako zirrikituek informazio sozial hutsa pasatzen utz zezaketela –esate baterako, hiztunaren adin-taldea edo klase jakin batekoa izatea– (Marinas, 1983: 0 *apud* Labov, [1972] 1983). Diziplina berri horrek Soziolinguistika taxutu zuen. Nolanahi ere, Labovek termino horri ezkerreko begiz begiratu zion luzaz, horrek adierazten duelako gizarte-mailakoa ez den hizkuntza-teoria edo -praktika bat egon daitekeela. Honela adierazten du José Miguel Marinasek, Labovi buruz ari dela: “una lingüística social («¿puede haber alguna que no lo sea?», se pregunta el autor)” ([1983: 13] *apud* Labov, [1972] 1983). Lengoaia ezin aztertu da gizarte testuingurutik eta hiztunengandik bereizita eta, hain zuzen, uste horixe dugu Laboven ekarpen handienetako bat, soziolinguistika bariasionistaren oinarritzko ideietako bat.

Bariasionistek aldaerak aztertu eta deskribatzeaz gain, horien arrazoiak gizartean bilatzea dute xede: beren eginkizuna da azaltzea zein diren aldakortasunean eragiten duten faktoreak, haien eragina norainokoa den eta gizarte talde bakoitzari zein aldaera dagokion (Zarraga, 2010: 33-34 eta 69-70).

Nabarmentzekoa da Soziolinguistikaren diziplinartekotasuna, hamaika interes eta norabidekoa. Hizkuntz bariazioa da, preseski, ikerketa-eremu eta objektuetako bat, Brightek biltzar hartan jasota utzi zuenez. Aldakortasuna hainbat aldagaien araberakoa da eta Soziolinguistikaren xedea da horiek dibertsitate linguistikoan nola eragiten duten jakitea: gizarte-mailako dialektoak, egoera diglosikoak, adin edo sexu ezberdinekoen arteko desberdintasunak, umeekiko hizkera... (Zarraga, 2010: 31-32).

XX. mendearen azken laurdena pizkunde-garaia izan zen Euskal Herrian ere eta, lehen teoriak ailegatu zitzaizkigularik, euskal soziolinguistikaren hastapenak izan genituen. Jose María Sánchez Carrión “Txepetx” dugu Soziolinguistika egituratu berriaren hausnarketak Euskal Herrira ekarri eta euskararen errealitatera egokitu zituena, hizkuntzaren izaera gutxituak bulkaturik (Zarraga, 2010: 44). Halarik ere, “Txepetx”-ek eskuarki hizkuntzaren soziologia landu du, eta ez soziolinguistika bariasionista. Euskal Herrian, izan ere, Hizkuntzaren Soziologiak –alegia, Soziolinguistikaren *sozio* alderdiak– indar handiagoa izan du, tradizioz, Soziolinguistikak baino, zalantzarik gabe euskararen egoera minoritarioari eta minorizatuari eta hizkuntza-politiken beharrianari loturik. Aurretik aipatu bezala, soziolinguistika bariasionista euskararen esparruan arrunt berantiarra izan da: XXI. mendearen atarian, Camino (2005) datorkigu gogora berriz ere.

### 2.1.3. Labov eta hiztunon gaitasun soziolinguistikoa

Noam Chomsky-ren 1957ko ideia bat dakargu aurrena: hiztunak gaitasun linguistikoa du, ezagutza implizitua. Hori, hala ere, hankamotz ikusten zuten hainbat soziolinguistek, esaterako Hymesek. Berak *hizkuntz gaitasun* chomskyarraz duda egin zuen, kontzeptu horrek ez dituelako kontuan hartzen erabilera linguistikoan eta komunikatiboan eragiten duten faktore soziokulturalak. Hymesen iritziz, horiek hizkuntzaren erabileran duten eraginak ez dio kanpoko jarduerari bakarrik eragiten, pertsonen barne-gaitasunari ere eragiten dio eta, beraz, hizkuntzak ez dira ikasi –ez irakatsi– behar hartu-eman linguistikoa gertatzen den asmo eta testuinguru komunikatiboak alde batera utzita. Hartara, hiztunon *komunikazio-gaitasuna* aldarrikatu zuen, zeina ez datzan soilik enuntziatu gramatikalki zuzenak eraikitzen jakitean, baizik eta horiek komunikazio-testuinguru zehatzetan erabiltzen jakitean eta sozialki egokiak diren ala ez ebaluatzen jakitean (Hymes, 1972):

Otro objetivo no menos importante es el de registrar la *competencia comunicativa* del informante en comparación con su *actuación*; esto es, la *Sociolingüística Laboviana* quiere averiguar el conocimiento que el hablante particular tiene acerca del tipo de lenguaje más apropiado para las diferentes situaciones sociales en las que se pueda encontrar y su habilidad para cambiar fácilmente de un estilo a otro, y no sólo su mera actuación (Hernández Campoy, 1993: 163).

Supragaitasun horren baitan legoke, berebat, Laboven uzta den *gaitasun soziolinguistikoa*: pertzepzio soziolinguistikoa, jakintza implizitua hori ere. Kontzeptu berri horrek Chomskyren *gaitasunari* alderdi sozialak gehitu zizkion eta, ondorioz, besarkatzaileagoa da. Horri loturik,

López Moralesek xedatzen du: “Si toda actuación lingüística no es más que el reflejo, por aproximado o imperfecto que sea, de la competencia, parece obligado concluir que los aspectos de la actuación que funcionan sistemáticamente son también reflejo de la competencia” (1989: 188).

Labov, ikusi dugunez, soziolinguistika bariasionistaren ikur nagusia da: berak ezarri zituen oinarri teorikoak, teknikak eta, azken finean, lan-metodoa. Bariasionistek, berriz diogu, hizkuntzaren aldagarritasuna dute aztergai: Ferdinand de Saussure hizkuntzalariarentzat neurtezina zen alderdia –bariazio librea–, sozialki motibatua izan daitekeela erakusten dute, hots, motibazio soziala dagoela hainbat aldaeraren atzean. Hernández Campoyk horrelaxe dio: “Free variation does not exist because linguistic variation is not free at all, but rather constrained by social and/or situational factors” (2016: 69). Bi hitzetan: hizkuntzaren aldagarritasuna ez da hautazkoa, eragile sozialen mende dago. Testuingurura egokituriko hizkera darabilgu:

La variación completamente libre es una circunstancia que, al recibir análisis detenido, deja al descubierto el cumplimiento sistemático de ciertas reglas, de donde se desprende que la variación es parte integrante de la estructura de toda variedad lingüística. Los factores que impulsan o determinan esta variación son, además de los propiamente lingüísticos, de carácter social (López Morales, 1989: 183).

Laboven lanek erakutsi dute gaitasun soziolinguistikoa definitzen dituzten aldagaiak, batetik, gizarte- eta ekonomia-maila eta, beste alde batetik, adina direla (Martínez, 2010: 88). Hizkera-erkidego jakin batean, komunikatzeko, badira idatzi gabeko hainbat konbentzio, eta hiztun arruntak jakiten ohi du noiz erabili bata ala bestea; erabakia kontzientzia linguistiko horrek motibaturik dago eta, era berean, azken hori testuinguru komunikatiboak bulkaturik (Martínez, 2010: 92). Hitzunek berezko gaitasuna dute hizkuntz bariazioaz baliatzeko, halako egoeran duten zeregina definitzeko eta identitate sozial partikularrak eraikitzeko baliabide gisa (Hernández Campoy, 2016: 92). Hernández Campoy nor bere estilo-aukeraketaz ari zaigu hurrengo aipuan: “The choice of a style depends on the situation and the speaker's social characteristics, as part of a determinism where the individual's behavior is again conditioned by society” (2016: 77). Gizarte jakin bateko kideek, edozein izanik ere maila soziala, duten gaitasun soziolinguistikoari esker, badakite aldaera prestigiodunak –estatus sozial handienekoak– eta prestigiorik gabeak zein diren:

A crucial concept here is the notion of *prestige*, which in sociolinguistics is a linguistic behavior motivated by societal attitudes towards linguistic forms: it refers to the respect that some dialectal varieties, accents or even particular linguistic features, achieve as a result of a subjective good reputation (Hernández Campoy, 2016: 89).

Prestigioaren auzia ez da gauza sinplea eta laster itzuliko gara adigai horretara (§ 2.1.9). Hiztunak egokitzapenak egiten ditu solaskidearekin aritzean. Hernández Campoyk *Communication Accommodation Theory* (CAT) delakoaren berri ematen digu:

(CAT) is a framework concerned with the dynamic negotiation of identities and perceptions between interlocutors in natural conversational situations of social interaction. [...] The individuals normally tend to accommodate others by adjusting their communicative behavior to the roles contextually assigned to them or that they personally intend to project in a given situation (2016: 101).

Hala, hizkuntzan gertaturiko aldaketak motibatuak dira. Hiztunek ihardukitzean erabiltzen dituzten aldaeretan eragiten duten aldagai sozialen sistematikotasuna aldarrikatzen dute bariasionistek. Horrez gainera, hizkuntza-aldaeren inguruko jarrerak eta hizkera batzuen estigmatizazioa ere aztertzen dute. Hiztunek, hizkera bat aditzean, hiztunaren gaineko datu nahiko jasotzen dituzte eta baloratu egiten dituzte: “Se postula que el reconocimiento de sociolectos es un reflejo del grado de conciencia lingüística del hablante y del grupo” (López Morales, 1989: 296). Balorazio horiek hizkuntza-aldaetaren oinarrian daude.

Euskal Herrian Maitena Etxebarria Arostegi dugu Laboven ildo eta metodologiaren jarraitzaileetako bat. Berak ere defendatzen duenez, erabileran gertatzen den aldagarritasuna ez da ausazkoa, aldagaiak libreak balira bezala, baizik eta baldintza linguistiko eta soziolinguistikoek eragindakoa. Aldagarritasuna arau-multzo jakin bat betetzearen ondorio da: arauon aplikazio maiztasunaren eta zenbait faktore linguistiko eta sozial erabakigarriren artean harreman estua dago (Etxebarria Arostegi, 2002: 223).

#### 2.1.4. Aldaketa linguistikoa

Hizkuntza aldatzen da, sakoneko egituretan mantsoago, beharbada, eta azaleko kontuetan nabarmenago. Aldaketa linguistikoa historian zehar hizkuntzek maila guzietako unitateetan izaten duten eraldaketa oro da. Horiek ez dira hizkuntzan izaten den aldakortasunarekin nahasi behar, zeren eta hor gertatzen baitira aldaketak: aldaketa diakroniko guziak aldakortasun sinkroniko gisa hasten dira (Camino, 2009: 36). Bariazioa sinkronikoa da, unean unekoa. Aldaketa linguistikoak, berriz, diakronian gertatzen dira eta Hizkuntzalaritza Historikoak ikertzen ditu.

Tradizioz mintzo dialektalak mozketak sinkroniko baten arabera aztertu dira, adin-talde jakin bateko hiztunak baliaturik; jardun honek ez zuen aintzat hartzen hizkuntza-aldakortasun

geografikoaren denboraren ardatzak duen eragina, ahazten zuen hizkuntza-gertakariak ez direla aldatzen denboraren bat-bateko etenetan (Camino, 2009: 66).

Aldaketa, orduan, aldakortasunarekin hasten da. Ideia arrunt inportantea da hori Soziolinguistikan, bera etorri arte bariazioa azaldu gabe utzi ohi zelako. Berriz diogu: “Aldakortasuna –sinkronikoki– eta aldaketa –diakronikoki– hizkuntzan elkarren ondoan ageri zaizkigu. Hizkuntza-aldaketak aldeztatik hizkuntza-aldakortasuna baitezpadako du, baina hizkuntza-aldakortasun egoera batek ez dakar beti eta nahitaez berehalako hizkuntza-aldaketa” (Camino, 2005: 167).

Soziolinguistek hiru multzotan bereizi dituzte aldaketa linguistikoa eragiten duten faktoreak: lehenik intralinguistikoak, bigarrenik sozialak eta, hirugarrenik, kognitiboak eta kulturalak. Funtsean, barneko eta kanpoko kausek eragiten dituzte hizkuntz aldaketak: intralinguistikoak dira analogia bezalako joera naturalak eta, aldiz, estralinguistikoa edo soziala dugu mailegua. Kanpotik nahiz barrenetik datozen eragile horien ondorioz, aldaketa linguistikoa arlo fonetikoan, morfosintaktikoan eta lexikoan gertatzen da:

Maila fonetiko-fonologikoan artikulaziorako erraztasunari lotutako aldaketak gertatzen dira (asimilazioa, disimilazioa, epentesia). Maila morfosintaktikoan ematen diren aldaketak, askotan, anbiguotasun estrukturala saihestu nahiak eta zenbait unitateren gramatikalizazioak eragindakoak dira. Analogiaren eragina ere handia da, zeren eta hizkuntza-sisteman egon ohi den erregulartasunaren ondorioz, hainbat forma irregular ordezkatu egiten dira orokorragoak diren formekin. Maila semantikoko aldaketek hitz baten esanahian gertatutako aldaketek ekartzen dituzte, haren esanahia murriztu edo zabaldu egiten denean. Maila lexikoko aldaketak, batetik, errealitatea adierazteko forma bat beste batek ordezkatzeko duenean gertatzen dira; eta, bestetik, kontzeptu berriak edo berezituak adierazteko beste hizkuntza bateko hitzak mailegatzeko direnean (Martínez, 2010: 122-123).

Aldaketak aztertzeko, faktore sozialak eta kulturalak oso aintzat hartzekoak dira. Gizartearen egoera, gertakizun, mugimendu, helburu eta abarrei begira azal daitezke hizkuntzan gertatzen diren hainbat fenomeno (Martínez, 2010: 85). Honatx Juan Manuel Hernández Campoy soziolinguistaren esanak: “En el desarrollo de cualquier cambio lingüístico, o innovación, hay algunos elementos de la sociedad –clase social, edad, sexo, grupo étnico, etc., además de la zona geográfica– que están a la vanguardia de una innovación determinada” (1993: 172). Hitzun batek berrikuntza bat eragin diezaike hizkuntzari: hala ere, berrikuntza bat ez da hizkuntz aldaketa bilakatuko, non eta ez den gizarteratua (Camino, 2009: 33). Aldaketa linguistikoa gertatzen denean, tradizioeko ezaugarri bat, berarekin lehian hasi den beste berri batek mailaka-mailaka ordezkatzeko du (Camino, 2009: 37).

Gogoan har dezagun Labov gakoa dela bariasionismoan. Aditu eta aitzindaria da aldakortasun soziolinguistikoaren alorrean eta hiru liburuki mardul argitaratu zituen arestiko faktoreei loturik: *Principles of language change 1. Internal factors* (1994), *Principles of language change 2. Social factors* (2001) eta *Principles of language change 3. Cognitive and cultural factors* (2010). Ondorioen atalean (§ 5.1) ikusiko dugu gure emaitzetan dokumentaturiko aldaketak faktore estralinguistikoekin lotzen direla askotan: sozialak eta kulturalak –euskara estandarrarekiko, arauarekiko eta gaztelaniarekiko harremanak–, bai eta eragile psikologikoak ere, halako hizkeraren ustezko prestigioak eragin handia baitu hizkuntz aldaketetan:

Hainbat arrazoiengatik hizkera-erkidego baten barrenean hizkuntza-aldaketak gertatzen hasten direnean, geografikoak eta gizartezkoak diren eragileak lehian egon ohi dira. [...] Hizkuntza, edota nahiago bada, hizkera, hiztunona da, bere egitekoa du, bere baldintzak, kanpotikako presioak e.a. Berrikuntza artifizialez kanpo edota euskara batuaren gaitik landa, hizkera baten barreneko berregituraketa eragin duten hizkuntza-aldaeren arteko lehia dago, hizkeren arteko berdintze edo nahastetik kanpo egon daitekeena (Camino, 2005: 177).

Hizkuntzen artean indar-erlazioak izaten dira, eta hori bera euskalkiei ere aplikatu dakieke:

Hizkuntzak hiztun taldeen komunikaziorako eta antolaketaerako tresna dira eta talde hauek elkarren artean harremanetan izaten dira. [...] Harreman horiek gehienetan ez dira orekatuak izaten eta indar-erlazioa zein den, hizkuntza batek esparru handiagoa hartuko du eta besteak galdu. Hiztun askok euren hizkuntza utzi eta beste hartuko dute, edo seme-alabei bestea irakatsiko diete. Txarrean, hizkuntzak indarrez atzeratzen dira. Aniztasunaren kalterako, hizkuntza asko betiko galdu dira azken hamarkadetan eta askoz ere gehiago galduko omen dira datozenotan. Soziolinguistikaren zeregina bada joera hori ekiditeko neurriak bilatzen laguntzea ere (Zarraga, 2010: 23).

Dakigun moduan, hizkuntzaren bizitasunak denboran zehar hizkuntza aldatzea dakar. Hizkuntz aldaerei erreparatuz, geografikoak izan daitezke, testuinguruak eragindakoak, taldearenak, norbanakoarenak... Izan ere, hiztun guziek ez dute hizkuntza berdina erabiltzen: idiolektoa norbanakoen berezko aldaera da, hiztun bakoitzak duen hitz egiteko modu errepikaezina (§ 4.8). Hortaz, hizkuntza batean hiztun beste idiolekto daude. Hiztunek audientziaren, testuinguruaren, solaskideen, diskurtsoaren helburuaren eta abarren arabera egiten dituzte hautuak eta hizkuntza-aldaketak<sup>11</sup>. Halaber, estiloak ere hiztunen arteko aldakortasuna eragiten du (Camino, 2009: 263). Jendeak, neurri batean, aurrean duen mintzalagunaren arabera ihardukitzen du. Pertsona batek bere baitan idiolekto bat baino gehiago izateko aukerak hizkuntzan aldaketak gerta daitezkeen laguntzen du (Camino, 2009: 297-298).

---

<sup>11</sup> Gehiago jakiteko, ikus erreferentzietan Hernández Campoy (2016).

### 2.1.5. Sinkronia eta diakronia

Dakigunez, bariaziotik sortzen da aldaketa; beraz, sinkroniatik sortzen da diakronia. Bereizketa bakarra metodologikoa da, ikertzaileak hartzen duen ikuspuntua (maiz bortxatua): “La antinomia sincronía-diacronía no pertenece al plano del objeto sino al plano de la investigación” (Coseriu, 1973: 14).

Ikuspuntu bariazionistatik, aldaketa linguistikoa ikertzeko bi aukera ditugu: bi garaitako datuak kontrastatzea –denbora erreala– edo, bestela, ikusiriko bariazio sinkronikotik ondorioztatzea, batik bat gizaldien arteko espektroaren bitartez –itxurazko denbora–. Bigarrenaren kasuan, aldagai linguistikoaren eta testuinguru sozialaren arteko korrelazioari behatzera jo izan da (Etxebarria Arostegi, 2000: 94). Guk, lan honetan, bi garaitako hiztunen hizkera aztertu eta alderatu dugu azterketa diakronikoa eginez –duela mende erdi / gaur egun–, baita unean unekoa edo sinkronikoa eginez ere –gazteak / adinekoak–.

Aldagarritasunaren teorian, ez dago sinkroniaren eta diakroniaren arteko muga zorrotzik. Horregatik, hizkuntz aldaketa ikuspegi sinkronikotik ere azter daiteke (Martínez, 2010: 123), nahiz eta hainbat adituk trabak ikusten dizkioten itxurazko denboran lan egiteari, hala nola Chambersek eta Trudgillek: “La hipótesis de que el tiempo aparente puede ser equiparado con el tiempo real no está en absoluto firmemente asentada, y la relación entre el tiempo real y el aparente puede ser verdaderamente [...] compleja [...]. Debemos recordar que la hipótesis del tiempo aparente tiene todavía que ser comprobada” (1994: 210-211). Bestalde, Moreno Fernándezek ikerketa sinkronikoan gertatzen den *behatzailearen paradoxa* aipatzen du: “La precariedad de los datos históricos [escritos] es lo que hace surgir la llamada «paradoja histórica», que tiene correspondencia en la *paradoja del observador* de la investigación sincrónica” (2009: 122). Kontzeptu hori Labovek sortu zuen eta merezi du horretan pulunpatzea: geroago itzuliko gara (§ 3.2.3).

Aldaketa denbora errealean analizatzeko, diakronian bi puntu hautatu eta konparatu behar dira. Caminoren aburuz, adinaren arabera zatitutako aldakortasun-ereduak islatzen duena bidean abiatu dagoen hizkuntza-aldaketa bat ote den ziurtasunez jakiteko era, denbora errealean egindako datu-bilduma da (2009: 67). Chambersek eta Trudgillek ere begi onez ikusten dute ikerbide hori: “Si queremos estudiar los cambios lingüísticos que están aconteciendo [...], el



método más satisfactorio sería investigar una comunidad en concreto y volver luego, [...] años más tarde, y llevar a cabo una investigación posterior. Podríamos llamar a esto el estudio del cambio lingüístico en el tiempo real” (1994: 123).

Hizkuntzalaritza Historikoan dokumentu idatziez baliatzen dira, hizkuntzan gertaturiko prozesuen lekuko direlako: areago dena, idatzizko hizkuntza erabiliz ikertu dira aldaketa gehien denbora errealean (Moreno Fernández, 2009: 121). Testurik ezean, ordea, aldaketa gertatu den edo bidean dagoen, eta beraren nolakotasuna zehazteko, analisi sinkronikoa egin beharra da, eta erreparatu belaunaldi ezberdinen mintzoan hizkuntza-forma jakinen jokaerari:

Un método alternativo y más inmediato es investigar el cambio lingüístico en tiempo aparente. Esto significa simplemente que, al investigar una comunidad concreta, comparamos el habla de la gente mayor con la de la gente más joven, y asumimos que cualquier diferencia que apreciemos será el resultado de un cambio lingüístico (Chambers & Trudgill, 1994: 123).

Ikuspuntu horretatik, hizkuntza-aldaketa ez da denbora errealean aztertzen, denbora erlatibo edo itxurazko denboran deritzon bainik. Adibidez, nagusien artean maiztasun handiz entzuten den aldaera, bestelako hitzunik zenbat eta gazteagoa izan orduan eta gutxiago erabiltzen badute, forma hori erregresio prozesuan dagoela eta litekeena galtzea dela ondoriozta daiteke (Martínez, 2010: 123).

Itxurazko denboran lan eginez, ikertzailea pertsona bera da eta aski erraza izan daiteke metodologia, transkripzioa eta analisisia. Moreno Fernándezen ustetan, aldaketa denbora aparentean ikertzea ez da Soziolinguistikak proposaturiko alternatiba, osagarria baizik. Itxurazko denboraren baliozkotasuna hipotesi batean oinarritzen da, azken buruan: “El *tiempo aparente* nos permite llegar a una interpretación de un cambio en curso, que podría ser ratificada o rechazada por el *tiempo real*” (Moreno Fernández, 2009: 122). Itxurazko denboraren hipotesitik abiatuz egin diren ikerketa ugarietarako, egiaztatu ahal izan da aldaketa linguistikoek tarteko gizarte-taldeetan izan ohi dutela jatorria (Moreno Fernández, 2009: 123). Chambers eta Trudgillek, baina, ez dituzte gauzak argi ikusten metodo hori baliatuta:

Los estudios en tiempo aparente frente a los de tiempo real tienen también la desventaja de limitar el intervalo entre los grupos en contraste ya que los grupos de comparación tienen necesariamente que estar formados por contemporáneos [...]. La duración de una vida puede ser un intervalo demasiado corto para estudiar la difusión (1994: 211).

Nolanahi ere den, zentzuz jokatuta, bata zein bestea erabiliz onura handiak erdiesten ahal direla irizten diogu: ditugun aukeren arabera erabaki beharko. Itxurazko denboran lan eginez gero, on litzateke eskuratutako informazioa hiztun-kopuru eder batekin egitea (Chambers & Trudgill, 1994: 124), ahal bezain sinesgarri izan dadin. Denbora errealeko ikerketek, hori bai, badute ezin ukatuzko hobaria: jatorrizko inkesta ondorengo biztanleriari egin ahal izatea,

mugarik gabe. Izan ere, belaunez belaun berrikuntzak esanguratsuagoak dira. Teorian, denbora errealean oinarrituriko azterketa konparatiboek hizkuntza-hedapena deskribatzeko oinarria ematen digute (Chambers & Trudgill, 1994: 209).

### 2.1.6. Aldakortasunean eragiten duten aldagaiak

Aldagaia askotariko emaitzak eman ditzakeen balioa da, eta § 1 atalean aurreratu bezala, linguistikoa edo soziala izan daiteke: adina, adibidez, gizarte-aldagaia da, baita sexua, maila soziala, jatorria... ere. Ematen duenez, aldaerek lotura handia dute adina eta sexua aldagaiekin. Batez ere adinaren aldagaiak hartu du garrantzi berezia hizkuntzen aldaeran (Zarraga, 2010: 58) eta gu ere horri begira jarri gara. Aldagai linguistikoak, bestalde, hizkuntza-maila guziak barne hartzen ditu.

Aldagai estralinguistikoen artean, adina hartu dugu kontuan (hiru belaunaldi, horietarik bi sinkroniko).

Se trata de una estratificación generacional que indica la marcha de la variación; las generaciones jóvenes suelen ser más innovadoras en contraste con el conservadurismo lingüístico de las mayores. [...] Es también posible que los jóvenes sean más sensibles a las formas prestigiadas por su comunidad, quizás porque aquí suelen ser más altos los índices de escolaridad (López Morales, 1989: 114-115).

Adinari erreparatuz hizkeren arteko ezberdintasunak zein diren ikus daiteke, zer ezaugarri linguistiko ageri den nagusiengan gehiago, eta ez hainbeste edo batere ez gazteengan... Ikus dezakegu, hala berean, aldaera gehienak lexikoan gertatzen diren edo beste mailaren batean:

Gazteek, beraz, zaharrek ez bezala egingo dute [...]. Aldaera horri leporatzen zaion pobrezia (erdal kutsua dauka, etxekoa eta batua nahasten dira...) aldagarritasunaren argitan azaltzen da: gizartean, aldaketa, ezberdin izatea, ez da begi onez ikusten, ideologia linguistiko garbizalea handia baita, bai Euskal Herrian, bai mendebaldeko gizarte gehienetan. Erdararen eragina gehiegizkotzat jotzen da; hainbatek hurrengo pausoa hizkuntzaren heriotza izan litekeela uste dute (Zarraga, 2010: 129).

López Moralesen hitzetan, belaunaldien arteko desberdintasunik adierazgarrienak lexikoan eta fraseologian gertatzen dira (1989: 117-118). Patroi hauek aipatzen ditu: 1) lehian dagoen lexikoa; nagusiek termino zaharra nahiago izatea; 2) belaunaldi zaharrenen kontserbadurismo handiagoa tabu diren hitzetan, eta gauza bera eufemismo eta teknizismoen erabileran; 3) belaunaldi gazteek termino zehaztugabe pobreak gehiegi erabiltzea; 4) gazteek metaforizatze

umoretsuak barra-barra egitea; 5) gazteek termino berriak sortzea –apokopeak edo aspektiboen eransketak–; eta 6) marjinaturiko terminologia hartzea.

Hizkuntz aldagaien artean, berriz, gure lanean lexikoa hartu dugu ikergai. Zer bilatzen da bariazio lexikoa aztertzean? Moreno Fernándezen arabera: “Se intenta explicar el uso alternante de unas formas léxicas –normalmente sustantivos, verbos o adjetivos– en unas condiciones lingüísticas y extralingüísticas determinadas” (2009: 32).

Gauza ezaguna da lexikoa errealitateari eta kulturari guztiz loturik dagoela eta, honenbestez, aldatzeko joera ere handia izan dezakeela. [Nahiz eta] Lexikoaren azterketak dakarren emaitzaren erlatibotasuna, [...] horrek ez du adierazten, lexikoaren azterketa eremu elkorra denik [...]. Etorkizunean etorri beharko duten azterketa geolexikoei erakutsiko digute atal hau ikertzeak emaitza oparoak dakartzala (Camino, 2004: 79).

Aldagai lexikoaren barrenean dautza, esate baterako, sinonimia edo elkarri gainjarritako esanahiak. Eremu honetan, López Moralesek azpimarratzen duenez, zaila da hiztunaren asmo komunikatiboa jakitea eta horrek entzulearengan eragindako erreakzioa, bai eta datuak interpretatzean gerta daitekeen kutsadura subjektiboa ere (1989: 105). Aurreikusi ezin diren balorazio partikular edo/eta intentzio komunikatiboez gain, sinonimoen baliokidetasuna ere zailtasun-iturri da:

La decisión sobre qué unidades merecen ser consideradas como variantes de una misma variable entraña un riesgo notable. Ante tal delicada circunstancia, cada investigador se dejará guiar por los intereses particulares de su estudio y por las características históricas y dialectales de las variantes analizadas. [...] De ahí que algunos especialistas hayan optado por encontrar las variables fuera del discurso continuado y natural: por medio de encuestas y cuestionarios. [...] Preguntar directamente por ellas [las formas léxicas], [pese a] los inconvenientes que presenta en relación con lo que William Labov llamó la *paradoja del observador* (Moreno Fernández, 2009: 33).

Inkestak dituen mugez haratago, badirudi metodorik eraginkorrena eta gogobetegarriena dela. Izan ere, elkarrizketa librea eginez, ohartuko gara talde sozialen arteko desberdintasun lexikoak kuantitatiboak direla askotan, eta ez kualitatiboak, hizkuntzaren gainerako mailetan gertatzen den bezala (Moreno Fernández, 2009: 84).

*Behatzailearen paradoxa* arestian azaldu zaigu berriz. OINARRI METODOLOGIKOAK atalean (§ 3.2.3) murgilduko gara kontzeptu horretan eta, oro har, galdeketa bidezko teknikaren nondik norakoetan.

Moreno Fernándezen hitzetan, bariazioan sar daitezkeen forma lexikoak hauek izan daitezke: komunitate batean elkartu diren jatorri geolinguistiko desberdineko unitateak, maila kultuei

edo maila herrikoiei atxikitako formak, baita estilo gutxi gorabehera formalei atxikitakoak ere (2009: 33). Forma lexikoetan ez eze, aldakortasuna fraseologian edo unitate fraseologikoetan ere badugu (2009: 34). Horietan nagusiki faktore estralinguistikoek –ezaugarri soziologikoek, egoerek, sinesmenek eta jarrerek– parte hartzen dute, baina faktore linguistikoak ere tartean sar daitezke, adibidez, hizketa-erritmoa, errepikapenak edo unitate lexikoen jatorrizko hizkuntza.

### 2.1.7. Aldakortasuna eta euskara

Hurbildu gaitzen euskararen ingurumarira, Mitxelenaren eskutik:

Lo que sí hay de particular en nuestro caso podría describirse como la conjunción de dos circunstancias. La abigarrada diversificación, en primer lugar, que se da en un país de extensión tan reducida, pues, como escribía Leizarraga, *batbederac daqui heuscal herrian quasi etche batetic bercera-ere minçatzeco manerán cer differentiá eta diuersitatea den*. Y en segundo, el hecho de que no haya existido esa lengua normalizada, estándar o como quiera llamársele, con respecto a la cual pudiera delimitarse la diversidad dialectal (1981: 293).

Caminoren ustez, aldagarritasunaren funtsik nagusia geografiaren ardatzari dagokio (2005: 180). Martínezen arabera, zenbat eta gizarte-estratifikazio handiagoa egon, orduan eta aldakortasun linguistiko handiagoa ere badago. Gure hizkuntzaren kasuan, normalizatu ez baitago, esan daiteke aldakortasun sozial eta estilistiko gutxi dagoela, nahiz eta horrelako komunitateetan ere –gizarte txikiagoetan–, egon badagoen aldakortasun linguistikoa (2010: 100).

Euskara batuari bagagozkio, orain artean batuaren eta euskalkien arteko osagarritasuna izan da aztergai nagusia. Zarragak oroitarazten digu aldaera estandarren hedapenak, alde batetik, hiztunen artean komunikatzeko erraztasun handiagoa izatea ahalbidetu duela baina, beste alde batetik, hizkuntza idatzirako bultzaturiko ereduak izanik, jatorrizko hizkeren freskotasun eta aberastasun falta izan ohi duela (2010: 56).

Euskalkiak gainerako euskaldunekin mintzatzeko aukera ematen du eta,aldi berean, beste hizkera-erkidegoetatik bereizten gaitu, hots, zeregin demarkatiboa du (Camino, 2005: 158). Sentimendu horrek, batzuetan, ondorio positiboak ditu hiztun-komunitatean –nortasuna, prestigioa...– baina, beste batzuetan, negatiboak ere izan ditzake –konplexua, gutxiagotasuna...–, sarri berrikusiko dugun bezala.

### 2.1.8. Euskal herri-hizkerak egun: gainbeheraren faktoreak

Egungo errealitatea testuinguratzeko, zenbait xehetasun emanen ditugu. Caminok argi eta garbi diosku (2005: 160): euskal herri-hizkerak eta ereduak urtzen eta koloregabetzen ari dira, kutsu lokala duten ezaugarriak galtzen –markatuenak–, eta hedatuenak nagusitzen.

Jakina denez, denbora gutxian egoera zeharo aldatu da. Hainbat eragilek etxeko hizkeraren ahultzea, transmisioaren etena edo jauzia –hibridaziorantz, homogeneizaziorantz, euskara baturantz, erdararantz...– ekarri dute. Eredu estandarraren zabaltzeak, esaterako, dialekto markatuen beheraldi drastikoa eragin du azken urteotan. Baina, euskararen estandarizazioa aski berria da eta ez dakioker egotz euskalkien makalaldiaren ardura osoa. Aire-perspektiba hartuz gero, gainera, ohartuko gara gurea ez dela salbuespenetzko egoera eta mundu guzian gaindi ari dela homogeneizazioa hedatzen. Industrializazioaren ondorio den urbanizazio-prozesua eta homogeneizazioranzko joera orokorra da, bai gurean, baita hemendik kanpo ere (Camino, 2005: 161).

Nazio-estatuaren sorrerak eta kapitalismoaren garapenak herri-hizkerak suntsitu eta asimilatu dituzte mendeak aurrera (Martínez, 2010: 113). Globalizazioa, mugikortasuna eta XXI. mendeko modernizazioaren urratsen ondorioz, gizarte-aldaketa sakonak etorri dira, bai eta kulturen berdintze lasterra ere. Adibide modura, hauxe dakar Koldo Zuazo euskal hizkuntzalariak: “Goikoekin berdindu –edo homologatu– eta moderno itxura hartu nahiak txotxolokeria galantak egitera ere eraman ohi duenez, *puenting* hitza asmatu dugu *zubijauzi* asmatu beharrean” (2000: 152).

Abiada bizian gertatu da hizkuntza-desberdintasun geografikoaren apaltzea eta, nahitaez, dialektoen berdintzera jo da. Bizimoduaren homogeneizazioarekin batera, prozesu naturala da hizkeren berdinkaritzea (Camino, 2005: 161) edo, bestela esanda, Trudgillek izendaturiko *dialect levelling* prozesua: “Levelling, in this sense, is to be interpreted as implying the reduction or attrition of marked variants. [...] Marked refers, for the most part, to forms that are unusual or in a minority. [...] It appears that [...] the forms with the widest geographical (and social) usage are the ones that are retained” (1986: 98).

Tarteki gisa, gaineratuko dugu 1998. urtean *Folia Linguistica* aldizkariak bateratze-fenomeno horren gaineko monografikoa karrikatu zuela, Europako hizkuntzak ardatz.

Edonola ere, eredu estandarraren eragina nabarmena (izan) da. Aldaera estandarra herrialde osoko komunikabideetan, hezkuntza formalean, administrazio publikoan eta beste testuinguru formal batzuetan erabiltzen dena da; hizkuntza normalizatua, zeinak euskalkien aniztasuna mugatzen baitu. Euskarazko irakaskuntzak, alfabetatzeak eta arauarekiko hartu-emanak aldaketa linguistikoa ekarri dute, eta batez ere gazteak euskara batuko lexikorantz lerratzea: etxeko euskara galdu edo/eta ordezkatu dute. Horrexegatik, esan ohi da oinarrizko dialektoa adineko eskolatu gabeko eta ez-mugikorren hizkera dela (Camino, 2005: 167), nahiz eta gero eta urriagoak diren halako pertsonak. Halarik ere, zahartzaroa ez da beti kontserbadurismoaren adierazle. Ildo horretatik, Caminok dio “dituen harremanengatik, lanbideagatik edo egoera pertsonalagatik, hogeitun urte gazteago den pertsona batek, hogeitun urte zaharrago den beste batek baino mintzo «gordetzailleagoa» egiten duela: ez da hau gauza ezina, bereziki dialektoaren eta mintzo estandarraren arteko lehia dagoen kasuetan” (2009: 71). posible da, modu berean, pertsona berarengan ezaugarri zaharrak eta berriagoak batera agertzea; denbora ez da gelditzen eta hori hiztun bakoitzaren mintzoan ageri da (2009: 297).

Adineko jendeak ez du bere garaiko gurasoen edo senideen mintzoa bakarrik entzuten, berritzen doan gizartean txertatzen eta nagusitzen ari diren hizkuntza-aldaketak ere adineko jendearen belarrietara iristen dira [...]. Berrikuntza horiekiko oro har adinekoak duen oharrenaren arabera izan daiteke bere jokabidea ere: zenbait berrikuntza onar daitezke eta beste zenbait ez, ala oro har berrikuntzen aldeko joera eduki dezake pertsonak, ala gehienbat aurkakoa: guztiok ikusi dugu hau gure inguruan (Camino, 2009: 71).

Halaz guztiz, gure herri anitzetan adin jakin batetik beheetiko hiztunek dialektoa ez den beste eredu edo hizkera konplexuago, hibridoago edo nahasixeago bat darabilte (Camino, 2005: 167). Eredu estandarrak hizkera guzietan eragiten die, antzeko norabidean eragin ere; euskal hizkeren diasistema, mendeetan zehar ezberdinduz joan eta gero, soilduz eta homogeneizatuz doa orain (Camino, 2005: 166) –berriz ere–.

Adierazitakoa euskal herri guzietara estrapola daiteke. Euskalari gehienek euskararen estandarizazioa beharrezko urrats gisa jotzen badute ere –baitezpadakoa baitzen euskarak, hizkuntza ofizial moduan, aldaera neutroa edukitzea, erregistro formala–, prozedura lasterrari gabeziak eta akatsak ikusten dizkiote hainbatek eta hainbatek. Horietako bat dugu Zuazo, zeinak *Euskararen sendabelarrak* lanean (2000) 1960.-1975. hamarkadako iraultzan

hutsegiteak egin zirela kritikatzeko duen, euskararen hazkundera itsu-itsuan eta bururik gabe egin zelakoan, zeinaren bitartez benetako diglosia egoera sortu den Euskal Herrian.

‘Eredu estandarra *versus* dialektoak’ ikuspuntutik landa, Caminok proposatzen du ikus dezagun zein diren euskara batua sortu aitzineko belaunaldien arteko hizkuntza-etenak. Herri jakin bateko hizkuntza-unibertsoa soziolinguistikoki aztertzean, garbi ikusiko dugu zein berrikuntza, zein aldaketa eta zein iraultza dagokion euskara batuari, zer dagokion batua etorri aitzineko euskararen berezko bilakabideari eta zer dagokion zeri (Camino, 2005: 164). Izan ere, belaunaldien arteko ezberdintasunak bestelako arrazoiek ere eragindakoak dira: adibidez, euskararen erabilera-esparrua murriztu izana edo beste euskalkietako hiztunekin harreman-kopurua handitu izana (Martínez, 2010: 130).

Ukipen-egoera etengabea egotea ere ez zaie lagungarri gertatzen euskal hizkerari: ezinbestean, elkarren eragina jaso(ko) dute. Frantsesa eta espainolaren ezaugarriak euskararen maila linguistiko guzietan barneratu dira (Martínez, 2010: 86-87). Hizkuntza-ukipenak aldaketa linguistikoak dakartza: batetik, hiztunak, bigarren hizkuntza ikastean, lehen hizkuntzaren ezaugarriak txertatzea; bestalde, ikasten ari den hizkuntza berrian maila eskasa baitu, hiperzuzenketara jo dezake eta hori ere aldaketaren eragile da. Hizkuntzak kontaktuan daudelarik eta hizkuntzan mailegu-kopuru handia sartzen delarik, aldaketa gertatzeko aukera handiagoa egoten da (Martínez, 2010: 122).

### 2.1.9. Prestigioa, uste baino baldintzatzaileagoa

Prestigioaren afera ere ez da kontu hutsala; aldakortasunaren eragile estralinguistiko ezin atzendumena, izan ere. Prestigioak garrantzi handia du hiztunen artean aldaketa linguistiko bat gerta dadin. Eremu nabarra da, sinbolikoa eta arrunt subjektiboa. Hernández Campoyk dio: “Hay indicios suficientes para sugerir que las actitudes subjetivas son la causa antes que el efecto de muchos de estos cambios, los cuales pueden tener lugar no sólo en la dirección de una forma prestigiosa [...], sino incluso en la opuesta” (1993: 173).

Caminoren arabera, arrunta da hizkuntzaren inguruan jakinaren gaineko halako prestigioa agertzea: arau edo hizkuntza-erabilera jakin batzuen bidez ageri da eta *ideologia gramatikala* izena ematen zaio errealitate horri (2009: 87).

Hizkuntza edo dialekto batek bizi duen egoera sozialaren arabera da prestigioarekiko duen harremana eta lotura (Camino, 2009: 100). Barreneko prestigioa taldeen edo maila sozialen baitakoa izateaz gain, alderdi geografiko bati ere badagokio (Camino, 2009: 87-88).

Gaur egun, askotariko ikuspuntuak daude gure artean, modu batera edo bestera, segurtasunik eza edo gutxiagotasun-sentimendua eragiten dutenak<sup>12</sup>. Alde batetik, gaztelania ahalguztidunak zokoratutako euskara kaskarraren kasua dugu, mendez mende eta oraindik ere sendo dirauen *baserritar* konplexua eta ahalkea –zenbaitetan, baita beren hizkuntzarekiko autogorrotza ere–. Halaxe dio Caminok: “Joera zentralistek hein batean arrakasta izan dute: egun Euskal Herriko jende apal anitzek arbuioa sentitzen dute beren aitetamen hizkuntza nagusia izan den euskararekiko, behin betiko gainera kendu beharreko hizkuntzat dakusate, estigma eta ikuilu kiratsa dario” (2009: 101).

Paula Kasares (1999) Baztango kasuaz mintzo zaigu, Nafarroa gehienera heda daitekeena. Ildo horretatik doaz Apalauzaren hitzok: “euskalduna izan eta gaztelania ez jakiteak lotsa eta konplexua sorrarazi die” (2008: 26). Hona zer zioen, halaber, Pedro de Yrizarrek Imotz ondoko Basaburuko Ihaben eta Jauntsarats herriez ari zela: “Aunque se habla castellano corrientemente y mal, el 40% saben hablar en vasco. [...] Esto mismo es aplicable a otros lugares de Navarra” (1981: 192). Sagrario Aleman etxalekuarrak ere, horren adierazle, ondokoa dio bere herriaz eta euskararen transmisioaz:

Euskarak prestigiorik ez zuen, eta euskaldunak gutxietsiak ziren, beraz, ez da harritzekoa herri askotan euskarak atzeraka egitea. Gurasoek, erdizka zekiten gaztelania besterik ez zieten transmititzen beren seme-alabei, eta haur hauek, euskara jakinki ez eta etxean euskaraz aritzen zirenek baino gaztelania kaxkarragoa zuten maiz (2008: 7).

Beste muturrean euskaldun berriaren kasua dugu, euskaldun osoaren euskara jatorra ortzi-muga duena: “Beti egon da, are 1968 urtearen inguruan ikasi zuten euskaldunberrien artean ere, folk hizkera ikasteko eta menderatzeko borondate izugarria, izan ere horrexetan baitzetzan «benetako» euskaldunen artean integartzeko baitezpada gainditu beharreko langa” (Camino, 2005: 165).

---

<sup>12</sup> On litzateke hemen Nafarroako hizkuntza-politikak eta horiek ekarritako/dakarten egoera soziolinguistikoa aipatzea. Interesa duenak jo beza Xabier Erize soziolinguistaren lanetara: [Xabier Erize Etxegarai - Dialnet \(unirioja.es\)](http://Xabier_Erize_Etxegarai_-_Dialnet_(unirioja.es)).



Bestalde, euskara dotorea euskara batua baizik ez dela uste duenik ez da falta gurean –eta dialektoa, noski, zakarra–, eskolako eta hedabideetako eredia, hain zuzen. Caminok *arbuio linguistikoa* deritzo horri (2009: 98): hizkuntza estandar edo ofiziala da onespen guziak biltzen dituen, aldaki horrek du gizartearen *gramatika ideologikoan* estimu gehien. Mintzamolde ez-estandarra gizarte-maila baxu edo heziketa ezaren ondorio gisa ikusten dute. W. Nelson Francis hizkuntzalari estatubatuarrek honela zioen: “In an older and more elitist society, the speaker of dialect was considered provincial, uncultivated, uneducated, and even stupid. Much dialect humor preserved this stereotype” (1983: 9).

Aldaera ez-estandarrak, jadanik aipatu dugunez (§ 2.1.7), sozialki markatutako elementuak ditu eta, besteak beste, gutxiespen-sentimendua sorraraz dezake. Ideia horri lotuta, Zuazok dio alde batera utzi behar dugula euskalkiak “ezdeus eta ezgauza diren uste ustela” eta, horrekin batera, euskalkia erabiltzeko lotsa eta izua (2000: 29). Ikus, gainera:

Hamarkada horrez geroztik [1970] sortutakoek Etxalekun erabiltzen diren hainbat hitz ez dituzte inoiz erabiltzen, eta beste asko ez erabiltzeaz gain, ez dituzte ezagutzen. Eta guk, helduagook ere, gero eta gutxiago erabiltzen ditugu, gazteek eskolan ikasitakoa eta telebistan entzuten duguna, nahitaez, gurea baino hobea delakoan. Eta berriki arte esaten genituen hitzak inongo hiztegitan baztertuak utzi ditugu (Aleman, 2008: 11).

Berriz ere Zuazo ahotan hartuko dugu Euskara Batuaren izen handia lerrootara ekartzeko: guraso arrunta ez omen da berriegia dena edo makur esana dagoena zuzentzera ausartzen (2000: 136).

Hala ere, kontrako ikuspuntua ere badago: dialektoa erabiltzen den eremuan dialektoa bera baldin bada gehiengoaren hizkera, orduan horrek duke ezkutuko prestigioa, eta euskara batuak errefusa. Caminok argi dakusa gertakaria: “Beti izan dira eta izanen ere, oraingoz, herri-euskara ez den oro betertzez dakusaten euskaldunzahar analfabeto handiusteko gogaikarriak, euskara batua «español» edo «gipuzkoanoa» baizik ez dela diotenak” (2005: 165).

Argibide bat, azkenik. Euskara batua ez zen sortu gai jasoez jarduteko, elkar ulertzeko ere sortu zen: elkar ulertzea barietate estandarren helburuetako bat zen –ez bakar, dakigunez: literatur hizkuntza sortzea eta irakaskuntzarako eta administraziorako hizkuntza-eredu izatea ere bazen hasierako asmoa–. Are gehiago, Zuazok aldarrikatzen du euskalkitik abiatuta ere lortzen ahal dela hizkera jaso eta duina (2000: 28): “Gezurra da, era berean, euskalkiak gai jasoak eta teknikoak erabiltzeko gauza ez direla” (2000: 78). Mailak bereiztea komeni da,

besterik ez; izan ere, euskalkiak estandarraren iturri ere badira, eta beraz, badaude neurri batean.

Kontuak kontu, bi mintzaira elkarrekin harremanetan egotean –batua eta herriko hizkera–, eragin diglosikoa eta desoreka gertatzen da: batek estatus handiagoa izaten ohi du eta, ondorioz, aldaera gutxitua arriskuan geratzen da (Zarraga, 2010: 44-45). Herri-hizkera komunitate batean ahul badago, galera are eta handiagoa izango da.

Egungo haurrak, kasurik hoberenetan lehen urteetan familian herriko euskarari haziak diren arren, eskolatan eredu homogeneoagoak erabiltzen dira eta kodeen arteko nahasketa eta gurutzaketa folk ereduaren urtze eta itxuragabetzearen aitzindari gertatzen da. Euskal Herriko hainbat gunetan salbu, oso zaila da gaur egun haur euskaldun gehienak herriko bereko euskaraz ongi jabetzea eta etorkizunean interferentzia handirik gabe erabiltzea eta transmititzea (Camino, 2005: 171).

Dena den, euskalkiak ez daude estandarrari begira bakarrik, haien artean ere gertatzen da hartu-eman diglosikoa, aldaketak eta eraginak. Euskara batua edo estandarra gauzatzen ari den une honetan, ezin garrantzizkoagoa da hizkeren arteko iraganbide lauso baina egiazko horretaz jabetzea, ‘euskara batua *versus* euskalkiak’ ikuspegi soil eta kamutsetik haratago, eta hizkuntzalaritzaren muin-muina den aldakortasun ordenatuaren eremuan kokatu behar da gaia (Camino, 2005: 176).

#### 2.1.10. Euskara giputzaren ospea Nafarroan

Euskalkien artean ere batzuk besteak baino prestigiotsuagoak dira, omen, euskaldunen pertzepzioan. Oharmenezko Dialektologiaz mintzo da, hain zuzen ere, Dennis R. Preston *Handbook of Perceptual Dialectology* eskuliburuetan (1999a, 1999b). Haren ustez, hizkuntzaren gaineko ikerketa gehienak jendeak dioen horrek biltzen ditu; Pertzepziozko Dialektologia izeneko azpiadarrak, aldiz, hiztun arruntek hizkuntza eta hizkeren inguruan dituzten iritziak ikertzen ditu (Preston, 1999a: 24). Dialektoen gainean hiztun ez-linguistek dituzten usteak, jarrerak eta ikusmoldeak zertan oinarritzen diren aztertzen du. Inportantea da hiztunek nola irudikatzen dituzten eremu dialektalak eta eremu horien hedadura geografikoa, zein dialekto den prestigio gehiena duena, zein dotoreena eta abar. Oharmenezko Dialektologiak, laburbilduz, hiztun arruntek hizkuntza mintzatuarekiko nola erreakzionatzen duten ikertzen du. Hiztuna du ardatz, eta hizkuntza nola eta zergatik aldatzen den azaltzen du (Montgomery & Beal, 2011: 121). Ikus, halaber:

Pertzepziozko dialektologiak hizkuntzalari ez direnek bariazio dialektala (beren hizkera, lurralde auzoena edo urrunagokoena) eta haren estatutua (zuzentasuna, goxotasuna, prestigioa...) nola ulertzen, hobeki erran, sentitzen dituzten aztertzen ditu. Hizkuntza-gertaerak ikertu baino, pertzepziozko dialektologiak hitzunen hizkuntza-kontzientzia ikertzen du (Coyos, 2019: 258-259).

Prestonen ariora, dialektologo-soziolinguista-bariasionistak *folk* linguistikan duen interesa adierazten du Oharmenezko Dialektologiak (1999a: 25). Duen garrantzi linguistikoari buruzko baieztapen orokorra da hau: pertzepzio- eta jarrera-faktoreak eragile inportanteak dira abian den hizkuntza-aldaketaren azterketan (Preston, 1999b: 22). Hala berean, denborarekin aldaketak gerta daitezke hitzunen pertzepzioan. Hori frogatzeko, gazteen, helduen eta zaharren oharmena sinkronikoki neurtu beharko da *in apparent time* edo itxurazko denboran (§ 2.1.5). Adinaren arabera pertzepziozko emaitzetan desberdintasuna, aldaketak edo jauziak sumatuz gero, zenbait aldaketa linguistikoren ondorioa izan liteke (Camino, 2009: 305). Dialektoez ohartzeko hitzun arruntek duten era edo gaitasuna bereziki interesgarri gertatzen zaio Caminori trantsiziozko hizkeretan:

Bereziki trantsizio dialektala dagoen eskualdeetan da lagungarri lekukoaren hizkuntza-ezagutza esplizitua, oharmenezko dialektologia. Hizkuntza-joerek eta hizkuntza-balorazioek eremu hauetan jarraitzen dituzten xendra hertsien berri, ñabardura handiaz argitu liezaioke lekukoak inkestazaileari edo dialektologialariari: zein aldaera diren hedatzen ari direnak, zein diren garai bateko guraso zaharrek zerabiltzatenak, zein dauden ongi ala gaizki baloraturik, zein diren kutsu bidez sartuak edo nondik sartuak, noiztsu sartuak... (2009: 305).

Haria berrartuz, dialektoen arteko eraginak daude eta batzuek besteek baino prestigio handiagoa dute, Bonaparteren laguntzaileek konstatatu bezala (Zarraga, 2010: 60). Zuazok zehazten du: “Bonaparteren lekukotasunean ikusten denez, euskara giputza zen nagusi, behin XIX. mende erdiaz gero” (2000: 47).

Euskara giputzaren nagusitasuna. [...] Euskara giputzak XVIII. eta XIX. mendeetan zuen nagusitasunari eutsi zion 1960a bitarteko epean. Nafarroari dagokionez, batez ere mendebaldeko eskualdeetan nabari da nagusitasun horren oihartzuna. Beste gertakari batek erraztu du alderdi horretan euskara giputzaren gorakada: Nafarroa bertako eredurik ez izateak. Iruñea erdalduna izanik, eta beste hiri hazi euskaldunik ez zela, Gipuzkoara begira ibili dira Nafarroako mendebaldekoak (Zuazo, 2000: 57).

Argitze aldera, euskara giputza aipatzen dugularik gipuzkeraz edo erdialdeko euskaraz<sup>13</sup> ari gara. Blanca Urgell filologoak (2018) azaltzen du Hegoaldean gipuzkera euskalkiz gaindiko *koiné* bihurtu zela XVIII. mendean, eta Larramendiren hitzak hartuz, azalpen hau ematen du: “zeren «...hauxe bakarrik dago alde guztietatik euskal herriz inguratuta, (...) eta honegatik gorde da ahoz kultura eta bikaintasun gehiagoz»” (2018: 549).

---

<sup>13</sup> [Erdialdeko euskara - euskalkiak.eus](http://Erdialdeko_euskara_-_euskalkiak.eus).

Aspaldixkotik euskaldun aunitzen gogoan Tolosako mintzairak du prestigio gehien: Imotzen berean, adineko imoztar frankok halaxe uste du, oraindik ere.

Kanpokoari ederresteko eta etxekoa zokoratzeko eta gutxiesteko joera ez dugu oraingoa halere, lehen ere ongi irakatsi ziguten euskararik hoberena Tolosakoa zela. Gure euskara kaxkarra zela eta zenbatetan ez ote dugu Etxalekun, *det* erabili kanpotarren aurrean, gure arteko *dut* erabili ordez, baita batuan *dut* onartu eta gero ere. *Ondo* eta *hobeto* bikotea *ongi* eta *hobeki*-ri gain hartzen ari da. Ez da inor *jostatzen*, orain, denak, *jolastu* egiten dira<sup>14</sup>. [...] Zuzentasunaren izenean eta euskara batuaren aitzakian, batuan horrela izan gabe gainera askotan, nonahi egiten dira aldaketa hauek, eta euskararen indarra galtzen ari den herrietan errazago (Aleman, 2008: 11-12).

Ibarrak gauza bera kontatzen du Ultzamako hizkera aztertu zuen lan batean: “Orokorrean, ultzamarrek ez dute beren hizkerari buruz oso iritzi onik. Askotan errepikatzen dute hango euskara ez dela polita, dorpea baizik, eta askotan entzuten da: «benetan polita dena Tolosakoa da, han oso euskara politta egiten dute»” (1997: 117).

Zuazok ere ideia bera berresten du XX. mendeko euskararekiko jarrerez eta joerez diharduenean:

Nafarroa barrualderago ere iritsi da euskara giputzaren ospea eta, giputzaren ospearekin batera, baita eurenganakoaren gaitzespena ere. Ultzamaldeko euskara aztertu du aspaldi ez dela Orreaga Ibarrak *Ultzamako hizkera* liburuan (1995), eta Oskotz herriko ultzamar<sup>15</sup> bat harritu egin omen zen norbaitek beraren hizkera ezagutu eta ikertu nahi zuela jakitean. Hauxe izan omen zen haren ateraldia:

Zuk in barko ziñuke yoan Tolosaa ta artu Tolosakoa, du azentu'at oso politte ta entenditzen du mundu guziek (2000: 58).

Baita Caminok ere: “Nabarmena da «ez mugikor» ez diren Nafarroako [...] hainbat eta hainbat gizon euskaldunek bertakoa ez den euskaldun baten aitzinean Gipuzkoako mintzorat duten joera” (2005: 174). Ikus, halaber:

Hainbat euskaldunek diotenez, euskararik egokiena Tolosakoa da, baina zergatikoz galdetuz gero, ez dira gai horren arrazoia emateko. Tolosako prestigioa urrunera iristen da, beraren gailentasunaren ideia hedatu eta abstraktu hori [...] Erroibarko Lintzoainen entzun genuen [...] 1983an; bertako hiztun batek Tolosako *uskeraz* sentitzen zuen mirespena aipatu zigun: hoberena, pollitena eta garbiena omen da (Camino, 2009: 96).

Beti ematen du urrunekoak etxekoaren aldean aberatsa, dotorea eta jaso, baina irudipen hutsa besterik ez da eta jokabide horren azpian lotsa dago (Zuazo, 2000: 151). Ez da egia euskalki dotoreak eta itsusiak daudela; euskalki landuak eta landugabeak baizik ez daude (Zuazo, 2000: 78).

<sup>14</sup> Gure alderdian, *jolas egitea* ‘solas egitea’ da. Ikus EHHAn: [EHHA - solas egin](#).

<sup>15</sup> Herritarra Oskozkoa baldin bada/bazen, oskoztarra eta, beraz, imoztarra da/zen; ez ultzamarra.

## 2.2. AURREKARIAK

XXI. mende hasiera aldi emankorra izaten ari da gurean hizkeren bariazioa aztertu duten lanei dagokienez. Erreferentzia-sorta bat erantsiko dugu ondoren, garaikideak denak eta zein baino zein eredugarriagoak. Aldakortasuna ikergai joria den adibideak dira, eta orrialdeokin guk ere nahi genuke esparru hori elikatu.

2008. urtean, Oihana Lujanbiok “Hizkuntza-aldakortasuna Goizuetako euskarari” artikulua karrikaratu zuen. Zubi- edo trantsizio-hizkeren aldakortasuna hizpide harturik, kasu honetan, Goizuetakoa, euskara batuaren hedatzeak ekarritako egoera soziolinguistikokoaren agertoki bat aurkezten digu. Bi belaunaldi elkarrizketatu –gazteak eta adinekoak– eta ikertzailearen arabera agertu dituzten hizkuntza-hautuetan jartzen du arreta. Urte batzuen buruan, “Hizkuntza-aldakortasuna Goizuetako euskarari: emaitza gehiago” (2014) lana argitaratu zuen Lujanbiok, ildo beretik.

2008. urtean ere Gotzon Aurrekoetxeak “Bariazio soziolinguistikoa Dimako euskarari” artikulua plazaratu zuen. Herri hartako euskara izaten ari den aldaketa soziolinguistikoa ikergai harturik, Aurrekoetxeak ere bi belaunaldiren arteko desberdintasun linguistikoa aztertzen ditu hizkuntzaren hainbat parametreri begira.

Urte berean, José Luis Ormaetxeak “Otxandioko hizkera: adinaren arabeko bariazioa” (2008) eman zuen argitara. Adinaren aldagaia kontuan hartuz, hizkuntzaren hainbat arlotako ezaugarriak dakartza. Otxandioko gazte eta heldu hizkeraren arteko konparazioa egiten du, euskararen bilakabidea aztertzeko: belaunaldi batetik hurrengora zein aldaketa gertatzen diren, zeren eraginez sortu diren eta zer joera hartzen duten gerora begira. Gure egitasmoa, bidenabar esateko, alde horretatik doa.

Ekaitz Santaziliak “Luzaideko hizkuntza bariazioa” argitaratu zuen 2009. urtean. Sexuaren eta batez ere adinaren arabera, egoera soziolinguistikoa ezberdineko hiru belaunalditan zehar Luzaideko euskarak izandako aldaketen berri ematen digu. Berebat, hizkuntz aldaketa horien abiadura, hedadura eta izaera zein den erakusten du.

Borja Ariztimuñok “Tolosako eta Ataungo hizkerak. Hizkuntz bariazioa eta konbergentzia-joerak” kaleratu zuen 2010. urtean. Helduen eta gazteen mintzoak aztertuz, aipatu lekuetan euskara zenbat eta nola aldatu den neurtzen du; berebat, hizkuntza-maila guzietan egon eta hizkeren arteko konbergentzia ikertzen du.

Ber urtean, Lorea Unamunok “Adinaren arabeko bariazioa Gizaburuagako hizkeran” (2010) artikulua eman zuen argitara. Lanaren xedea Gizaburuagako hizkeran adinaren arabeko aldakortasuna aztertzea da. Bi belaunaldi ikertuz eta hizkuntzaren hainbat mailatan arreta jarriz, tokiko hizkeran gertatu eta gertatzen ari den aldaketa linguistikoa zenbaterainokoa den behatzen du; maileguk, estandarrak edo kulturizazioak / deskulturizazioak eraginda. 2016. urtean, Unamunok “Adinaren arabeko bariazio sintaktikoa euskaran” lana argitaratu zuen. Bi mapa sintaktiko aztertu, eta EAS ikerketa-proiektuko eta EDAK datu-baseko Euskal Herriko 77 herritako 20 ezaugarri sintaktikoren egitura geografikoa aurkezten du. Euskaran ordura arte adinaren arabeko bariazio sintaktikoaren lehen hurbilketa izaki eta bi belaunaldiren arteko bariazio soziolinguistikoa sakontzen du.

Autore nafartarren artean, Orreaga Ibarra dugu nagusietako bat. 2014. urtean, esaterako, “Hizkuntza-aldakortasuna: euskara baturanzko joera elkarrizketen bidez azterturik” (2014a) artikulua argitaratu zuen. Lan horren bidez, euskara batuaren eragina maila guzietan norainokoa den ezagutu eta, bestalde, aldaera “berrien” hasiera nola gertatzen den aztertzen du adin eta mota guzietako hiztunengan. Eredu estandarraren ezaugarriak identifikatzeaz aparte, eragileak zein diren aztertzen du. Aldaketa oro elkarrizketaren bidez zabaltzen dela jakitun egonik, elkar eragite horretan jartzen du arreta. Urte berean, Ibarrek “Egungo gazte mintzairaren hainbat ezaugarri” (2014b) artikulua plazaratu zuen, euskararen egoeran sakontzeko eta gazte mintzoaren zenbait ezaugarri adierazgarri laburbiltzeko asmoz. Batasunaren gaineko ondorioak dakarzkigu eta, horrez gainera, lagunarteko hizkera miatzen du, lexikoari eta euskara-erdararen arteko kode aldaketari begira. Orobat gazteek beren hizkeraren gainean dituzten iritziak eta jarrerak ditu aztergai. Horretaz bestalde, zenbait urte eta gero, *El euskera de ayer y hoy: variación y contacto* (2018) liburua karrikaratu zuen Ibarrek. Gure hizkuntzak (izan) duen aldakortasuna du aztergai. Euskararen dibertsitateri so egiten dio; inguruko hizkuntzen arteko elkarbizitza sekularrak eragiten duen inpaktuari, batzuek besteengan utziriko arrastoari. Hiztuna bera du arreta gune; beronek nola eragiten duen hizkuntzan eta eboluzio horretan pertsonarteko harremanek duten garrantzia. Era berean, hizkuntzalariak gazte eta helduen euskararen arteko diferentziak jartzen ditu agerian.

Ariane Ensunzak, beste alde batetik, “Gernika-Lumoko euskararen aldakortasuna: aldagai fonetiko zenbait” (2014) artikuluan udalderri horretan hitz egiten den euskararen aldaera aztertzen du: zehazki, aldakortasuna erakusten duten sei hizkuntz aldagai, generoa, gurasoen jatorria, ikasketa-zentroa eta, bereziki, adina aintzat harturik. Hurrengo urtean, *Busturialdeko euskararen hizkuntza-aldakortasuna denboran eta espazioan* (2015) doktoretza-tesia argitaratu zuen, zeinetan aztertzen duen Busturialdean bai geografikoki bai soziolinguistikoki dagoen bariazioa. Hogei herritako euskara konparatzen du; zehazkiago, ikertzen du gaur egun aldatzen ari diren hizkuntza-aldagaiak zein gizarte-faktoreren arabera ari diren aldatzen. Bestalde, “Busturialdeko euskararen aldakortasuna: «zait»” artikulua argitaratu zuen 2020. urtean. Alderdi horretako “zait” aldagai linguistikoari –soinuaren aldaera desberdinei– behatzen dio, herria eta adina faktore sozialen arabera.

Xantiana Etchebesten *Zuberotar dardarkarien bariazio sozio-fonetikoa* (2017) tesia ere aipatu beharra da. Bere ikerketan, bi dardarkari motetan jartzen du arreta, bai eta informatzaileen ahoskatze-hautu desberdinetan ere, zeinak faktore sozialek eraginda dauden. Etchebestek, hautu horien gainean, adinekoen eta gazteen arteko aldea ikusarazten du.


2019. urtean, Naia Eguskizak *Hizkuntza-aldakortasun geo-soziolinguistikoa Arratian* tesia argitaratu zuen. Eskualde horretako bariazio linguistikoa maila diatopikoan ez eze, soziolinguistikoki ere ikertzen du, belaunaldiaren eta generoaren arabera. Azterturiko ezaugarriak fonologiari, izen-morfologiari, aditz-morfologiari eta sintaxiari dagozkie.

Alexander Artzelusen “Garaziko hizkuntza-aldakortasuna geografiaren, adinaren eta generoaren arabera” (2019) artikulua ere aipagarria da. Garazi ibarreko (Luzaide barne) euskararen aldakortasuna aztertzen du eta hiru aldagai sozial hartzen ditu kontuan: geografia, adina eta generoa. Ondoko urtean, “Garaziko euskararen azterketa diafasikoa” (2020) artikulua karrikaratu zuen. Irratiko esataria den hiztun baten mintzo informala eta formala alderatuz, Garazi eskualdeko hizkuntza-aldakortasun diafasikoa ikertzen du. Luza gabe, Artzelusek “Garaziko gazteen hizkuntza-aldakortasuna hezkuntza-ereduaren eta praktika-komunitatearen arabera” (2020) artikulua ere eman zuen argitara. Eskualde horretako gazteen mintzoa – berritzaileena / kontserbatzaileena– aztertzen du, ikastetxearen araberrako eta harremantzeko giroen –praktika-komunitateen– araberrako bereizketa eginez. Urte horietan bilduriko uzta *Garaziko euskararen hizkuntza-aldakortasuna* doktorego-tesian (2021) mamitu zuen. Nolanahi ere, geroztik ildo horretatik nahiz bestelako lanetan jarraitu du atergabe.

Azkenean, Azler García-Palominoren “Dialekto-berdintzeari Lezamatik begira: adinaren, generoaren eta hizkuntz jarrerren garrantziaz” (2021) artikulua dakargu. Lan horrek beheko bokalaren asimilazioak Lezaman duen aldakortasun soziolinguistikoa itxurazko denboran ikertzea du helburu, adina, generoa eta hizkuntz jarrerak kontuan izanik. Euskara batua dela-eta, dialekto-berdintze prozesua begizatzen du.

### 2.3. IMOTZ IBARRA ETA HIZKERA(K)

Imotz udalerria Nafarroako mendialdean dago, ipar-mendebaldean. Zortzi herrik osatzen dute: Eraso, Etxaleku –ibarburua–, Goldaratz, Latasa, Muskitz, Oskotz, Urritza eta Zarrantz. Iruñetik hurbil dira denak, 30 bat kilometrotara. Imotzek 43,2 km<sup>2</sup>-ko eremua du, eta 428 biztanle<sup>16</sup>.



1. irudia: Imotz ibarraren kokapena (Apalauza, 2008: 17)

Gaur egun, Imozko euskara tradizionalak oinaze handia du. XIX. mende erdialdetik hona, etengabeko despopulazioa gertatu da, nahiz eta azken hamarkadotan biztanle-kopuruari eusten ari zaion. Herrien hustea, hain zuzen ere, hertsiki lotuta dago Imozko euskararen osasun-egoera zaurgarriarekin. XX. mendean Imozko herriak nabarmen erdaldundu ziren eskola zela kausa,

<sup>16</sup> 2022ko abenduaren 23an Imozko Udalak ahalbidetutako datua.



bai eta immigrazioak<sup>17</sup> eta faktore psikologikoen eraginda ere (Sánchez Carrión, 1972: 199-201). Gaztelania etxe guzietara sartu da nola edo hala, lehenago edo geroago. Horri loturik, joan den mendetik gaurdaino, hizkuntza-transmisioaren eten garrantzitsua dugu Imotzen. Hala, euskararen ezagutzaren eta erabileraren kopuruak ez dute bat egiten: bertako jende gehienak badaki euskaraz, baina kopuru handi batek ez du erabiltzen. Gaur egun, gainera, euskara batuaren eragina ere badugu, zeina oharkabean sartzen den herritarren –bereziki gazteen– mintzoan, herriko euskararen kaltetan. Nabaria da Imozko adinekoren eta gazteen hizkeren artean dagoen aldea. Egun, imoztar gazte gehienek darabilten euskara ez da beren herrikoa, baizik eta euskara batua edo hari lerraturikoa. Oro har, bertako hizkera dutenek etxekoekin eta oso hurbilekoekin egiteko erreserbatzen dute (Apalauza, 2008: 27). Laburbilduz, egungo Imozko hitzun-erkidegoa heterogeneoa da, arrunt.

Gure herrialdeko mapan askotariko korrante dialektalak ikus daitezke. Imotzek eremu euskalkidunaren muga marrazten du –ikus 2. irudia–, Biaizpe haitzartetik hegoaldera tokiko euskara dialektala galdu baitzen. Nafarroako euskararen izaera ulertzeko, gertakari bat hartu beharra dago kontuan. Ikus dezagun zer dioen Urtzi Reguero irakasleak: “El aumento significativo de la presencia del castellano; esto se traduce en la caída de la influencia de Pamplona como foco innovador del euskera, al decrecer el prestigio y el uso de dicha lengua en la capital” (2019: 539). Ikus, halaber:

Iruñea aspaldi erdaldundu zela eta, hura alde batera utzita, ez dela beste hirigune euskaldun hazirik. Barruko indar bateratzaile ezaren ondorioz, bazterretako eskualdeak kanpora begira ibili dira joan den aspaldi luzean: Ipar Euskal Herrira begira herrialdearen iparraldekoak; Gipuzkoara begira ipar-mendebalekoak; Arabara begira hego-mendebalekoak [...]. Hiru gune berritzaile horietatik bakarra dago gaur egun indarrean: Gipuzkoakoa. Handik etortzen dira elikagairik gehienak Nafarroara. Baztan-Bidasoa eskualdeetan, ostera, indartu egin da euskara eta, horri esker, bertako hizkerak ere sendotu egin dira. Gainerako alderdietan ez da ikusten ziorra euskalkiaren –eta euskararen– geroa (Zuazo, 2014: 127).

Gure ibarreko mintzoa definitzeko, gogoan hartuko dugu Imotz Iruñea-Tolosa-itsasaldea bide zaharrean dagoela: bide horretako fluxuaren eragina nabarmena izan da, eta zeharkatzen dituen Imotz-Basaburua, Larraun eta Araizko mintzairetan –hurrenkera horretan– ukitu giputzak *in crescendo* doaz; Sakana, ordea, ardatz horretatik aldentuta izaki eta hobeki eutsi dio bere izaera nafarrari. Zuazok horrela ulertzen du euskara nafarrak gaur egun duen silueta bitxia (2003: 100) –ikus 2. irudia, berriz ere–.

---

<sup>17</sup> 2001. urtean, imoztarren % 62,5 ibarretik kanpo jaiok ziren (Apalauza, 2008: 28).


Imozko euskara *tarteko*<sup>18</sup> hizkera bat da, zubi-hizkera, trantsizio gunea:

Los núcleos dialectales [o] las áreas focales estaban rodeadas bien por *áreas de transición*, que estaban atravesadas por muchas isoglosas y no pertenecían de modo claro a ningún área focal, o bien por *haces de isoglosas*, series de isoglosas circulando muy juntas en la misma dirección de tal modo que se asemejan a una auténtica frontera dialectal. Estas *fronteras dialectales* no existen como líneas definidas sino como *áreas de transición* dentro de un *continuum dialectal*, esto es, la mayoría de las diferencias dialectales son graduales más que abruptas (Hernández Campoy, 1993: 158).

*Continuum* dialektal hori herri batetik bestera sumatu daiteke. Herri batetik bestera bidaiatzen badugu, norabide jakin batean, bata eta bestea bereizten dituzten desberdintasun linguistikoak hautematen ditugu; batzuetan, handiak izanen dira ezberdintasunok eta beste batzuetan txikiak, baina metagarriak betiere (Chambers & Trudgill, 1994: 23). Hurrengo orrialdean Imozko euskarak ekialdetik mendebaldera –ala alderantziz– duen bilakaeraz ariko gara, Imotz hiru eremutan banatzen duen *continuum* horretaz, hain zuzen ere.

Erdialdeko eta ekialdeko hizkeren ezaugarrien nahasketa bat dugu Imotzen, orokorrean esanda. Maiz, bien arteko lehia sumatzen da eta, gehienetan, helduek nafarrerako ezaugarriak islatzen dituzte eta gazteek, berriz, erdialdekoak:

Interesgarria da esatea muga dialektala edo isoglosa hau [*esan/erran*] hemendik pasatzen dela, eta hartaz, Ultzama, Atetz [+ Muskitz], Anue eta Lantz herriak hurbiltzen direla gehiago Nafarroa ekialdera (Esteribar, Erroibar), aldiz, Basaburuak gipuzkerari hurbiltzeko joera handiagoa erakusten du. Imotzek trantsizioa egingo luke (Ibarra, 1997: 65).



2. irudia: euskalkien mapa (Zuazo), [www.euskalkiak.eus](http://www.euskalkiak.eus) webgunetik hartua.

<sup>18</sup> Zuazok *tarteko hizkerak* terminoa proposatu zuen (2003) eta, horrela, euskalki eta azpieuskalkien sailkapena ñabartu zuen. Imozko euskara *tarteko* hizkeratako dauka.

Goi-nafarrera arkaiko eta zaharrari dagozkion eremu zabaleko hizkuntza-bereizgarri orokor anitz ditu Imozko hizkerak –ikus Reguero (2016, 2017)–. Oroit gaitezen goi-nafarrerak –edo nafarrerak, soilik–, erdiko dialektoa den aldetik, mendebaldeko, ekialdeko nahiz iparraldeko eraginak hartzen dituela. Orobat Nafarroa, administratiboki begiratuta, bitan bana dezakegu:

La parte más occidental de Navarra comparte rasgos léxicos y de otro tipo con el alavés y el guipuzcoano, como es el caso de las variantes *esan* ‘decir’ e *igo* ‘subir’, frente a *erran* e *igan*. En cambio, la mayor parte de Navarra comparte una parte del léxico con el euskera hablado al norte de los Pirineos, actualmente en territorio francés (Reguero, 2019: 551).

Zuazok erdialdeko euskalkiaren parte dakusa Imotz eta *sortaldeko azpieuskalkia* deiturikoan multzokatzen du –Araitz, Basaburua, Hondarribia, Irun, Larraun, Leitza eta Oiartzunekin batera–: erdialdeko euskalkiaren eta euskara nafarraren arteko lotura egiten duen tarteko hizkera da (2003: 137), trantsizio-hizkera. Muskitz herria, aldiz, gainerakoetatik nahiko bereiz dago eta euskara nafarraren barruan ikusten du (2003: 103).

“Nafarra da geruza zaharra eta giputza berria”, Zuazoren arabera (2006: 114). Historikoki berrikuntza oro Nafarroan sortu bada ere, azkenaldian Gipuzkoan barrena eta gaur egun batik bat euskara batuaren eredutik iristen da –telebista, irratia, eskola eta abar–:

Antzinako garaietan, beraz, Nafarroatik –Iruñetik, ziurrenera– elikatzen ziren ibar horiek. Ados horretan. Baina, eta gaur egun? Nondik iristen dira berrikuntzak orain? Horren erantzuna ere garbia da: Gipuzkoatik, gehienbat. Horren lekuko dira, besteak beste, hitz hasierako \**j*-ren [x] ahoskera (*jan* vs *yan*), trinkoen iraganaldiko erroan *-e-* nagusitzeko joera (*zekien* vs *zakien*), geroaldiko *-go* atzizkiaren zabalkundea (*egingo* / *eginko* vs *eginen*), *eduki* nagusitzeko joera (*daukat* vs *dut*), ‘partizipioa + TA’ egitura (*ikusita* vs *ikusirik*), perpaus osagarrietako *-(e)nik* atzizkia (*ez du esan etorriko denik*), kausa perpausetako ‘aditza + *eta*’ egitura (*goazen hemendik, berandu da eta*), *al* galdera atzizkia (*sartuko al dituk?*), *egin* aditz indargarria (*etorri egin da* vs *etorri da*)... (Zuazo, 2006: 113).

Hiru eremu bereiz daitezke Imotzen (Apalauza, 2008: 145): ertz batean dago Muskitz, argi eta garbi ekialderagoko hizkerari begira –Atetz eta Ultzama–, ez lexikoari dagokiolarik bakarrik, baita azentuazio-kontuetan ere<sup>19</sup>; beste muturrean dago Goldaratz, Larrauni loturik –erdialdeko euskalkira gehiago lerratzen dena–; eta tartean daude gainontzeko herriak. Goldaratz gain batean dago, aparte, oro har Basaburuarekin eta batez ere Larraungo korrante dialektalarekin batera zenbait ezaugarritan. Bestalde, Muskizko hizkera euskara nafarrera bildu zuen Zuazok (1998: 7), gainerako herrietatik bereiz. Nabarmena da, esate baterako, Muskitzen bokal arteko kontsonanteak egonkorragoak direla (Apalauza, 2010: 291) eta hitzak osokiago ahoskatzen

<sup>19</sup> Azentua paroxitonoa da, ekialdeko azentuera (Apalauza, 2008: 87). Muskitz ez besteko herrietan, aldiz, *tarteko* azentuera dute, *esan* nahi baita, ekialdekoa eta erdialdekoa gurutzatzen direla dirudi. Imozko azentuez gehiago jakiteko, ikus Apalauza (2008) laneko IZENAREN MORFOLOGIA, § *Singularra eta plurala bereiztea* atala.

dituztela. Nahiz eta zaila den zehaztea, Imotzen eta Basaburuan kontsonanteen galera arruntagoa da Ultzaman, Atetzen, Anuen eta Lantzen baino (Ibarra, 1997: 61).



3. irudia: Imozko hiru eremu nagusiak (Apalauza, 2008: 148)

Guztiarekin ere, Muskitz ekialdeko ibarretara begira egon arren, ez du esan nahi beste herriak erdialdera begira daudenik (Apalauza, 2008: 167): sailkapen zurrunegia eta makurra deritzogu. Gazte jendearen erabileran oinarrituta adierazi zuen ideia hori Zuazok:

Har dezagun Larraun, Basaburua eta Imotz ibar nafarretako adibidea. Alderdi horretan euskara nafarra egiten dela diotenek, instrumentaleko *-s* atzizkia (*burus* ‘buruz’), erdal *-on* amaiera *-ona* egitea (*melon* > *melona*), aditzen 2. pertsona singularreko *y-* (*yaiz* ‘haiz’) eta NOR-NORI-NORK saileko *-it-* pluralgilea (*nition* ‘nizkion’) aipatzen dituzte iritzi horren alde (ikus in Camino 2004: 83-84). Eta zuzen daude: ezaugarri horiek euskara nafarraren berrikuntzak dira, Nafarroako hiru ibar horietara ere iritsi zirenak. Dena dela, arau horiek *emankorrek* ote diren egiaztatu behar genuke lehenengo, hau da, ia gazte jendeak ere erabiltzen ote dituen. Eta hori egingo bagenu, ziurrenera ezustekoren bat hartuko genuke. Nik neuk, behinik behin, lau arau horietatik bakarria baizik ez dut aurkitu bertako gaztetxoek jardunean bizirik: erdal *-on* amaiera *-ona* egitea. Gainerako hirurak ezin izan ditut egiaztatu (2006: 112-113).


Nahiz eta gutxituz doazen bereizgarri horiek gazteen mintzairan, bistakoa da Imozko hizkerak euskara nafarraren ezaugarriak dituela. Izan ere, zilegi al da Imozko gazteen euskara oinarritzat hartzea Imozko euskara beste hizkeren artean kokatzeko? Apalauzak egokiago deritzo Imozko adineko eta helduek erabiltzen duten hizkerari erreparatzeari eta hura aintzat hartzeari, bai bederen zeregin dialektologikoetarako (2008: 171):

Zuazoren 1998ko ikuspegian, nafarreraren «gohien gradora» iristen den hizkerak, bigarren pertsona singularreko *y-* morfema du, *ditio* erako Nor Nori Nork saileko adizkiak darabiltza eta instrumentaleko atzizkia nahiz *-(e)kos*, *-(e)lakos*, *-t(z)ekos* aldaerak, txistukari apikariaren bidez egiten ditu eta *-on* bukaera du *kamiona*, *balkona*, *balona* bezalako mailegutan. Nafarroako Basaburuan eta Imotzen, esaterako, lau ezaugarriok daude, baina Zuazoren arabera, nafarreratik kanpo gelditzen dira Basaburu Txiki gehiena, Basaburu Handia eta Imotz (1998a: 228). Imotzen eta Basaburuan ageri diren ezaugarri «erdialdeko ez nafarren» konbinazioak eragin duke hori, baina Imozko eta Basaburuko euskarara, ezaugarri «nafar eskusibo» guztiak biltzen dira. [...] Balirudike, lau ezaugarri nafar eskusiboak dituen hizkera bat, nafarrera izatera kondnaturik dagoela, baina errealitatea hori baino konplexuagoa da, batez ere erdigune geografikoan kokaturik dauden hizkeretan. Honelako paradoxak gertatzen dira ezaugarri

kualitatiboei garrantzi handia emanez gero. 2003an (139. or.) Basaburuko eta Imozko euskara tarteko hizkeratzat hartu du Koldo Zuazok erdialdeko euskalkiaren barranean (Camino, 2004: 83-84).

Sailkapenak sailkapen, egia da Imozko euskarak eragin askotatik edan duela eta konplexua dela halako nahiz bestelako euskalkian multzokatzea. Horren erakusgarri da bost multzo hauetako ezaugarriak dituela: Euskal Herriko mendebalde eta erdigunea, Euskal Herriko erdigunea, Nafarroa Garai zabala, Nafarroa Garaiko erdigunea eta bertako –eremu murrizteko– lokalismoak. Horrenbestez, Imozko euskarari ekialdetik, ipar-ekialdetik, hegoaldetik baita mendebaldetik ere badator kio eragina. Halaber, bi aldeetako berrikuntzak ageri dira Imotzen, Euskal Herriko erdigunekoak eta Nafarroakoak (Apalauza, 2008: 171). Esklusibotasunik eta erabatekotasunik gabeko eremua dugu Imotz, ez baitago soilik han erabiltzen den ezaugarriarik –salbu hitz espezifikoren bat–.

Ez dugu guk erabakiko euskalki batean ala bestean sailkatu behar ote den Imozko euskara, baina datuak behar bezala balioetsi behar direla uste dugu: Euskal Herriko erdialdetik eta mendebaldetik etorritako eragina ukatu gabe, kontuan hartu beharra da Nafarroa Garaian hedadura handia duten ezaugarri askok Imotzen eta Basaburu Nagusian dutela muga (alegia, ez daude handik mendebaldera), eta, gainera, Nafarroako erdigunean sortutako zenbait berrikuntza bi ibarrotara ere iritsi da, baina ez da halakorik ageri handik mendebalderako hizkeretan. Bi aldeetako berrikuntzak ageri dira Imotzen, Euskal herriko erdigunekoak eta Nafarroakoak, eta denak dira garrantzitsu eta esanguratsu (Apalauza, 2008: 171).



4. irudia: euskara nafarraren mapa (Zuazo), [www.euskalkiak.eus](http://www.euskalkiak.eus) webgunetik hartua.

Horregatik guziagatik, geolinguistikoki arrunt interesgarria da Imozko euskara (Apalauza, 2008: 171).

### 3. HIPOTESIAK ETA METODOLOGIA

#### 3.1. HIPOTESIAK

Lan honetako hipotesi orokorra da Imozko euskara etengabe aldatzen ari dela eta bereziki bizia izan dela aldaketa azken mende erdi honetan. Lexikoari begiratuz erakutsiko dugu esandakoa. Sinkronikoki aldakortasuna eta diakronikoki aldaketak espero izatekoak dira; gainerakoan, Imozko euskara gaurgero hilik legoke. Pentsatzen dugu bariazioa nagusiki adinaren arabera gertatzen dela; izan ere, belaunaldi bakoitzak euskararekin izandako harremanak askotarikoak izan dira. Hain zuzen, elkarrizketaturiko adinekoetatik gazteetara bidean, ingurune aski euskalduna ezagutzen duen jendartetik giro gaztelaniatua ezagutu duen batera pasatu gara, non euskara batu estandarrak gero eta presentzia handiagoa duen.

Hori dela eta, gure aurreikuspenak hurrengoak dira, hiztegiari loturik:

1. Gaur egungo hiztun guzien lexikoa joan den mendekoena baino eraginpeanago dago, gaztelania eta euskara batu estandarrentz lerraturik. Zenbat eta gazteago, hainbat eta hibridoago euren hizkera. Uste dugu adinekoek ezaugarri dialektalei hobeki eusten dieten eta, orduan, XX. mendeko hiztunen euskara dialektalagoa zen.
2. *Hegoaldeko*<sup>20</sup> euskara batuaren eragina nabarmenagoa da gazteen kasuan: handia eta lasterra izatea espero dugu. Hartara, berdintze-joera bizia aurreikusten dugu, estandarrentz.
3. Biziera aldatu baita, joan den mendeko hainbat kontzeptu zaharkitu dira eta gaurgero ez dira baliagarri, galzorian daude. Nahiz eta adineko jendeak hitz gehientsuenak adituak izan, espero daiteke gazteek galdetegiko hitz askoren euskal baliokidea ez ezagutzea, ez direlako sekula beren errealitatearen parte izan. Horren ordez, jakina, gazteek badute lexiko sorta zabal bat, hiztun zaharragoek baliatzen edo ezagutzen ez dutena –baina gure lanak ez dio puntu horri helduko–.

---

<sup>20</sup> Gizartean gailendu den erdialdeko euskara, lan honetan *Hegoaldeko batua* izendatua, estandarizazioaren argitan esplikatzen dena. J.L. Davantek *gipuzkera osatua* deritzo. Iturria: [Iparraldeko batua?](#)

Horrenbestez, hiru belaunaldien arteko aldea espero dugu lexikoan. Azkenik, idiolektoen gainean, beste hau pentsatzen dugu:

4. Hiztunak ezaugarri propioak ditu, berezkoak, eta aldakortasuna maila indibidual horretan ere sumatzen da. Horren haritik, erabakitze gaitasunaz baliatzen da eta hautu kontzienteak egiten ditu.

## 3.2. OINARRI METODOLOGIKOAK

Etxebarria Arostegi erreferentziazko ikerlaria dugu euskal soziolinguistikan. Haren arabera, prozedura metodologikoak bi aldi nagusi ditu: inkestak pasaraztea, galdetegia erabiliz, eta aldaerak jasotzea. Hala berean, Laboven metodologiari jarraituz, ikerketa soziolinguistikorako hainbat pausoren berri ematen du (2000: 14), segidan dakarzkigunak:

1. Gertakaria(k) mugatzea, hautaketa egitea: ez hartu esparru bateko ezaugarri guziak, Dialektologia tradizionalako ikerketetan ohikoa zen bezala.
2. Solas libreko grabazioak egitea.
3. Hiztun-lagina hautatzea, parametro sozial jakinen arabera.
4. Ikertutako fenomeno(ar)en azterketa eta ikerketa kuantitatiboa egitea.

Gure eginbideak ere lau garai izan ditu, baina pixka bat aldentzen dira arestiko horietatik, ez baitugu izan grabazioak egiteko aukerarik, geroago aipatuko dugunez (§ [3.2.3](#)). Orobat gure ikerketa ez daiteke erabat kuantitatibotzat har, portzentajeak ez baititugu kasu guzietan eman, lan-karga handiegia zelakoan oraingo zereginerako. Besterik da esatea ikerketa kualitatiboa eta kuantitatiboa tartekatu ditugula.

Ikus ditzagun, heldu diren lerroetan, datuak biltzeko, prozesatzeko eta aztertzeke egindako urratsak eta erabilitako irizpideak.

### 3.2.1. XX. mendeko corpora aztertzea

Lehenik, XX. mendearen bigarren erdiko lan jakin batzuk miatu ditugu. Gure egitekoa guztiz ez-esperimentalak izan da kasu honetan: idatzizko corpus bateko informazioa arakatu dugu –

Etxaide (1989), Pagola (1992) eta Huarte (2003)–, funtsean. Bere garaian ere erabat naturala ez zen egoera batek ahalbidetutako datuak dira. Edukia aurrez definiturik genuen eta, beraz, guri dagokigunez, manipulazioa hutsala izan da lanaren lehen urratsean. Hitz gutxitan: behaketa-metodoa erabili, egoera kontrolatu eta informazio zehatza eskuratu dugu. Interesatu zaizkigun datuak erauzi ditugu: hiztegiari dagozkionak. Lexikoa da ikerturiko hizkuntza-maila eta, hari erreparatu badiogu ere, bestelako hizkuntz mailak ere islatzen dira emaitzetan: jasota geratuko dira galdetegian, etor litekeen beste proiektu batendako lagungarri.

### 3.2.2. Galdetegia osatzea

Hurrengo atalean (§ 3.3) aurkeztuko ditugun erreferentziatzko hiru lanetatik ateratako hiztegiak osaturik dago galdetegia, orokorrean berriemaileendako ezagunak diren hitzez, bizimoduari eta etnografiako atal arruntenei dagozkienez, gehienbat: etxea, etxeko lanak, eguneroko ekintzak, lanabesak, denbora, urtaroak, jatekoak, naturako izakiak, gorputza, zenbaki zenbait... Guztira, 250 bat *item* daude: lehendabizi, Huarteren lanetik (2003) hartutako hitzak ditugu –alegia, etxearekin zerikusia duen hiztegia, nagusiki–; ondotik, Pagolaren lanetik (1992) hartutakoak, Etxaideren lanean (1989) ere ageri diren askorekin osatuak; eta, azkenik, Etxaideren inkestatik (1989) aukeratutako beste hainbeste ditugu. Galdetegia gaika zerrendaturik egon arren, eremu nahikotxo ukitu ditugu eta ohikotasuneko esapideak nahiz zaharkituagoak proposatu dizkiegu, ERANSKINAK atalean (§ 7.3) ikus daitekeenez.

Bi inkesta prestatu behar izan ditugu: lehenbizikoa luzexka izaki eta laburragoa bilakatu genuen. Lehen inkestatuekin igarotako denbora ikusirik, murriztea erabaki genuen:

Gogoan hartzekoa da pertsona guztiak ez direla eraman berekoak; lekukoaren egonaria eta inkestatzailearen astia edo denbora, biak elementu mugatuak dira [...]. Biltzaileen esperientziak erakutsi du lekuko arrunt batek, gaztea bada bereziki, egun batez 500 eta 1.000 galdera artean erantzun ditzakeela (Camino, 2009: 300).

Ezinbestekoa da galdetegia ongi prestatzea: “Inkesta-garaiko denbora alferrikako gaietan gal ez dadin, aztertu nahi den eremu horretarako eta pertsona horrentzat galdetegia egokia izatea funtsezko gauza da; galdetegia ongi eta sakon prestatzen eta antolatzen galtzen den denbora, inkesta saio bakoitzeko jardunean berreskuratzen eta irabazten da” (Camino, 2009: 280).



### 3.2.3. Inkestaren aldia

Hirugarren fasean, metodologia esperimentalean oinarritu gara, alor-lanera jo dugu eta ingurunean esku hartu dugu burutik burura. Zortzi imoztarrekin aurrez aurre lan egin dugu, eta hiru inkesta linguistiko horietatik ateratako 255 erdal hitz eta esapide ekoitzarazi dizkiegu<sup>21</sup>: hau da, elizitazio bidez eta aldagaiak kontrolatuz, datu zehatzak erdietsi ditugu. Galdetegian 255 *item* badaude ere, horietarik 21 osagabeak dira (Ø) eta gorritz nabarmendu ditugu. Hiruzpalau orduz aritu gara berriemaile bakoitzarekin. Neurketa-metodologiari bagagozkio, *off-line* teknika erabili dugu, hots, hizkuntza aztertzean bukaerako emaitzak interesatu zaizkigu. Jokabide-metodoa izanik, gure neurgaia erantzun-mota izan da. Zeharkako ikerketa edo transbertsala ere izan da; izan ere, ikertzaileak lehenago aztertutako komunitate baten lagin berri bat hartu du. Hitzun-taldetxo batekin lan egin dugu, ikerketa-aldagaien eragina alderatzeko parada izan dugu parte-hartzaileak konparatuz –adina, herria eta joan den mendeko lekukotasunak–, bai eta emaitzak orokortzeko aukera ere.

In *cross-sectional* research (also referred to as *trend studies*), investigators re-study the same community that has been the subject of earlier research, often attempting insofar as is possible to replicate the methods (sampling and data collection methods) of the initial study (Sankoff, 2002: ikus [hemen](#)).

Hitzen eraldatzea berdin bariazioaren isla. Informatzaileei inkesta egin bitartean, berariaz erreparatu diogu haiek emandako hiztegi jakinari, begiak ondoko adierazgarrietan iltzaturik:

- Hitz desberdinak Imozko bi muturretan
- Eragin giputza
- Erdialdeko eta nafarrerako ezaugarrien arteko lehia
- Eredu estandarraren eragina
- Hainbat hitzen erregresioa
- Gaztelaniaren eragina
- Norberaren ezaugarri propioak
- Unean unekoaren mugak

Inkesta gidatua dugu, beraz, datuak biltzeko erabili dugun moldea. Aurretik prestatutako galdera zehatzak egitera mugatu gara. Inkestak jokaera hertsia du baina, orokorrean, dialektologia bilduma gehienetan erabiltzen dena da, helburu jakin eta aurrez zehaztu

---

<sup>21</sup> 2022ko izotzilean eginak.

batzuekiko lotura zuzenena baitu (Camino, 2009: 275). Zailtasunak zailtasun, lexikoaren aldakortasuna aztertzeke galdeketa izaten da beharrezko informazioa eskuratzeko modurik eraginkorrena, eta ongi frogatu da emaitzak izan badituela (Martínez, 2010: 98).

Informazio garaikidea biltzeko, ezagun eta adiskide diren zortzi hiztunengana jo dugu, haien bizilekuetara, testuinguru ezaguna beti baita mesedegarri. Informatzailearen etxea dialektoaren ingurunerik jatorrizkoena da (Camino, 2009: 300). Zortzi lagun, gure lanaren xedeei eta ikertzailearen denbora eta kemenari egokitzeko neurriko lagina. Caminoren arabera, lekuko egokia inkestari senez erantzuteko gaitasuna erakusten duena da. Lekuko eredugarriak dira beren herriko mintzoa leial ordezkatzeko dutenak, nahiz eta zaila den hizkera estandarrak kutsatu gabeko lekuko dialektal “jatorrak” opatzea (2009: 295). Guri dagokigunez, esan beharra da ez genuela hautatzeko hiztun-sorta zabalik kasu guzietan, adibidez Muskitzen<sup>22</sup>, edo gazteei dagokielarik. Horrek ere baldintzatu du, hein handi batean, gure aukeraketa. Alde horretatik, lekuko eredugarriak baino gehiago, genituen aukeren artean hautaketarik onena egitera mugatu gara, errealitatearen gordinak eramanik.

Gu geroni jarri gara harremanetan hiztunekin, datu-biltzailea ingurukoa izateak hizkera arduragabea lortzen laguntzen duelakoan. Ikertzailea bertakoa eta hurbila izateak ere badu garrantzia, eta horrekin bat dator Camino: “Inkesta egin behar den herri edo eskualdekoa izateak dakartzan onurak ugari dira: datuak aiseago eta fin ulertuko ditu lekukoaren hitz, ateraldi eta esaerak; erraza gertatuko zaie elkarren arteko komunikazioa” (2009: 291). Gisa berean, tokian tokiko mintzamolde tradizionalaren eta bizimoduaren ezagutzaile izatea beti da onuragarri. Bestalde, gure egitekoa ere bada kontatzen digutenarekiko interesa agertzea eta begirunez hartzea, lekukoak senti dezan bere ohiko eta eguneroko gaiak badutela garrantzia ikertzailearendako (Camino, 2009: 277).

Horrez gain, Caminorendako baitezpadakoa da gizabidetasunez aritzea. Ikertzaileak bi betekizun ditu: lehena, ezagutzaren bidean bere ekarria eskaintzeko eginkizun morala; bigarrena, berriemaileen duintasunari, intimitateari eta erabakiak hartu ahal izateko beregaintasunari kalte ez egitea (2009: 294). Komeni da, berebat, aztertzailearen lanaren helburua zein den hasieratik argi gelditzea, hiztunek asmo horri ahal bezain egoki erantzun

---

<sup>22</sup> Muskitzen hizkuntza-eten handi samarra egon da (Apalauza, 2008: 167). Parte hartu duen muskiztarraren ingurunea gaztelaniaduna da batez ere.

diezaioten; halaber, berriemaileari aldeztu aurretik ongi adierazi behar zaio berak ematen duen laguntzak gizarteari nolabaiteko onura ekarriko diola (*idem*). Ez da batere gozoa ohartzea lekukoa ez dela jabetzen zer bildu nahi dugun berarengandik eta guk bila jarraitzea; begirunearen aldetik zinez jardun itsusia da (Camino, 2009: 278).

Ekinean, jabetu gara hitzak kontestualizatzeko beharraz, hiztunek ahalik eta modu naturalenean ekoizteko. Horrek lana luzatu, baina, era berean, aberastu egin du. Elizitazioa aipatu dugu atala hastean, eta nolakoa izan den zehaztea dagokigu. Galde-erantzun motakoa izan da, batzuetan hitzak bere horretan proposatuz, eta beste batzuetan esaldi barnean txertatuz –erantzunak galdetegian ikus daitezke: hitz bakarra edo esaldi osoa–. Azentuaren kokapenerako, adibidez, kontuan hartzekoa da, ez baita gauza bera hitz bakarrarekin esaldia osatzea edo hitz eta sintagmez esaldia osatzea.

Aspaldi erabili ez, baina ongi ezagutzen duten hitzen batez galdeginik, hotz-hotzean, blokeaturik gelditu izan dira parte-hartzaile guziak behin edo beste. Horixe da hizketa librean ez aritzeak duen eragozpenetariko bat. Halakoetan, denbora gehixeago eskainiz edo argibideren bat emanik, gogoratzeko gauza izan dira.

Elkarrizketatzaileak erne ibili behar du eta dagoen eremuko hizkerara ahalik eta gehien hurbildu, berriemailea ahalik eta gutxien kutsatzeko. MARKO TEORIKOAn (§ 2.1.5, § 2.1.6) Labovek *behatzailearen paradoxa* izendaturiko auzia azaldu zaigu, eta ondoko lerrootan oztopo horrek eragindako zenbait egoera aditzera emanen ditugu. Gertatzen da, batzuetan, lekukoak, ikertzailea aitzinean izateak dakarren egoerak eraginik, bereak ez diren aldaera edo hitzak erabiltzea edo ematea (Camino, 2009: 303). Beste batzuetan, baina, kontrako fenomenoak gerta daitezke: ikertzailearen espektatibei plazer egiteko, zintzoegi ez jokatzeko arriskua dago. Baliteke berriemaileak entzun nahi genuen erantzun prototipikoa eman izana eta, egiatan, beste forma bat erabiltzea. Edonola ere den, afera da lekukoak, hizkuntza-egoera horretan behaturik sentitzen denez eta horrek bere jardunean eragina duenez, normalki erabiltzen ez dituen aldaerak eman ditzakeela (Martínez, 2010: 98). Beraz, kasu eman behar da, kontraesana egon daitekeelako hiztunak zinez baliatzen dituen aldaeren eta horiez egiten duen aitormenaren artean (Camino, 2009: 306). Kontuak kontu, lekukoa hasmentatik jabetu behar da zer bildu nahi dugun berarengandik (Camino, 2009: 278): inkestatzailea ez dago konpromiso horretatik salbuetsirik, *behatzailearen paradoxak* ekarritako trabak gorabehera.

Galdeketa bidezko datu-bilketa ohiko prozedura bada ere, metodo horrek hainbat arrisku edo muga ditu: estilo formalegia ez izaten ahaleginduta ere, egoera sekula ez da erabat naturala. Inkestak eta inkestagileak mugatu egiten dute Soziolinguistikaren helburu gorena: hizkuntza bere testuinguruan aztertzea; hots, hizketa naturala biltzea. Ikertzaileok behaketa sistematikoaren bidez baizik ez genituzke datuak erdietsi beharko (Labov, [1972] 1983: 266); hizkuntza bat zuzeneko behaketaren bitartez baino ezin da aztertu.

Elkarrizketatzaile batek –eta dakarren tresneriak– beti eragiten du nolabaiteko presioa hiztunarengan (Artzelus, 2019: 12). Saihetsezina da: gure informatzaileek, maiz, euskara baturanzko joera dute, lexikoaren aldetik edo hitzak osokiago ahoskatzearen aldetik. Halakoez jabetu eta ahal bezain naturalki berriz esan zezaten eskatu diegu. Bagenekien zer espero izatekoa zen, eta nola, tokiko hizkeraren aski jakitun gaudelako –inkestako galderena bai, behinik behin–. Izan ere, komenigarria da datu-biltzaileak hizkuntzalaritzaz gutxieneko jakinduria edukitzea, erantzunen egokitasunaz juzguak egiteko bezainbatekoa, behinik behin. Gauza izan behar du inkestatzaileak erantzunetarik tiraka eginez hainbat berri interesgarri biltzeko, ihardespren makurrak diskriminatzeko gaitasuna izateko edo lekukoak ziria sartu nahi dionean harrapatzeko (Camino, 2009: 292). Hartara, espero ez genuen forma baten aurrean, harriduraz galdetu diegu: *Ziur zaude horrela esanen zeniokeela etxeko bati?* edo *Nola esanen zenuke agudoago?*. Datu-biltzaileak adi egon behar du eta diziplinarik zurrunena eduki, eta beharrezkoa bada, berriemaileari berriz galdegin ea aldaera hori herrikoa berekoa den ala beste nonbait entzun edo ikasia duen (Camino, 2009: 303). Maiz, akuilatzeko beharrik ere ez dugu izan, haiek berak ohartu baitira, edo ondokoaren *bai zea!* batek hitza edo esaldia birformulatzera eramane dituelako<sup>23</sup>.

Ez dago soberan, bestalde, inkestatzailearen lana behin edo beste kolokan jartzea; izan ere, galdera gaizki egin izanaren posibilitatea ere badago: usu, lekukoaren erantzun makurraren sakonean inkestatzaileak gaizki pausatu duen galdera egoten da (Camino, 2009: 296).

Esan izan da inkestatzailea emakumea izateak eragin negatiboa ekar dezakeela, adineko lekukoek, ikuspegi tradizionalakoak gehienak, ez dutelako emakume baten aitzinean hainbat

---

<sup>23</sup> Batzuetan, forma supralokal baten aurrean, senitartekoek berek zuzentzen zioten inkestatuari; beste batzuetan, elkarrizketatzaileok ustekabeko erantzuna biltzean, espero izatekoa zen forma dialektala proposatu eta elkarrizketatuak baiezko biribila ematen zuen, eta aurreko erantzuna aldarazten. Horrelako kasuetan, bi formak jaso ditugu.

hitz zatar edo desegoki erabiltzeko ohiturarik, heziketaz (Camino, 2009: 300). Gure aburuz, gero galdetegiak ez du horretarako bide eman eta, horrenbestez, halakorik gertatu izana bazterten dugu.

Inkesta zurrunetik landa edo paraleloan izan diren hizketaldiak ere eskaini dizkigute lekukoek, horretarako aukerei aurrerabidea eman baitiegu, eta adierazgarri irizitako datuak biltzera saiatu gara. Hala eta guztiz ere, jakin, badakigu eskuratutakoa ez dela errealitatearen isla % 100, izatekotan ere, hurbilketa; hiztunen erantzunok solas librean eta soilik behaketa bidez bildutako balizko datuen osagarri baino ez dira. Edonola ere, Caminok dioena bihotz ematen digu:

Lekukoari “mintzatzen utzi behar zaiola” esan ohi dute dialektologialariek, honela bakarrik agertuko direla berriemailearen ahotan hainbat eta hainbat datu edo forma interesgarri eta berezi; beste batzuek diotenez, berriz, eredu onarekin eta senez egindako inkestatik, denbora aurrezturik eredu libreagotik bezainbat berri atera daiteke (2009: 276).

Grabagailurik ez dugu erabili eta, ondorioz, erdietsiriko emaitzak zalantzarriagoak izateko aukera handiagoa da. Zenbait lekuko lasai egoteko, grabatzeko tresnarik ez erabiltzeko erabakia hartu genuen; gainerakoan, ahalketuko edo urdurituko ziratekeen edo, zenbaitzuen kasuan, ez zuketen parte hartuko.

Lotsagatik edota beren hizkera gutxiesten dutelako daturik eman nahi izan ez [...]. Halakoetan, berriemailearen nahia errespetatu beste aukerarik ez dugu (Apalauza, 2010: 112).

Edozeinetara ere grabazioek berebiziko garrantzia dute eta, beste baterako, ezin hautsizko baldintza iruditzen zaigu.

#### 3.2.4. Datu-prozesaketa

Laugarrenik, bildutako datuak prozesatu ditugu. Zirriborroan hartutako oharrak digitalizatu ditugu: *word*eko orri batera transkribatu eta *item*ak zerrendatu ditugu, adin eta herrikoa. Atzemandako aldakortasuna kolore urdinez nabarmendu dugu –ikus ERANSKINAK atala (§ 7.1)–. Erantzunak aditu bezala transkribatu dira: <ll>, <y>, <j>, <ñ>, <tt>, hasperena ez... Bestalde, zenbait hitzek azentua eta guzti dakarte baina, ez baitzen gure egitekoa, ez diegu prosodia-kontuei oraingoan helduko. Hala ere, ñabardurok jasota gera zitezen nahi izan dugu, etor litekeen azterketaren bati begira.

### 3.2.5. Datuen analisia

Azken urratsean, dokumentaturik genuen material guzia aztertu, erkatu eta ondorioztatu dugu. Hiru belaunaldi, denera. Aritze horretan, aldakortasuna islatzen duten datuetan jarri dugu arreta. Gure emaitzak duela mende erdikoekin alderatu ditugu –konparazio diakronikoa– eta, hein berean, konparazio garaikidea –edo sinkronikoa– egin dugu elkarrizketaturiko gazte eta helduen artean.

Lehenago ere adierazi dugu (§ 2.1.5) hizkuntz aldaketak denbora errealean edo/eta itxurazko denboran neur daitezkeela, hau da: bi garitako datuak kontrastatu –denbora erreala– eta, aldi berean, ikusiriko bariazio sinkronikotik litekeena dena iradoki –itxurazko denbora–. Zenbait belaunalditako jendearen datuak aztertuz, gertatu diren aldaketak identifikatu eta gertatzen ari direnek gerora begira zer norabide duten aurreikus dezakegu.

Nolanahi, konparazio bertikala edo kronologikoa egin dugu bi kasuetan, aurreko eta ondoko egoera linguistikoen artekoa. Izan ere, metodo konparatiboa bi noranzkotan egin daiteke: bertikalki eta horizontalki. Azterketa kontrastiboa horizontalki egitean, geografiari erreparatzen zaio eta, orduan, halako mintzoaren ondoko ibarrak ere aintzat hartzen dira (Camino 2004: 70, 2009: 249). Lan hori bururaturik dago Imotzen, hainbat hizkuntzalarik dagoeneko idatziz jaso dituztelako Imozko hizkera tradizionalak; gaugerero finkaturik eta deskribaturik daude hizkuntza-loturak –ikus Ibarra (1994, 1995) eta, batez ere, Apalauza (2008, 2010)–.

## 3.3. AZTERTUTAKO CORPUSA ETA BERRIEMAILEAK

XX. mendeko corpusa den bezainbatean, hiru lan mamitsu aztertu ditugu:

1. *El euskera en Navarra: Encuestas Lingüísticas (1965-1967)*, Ana María Etxaide Itartek 1989. urtean argitaratu zuena. Lan mardul honetan, 1966an bi imoztarri egindako inkestaren erantzunak ditugu: Etxalekuko Agustin Beloki –orduan 63 urte– eta Muskizko Joakin Oraien –orduan 84 urte–. Inkestok Mitxelenaren ikuspuntuari jarraituz egin zituzten: berez, Mitxelenak berak prestatutako inkesta da, 300 galdera inguru dakartzana.

1965. eta 1967. urteen bitartean Nafarroa Garaiko 60 herritan eginiko galdeketak dira, emaitzaren argitalpena 1989. urtera arte berandutu bazen ere, eta bertan ageri diren herri anitzetan egun galdua edo galduxa da euskara: horregatik soilik, interes handia du lanak (Camino, 2009: 513).

2. *Euskal fonetika Nafarroan I eta II* (mapak), Rosa Miren Pagolak 1992. urtean karrikatutakoa. Caminok dioen bezala, munta handiko lana da, datu aberatsez horniturikoa, Nafarroa Garaiko iparraldeko hamalau herritan egindako inkestak biltzen dituena (2009: 513). Horietako bat dugu 1984. eta 1988. urteen bitartean Goldarazko Miguel Olaetxeari eginiko galdeketa. Olaetxeak orduan 68 urte zituen. Aipatu beharrekoa iruditzen zaigu gizon hark urte dezente eman zituela Goldaraztik kanpo, eta liburuok dakartzaten erantzun asko ez datoz bat Goldarazko hizkeraren ezaugarri orokorrekin<sup>24</sup>.
3. *Estudio del léxico de la casa en los dialectos vascos de Navarra*, José Vicente Huarte Lergak 2003. urtean argitaratutakoa. Ana María Etxaidek zuzenduriko tesia dugu, baina ez dakigu, zehazki, galdeketak zein urtetan eginak izan ziren. Berriz ere, Agustin Beloki etxalekuarraren lekukotasunak ditugu, eta gizon hori 1996. urtean zendu baitzen, lehenagokoa behar du. Etxalekuko oraingo herritarren ariora, 80. hamarkadan eginiko inkesta date.

Ezagutzen genituen jadanik hirurak egitasmo honi ekin geniolarik: zokoraturik genituen arakatzeko astia noiz izango zain. Iragan hurbileko Imozko hizkera gordetzen duten lan sendo zaharrenetarikoak dira; gehiago dena, guk dakigula, Etxaideren inkestak aitzindari dira Nafarroa Garaian. Hiru liburuak ikuskatu heinean, *itemak* zerrendatu eta ordenatuz joan gara, galde-sorta propioa osatu arte.

Euskaltzaindiaren *Euskararen Herri Hizkeren Atlas* - ESHA ere kontsultatu dugu, hainbat datu dialektal “tradizional” egiaztatzeko. Baliabide garaikidea izanik ere, ESHAren corpusa XX. mendearen akaberakoa da –nahiz XXI.ean argitaratu den–. Corpusa, gehienbat, 1980ko

---

<sup>24</sup> Goldarazko XX. mendeko lekukoaren datuak ez dira beti fidagarriak: ez da eskualdeko azentua –(41) *iratzárrí*–, hitzak osatuegi ahoskatzen ditu –(34) *euskera*–, ez ditu Goldarazko ohiko bokal geminatuak baliatzen, lexiko zenbait susmagarria da –(181) *ésneà*, (100) *tximítxè*... azken hori inkestatuetako inork ezagutzen ez duena, bide batez esateko–, ez da ikusten *a > e* asimilazioa hitz-bukaeran –(101) *ailtúrrà*– eta abar. Nolanahi ere, gogoan hartzekoa da hiztunaz gain, inkestatzailearen jardunaren arrastoa egon daitekeela erantzunetan. Konpara bitez goldaraztarren erantzunak ERANSKINAK atalean (§ 7.3). Halaber, Goldaratz gainerako herrietatik bereizten duten hizkuntza-ezaugarriez gehiago jakiteko, ikus Apalauza (2008: 147).

hamarkadakoa da, hots, gutxi gorabehera Pagola eta Huarteren inkesta-urteen bueltakoa. Zehaztu beharra da Atlasean Etxalekuko aldaerak daudela bildurik.

Laurogeigarren hamarkadakoa da Euskaltzaindiak kudeatzen duen euskal atlasa ere: *EHHA* edo *Euskal Herriko Hizkuntz Atlas*a –arrazoi politikoak eta ekonomikoak bitarteko 2002an *Euskal Herri Hizkeren Atlas*a berrizendatu dena–, 1986an abiatu zen eta Gotzon Aurrekoetxea eta Xarles Videgain izan ditu arduradun (Camino, 2004: 68).

Horiez guziez gain, erreferentziazko lan nagusia Amaia Apalauzaren *Nafarroako ipar-mendebaleko hizkeren egitura geolinguistikoa* (2010) izan da, baita horren azpiadar den *Imozko euskara* (2008) liburua ere: biek ala biek goitik behera elikatu dute gure jardunbidea. Apalauzak deskribatu du xehekien gure alderdiko euskara. Liburuek mende hasierako informazioa dakarte, hots, daturik eguneratuenak eta osoenak biltzen dituzte. Apalauzaren lanekin batera, Aleman<sup>25</sup> ere kontrolerako euskarri gisa baliatu dugu, ez baitugu duda izpirik ere bien egokitasun eta fidagarritasunaz: hala, susmagarri iruditu zaizkigun datuen susmagarritasuna bermatzeko erabili ditugu. EHHako datuek ere funtzio hori bete dute.

Berriemaileak direla eta, zortziok aukeratzeko irizpideek profil jakin bat dute. Imoztarrak –sortu eta bizi– eta umetiko euskaradunak dira, herriko euskaraz mintzo direnak. Gurasoak ere imoztarrak edo ingurukoak dituzte –edo zituzten–:

Lekukoarengan hobetsi diren ezaugarriak: adinekoa izatea [...], inkesta egiten den herri horretan beti bizi izana izatea, bi gurasoak ahalaz herrikoak izatea, ahalaz ezkontidea ere herri berekoa izatea, kultura xumekoa izatea, herriko ohiturek eta kulturak dakarten bizimoduan sakon txertaturik egotea... Orogen buruan, lekukoak aztertzen den herriko edo hiriko mintzoa den bezala ordezkatea eta ematea [...] da helburua (Camino, 2009: 295).

Etxaide, Pagola eta Huarteren galdeketa linguistikoetako Imozko herri berberetara jo dugu mintzatzaile eske, alderaketa ahal bezain adierazgarria izan dadin:

Cualquier estudio sobre la difusión de una innovación lingüística será necesariamente comparativo. Los datos deberán incluir evidencias de la misma población o, al menos, de una población comparable en dos puntos distintos en el tiempo por lo menos. Lo ideal sería tener los resultados de una encuesta diseñada para obtener una determinada variable en un momento concreto y después una réplica de la misma encuesta dada a la misma población después de transcurridos varios años (Chambers eta Trudgill, 1994: 208).

Zoritxarrez, inkestaren errepikapen hori, biztanleria bera denbora errealeko bi puntutan konparatzea ahalbidetzen duena, oso gutxitan –edo inoiz ez– da posible. Horrela planteatutako inkesta errepikatzea baztertu beharretan gaude praktikan. Herritar berberengana jo ez daitekeen kasuetan, probetxugarriena da lehen galdeketa egin zen alderdi bereko biztanleengana joatea.

---

<sup>25</sup> Askotariko ekarpenak: zuzenean egindako kontsultak, berak zuzenduriko ikastaroak...



Hala, galdekaturiko taldean erdietsitako emaitzak jatorrizko taldean lortutakoekin konpara ditzakegu, eta konfiantza-maila nahiko onargarriarekin pentsa daiteke bien arteko edozein diferentzia esanguratsu gertatzen ari den hizkuntza-aldaketa baten emaitza izanen dela (Chambers & Trudgill, 1994: 208).

Herriak Etxaleku –tarteko herria–, Goldaratz –mendebaldekoa– eta Muskitz –ekialdekoa– dira. Denera, bi emakume eta sei gizon elkarrizketatu ditugu. Joan den mendeko hiru inkestariak gizonetzko berriemaileak hautatu zituzten, eta gurean ere nagusi dira. Neska gazterik ez dugu aurkitu, nahiz eta aberasgarria iruditzen zaigun emakume nahiz gizonekin lan egitea. Chambersek eta Trudgillek ohiko informatzaile-eredua eman zuten aditzera, ordurarteko joerak ikusita: NORM berriemaileak, hots, “non-mobile, older, rural males”, halakoxeak izan baitira nagusi ohiko ikerketetan (1994: 57).

Bi hiztun-talde bereizi ditugu beste gabe: gazteak eta adinekoak. Beren anonimotasuna bermaturik dago eta datu orokorrak baizik ez dizkigute ahalbidetu. Hiru etxalekuarrak familia berekoak dira, eta gauza bera Goldaratzko lekukoen kasuan. Eztabaidagarria izan liteke etxe berekoak izatea onuragarria ote den, baina kasuistikari erreparatuz, egoki iritzi diogu. Muskiztarrari dagokionez, XX. mendean elkarrizketatuaren biloba da.

XXI. mendea (2022)		
ETXALEKU	GOLDARATZ	MUSKITZ
♂ 68 urte	♂ 70 urte	♂ 80 urte
♀ 52 urte	♀ 61 urte	
♂ 20 urte	♂ 34 urte	
	♂ 33 urte	

Aldiz, duela mende erditsuko parte-hartzaileen datuak<sup>26</sup> ikusgai daude aztertutako corpusean.

XX. mendea		
ETXALEKU <sup>27</sup>	GOLDARATZ	MUSKITZ
(E <sup>2</sup> ) 1966: Agustin Beloki, 63 urte (Etxaide, 1989). (E) 1980 ±: Agustin Beloki (Huarte, 2003).	(G) 1984-1988: Miguel Olaetxea Azpiroz, 68 urte (Pagola, 1992) <sup>28</sup> .	(M) 1966: Joakin Oraien, 84 urte (Etxaide, 1989) <sup>29</sup> .

Lurrarekin eta ingurunearekin erlazio estua duten kolaboratzaileak bilatu ditugu, nahiz eta gazte batzuen hain handia ez izan. Hauxe adierazi nahi dugu horrekin: beste profil bateko parte-hartzaileak izan balira, ezagutza-maila franko baxuagoa islatuko lukete, segurki.

Bizimodua da, preseski, aldakortasunaren beste ikerketa-eremu bat. Elkarrizketatu ditugun imoztarrak 1. sektorean aritzen edo aritutakoak dira, edo lotura hurbila dute. Martínezek azaltzen du bizimodu horrek lanbideari, familiari eta beste kideekiko harremanei garrantzia ematen diela eta, normalean, jende horrek aisialdi eskasagoa izaten duela (2010: 115-116), aukerak ez direlako hain eskuragarriak (2010: 111). Bizimodu bakanduagoa izateak zerikusia du, beraz, bertako euskara hobeki gordetzearekin, tokian tokiko erregistroari tinko heltzearekin (*idem*). Ikus, berebat, Caminok horri deritzona (2005: 172).

Familiarteko harreman-sareei bagagozkie, kasuan kasuko desberdintasunak ditugu elkarrizketatuen artean. Gure helburua ez baita izan horri begiratzea, ez dugu horretan sakonduko. Baina, merezi du aipatzea: familia-kideen arteko harreman-sarea arina bada, belaunaldi berriak gizarte modernoagoan integratzen badira edo estatus altuagoa lortzeko aukera badute, jatorrizko hizkuntzaren bereizgarriak galduz joanen dira desagertzearaino, belaunaldi gazteek ez baitituzte gurasoen aldaeraren ezaugarriak gordeko (Martínez, 2010:121). Interesgarria litzateke inkestaturiko belaunaldi gazteengan hori ikertzea; izan ere, haiengan sumatzen da aniztasun handiena, bizi-estiloaz denaz bezainbatean.

<sup>26</sup> Hilik daude denak.

<sup>27</sup> Gizon bera da Etxaideren (1989) eta Huarteren (2003) lanetan, horrexegatik E<sup>2</sup> eta E.

<sup>28</sup> Oroit 19. oin-oharraz.

<sup>29</sup> Elkarrizketatu dugun muskiztarraren aitatzia.

## 4. DATUAK ETA EMAITZAK

Heldu diren orrialdeetan, aldakortasun lexikala zein mailatan dagoen aztertuko dugu. Txertatutako adibideek galdetegiko zenbakia dakarte eta, batzuetan, laburduraren bat:

Etx.: Etxaleku	Im.: Imotz
Gazt.: Gaztelaniaz(ko)	I: Ipar Euskal Herrikoa
GN: Goi-nafarrera	M: Mendebaldekoa
Gol.: Goldaratz	Mus.: Muskitz
H: Hego Euskal Herrikoa	XX.: XX. mendea
Herr.: Herri-mailakoa	XXI.: XXI. mendea

Adibideak desberdin sailkatu ditugu, *hitzak* edo *aldaerak* kontsideraturik. *Hitzak* etimologia ezberdina duten formak dira –(29) *ganbaa* eta *sabaie*, adibidez–, edo hala iruditu zaizkigunak. Bestalde, uler bedi *aldaera* konparaturiko formak jatorri komun berekoak direla begi-bistakoa delarik, hau da, lexema aldaketarik ez dagoelarik, bai ordea bilakabide fonologiko desberdina –(240) *ameka* eta *amika*–. Tauletan, halaber, euskara batuko oinarria gehitu dugu.

Lehenbizian ([§ 4.1](#) - [§ 4.3](#)), IMOTZ IBARRA ETA HIZKERA(K) atalean ([§ 2.3](#)) esandakoa berretsiko dugu: Imozko euskararen barne-banaketak eta joerak. Bigarrenean ([§ 4.4](#) - [§ 4.8](#)), aldakortasunaren ebidentziak ekarriko ditugu: topatutako bariazioa dagokion faktoreari lotu eta adibidez hornituko dugu atala. Azkenean, aipatzekoak iruditzen zaizkigun beste bi kontu mahaigaineratuko ditugu: alde batetik, esanahi edo errealitate ezberdina duten hitz berberen afera ([§ 4.9](#)) eta, bestalde, hiztunari berezkoa zaion ahalmen asmatzailea ([§ 4.10](#)).

4.1. IMOTZ BARNEKO EZBERDINTASUNAK. 4.2. GIPUZKOAKO EUSKARA GUREAN. 4.3. ERDIALDEKO ETA NAFARRERAKO EZAUGARRIEN ARTEKO LEHIA. 4.4. EREDU ESTANDARRAREN ERAGINA. 4.5. GAZTEEK AGERTURIKO ESTANDARRERANZKO JOERA EZ-ZORROTZA. 4.6. GAZTELANIAREN ERAGINA. 4.7. TERMINO ZAHARKITUAK, AHANZTURAREN OSINEAN. 4.8. UNEAN UNEKOAREN MUGAK ETA IDIOLEKTOA. 4.9. HITZ BAT, HAINBAT ADIERA. 4.10. SENEZ SORTZEKO GAITASUNA.

## 4.1. IMOTZ BARNEKO EZBERDINTASUNAK

Lehenik eta behin, Imotzen berean gaur artean dauden desberdintasun batzuk plazaratuko ditugu. Hiztegi ezberdina erabiltzen dute, behin edo beste, ertz bateko eta besteko imoztarrek. Ibarreko bi muturrek aparteko ezaugarri lexikalak dituzte: orokorki esanda, Goldaratz Larraun aldera hurbiltzen da usu eta Muskitz, aldiz, Ultzamaldeko hizkeretara (Apalauza, 2008: 145). Lexikoari buruzko argibideak oin-oharretan emanen ditugu, *item* bakoitzari loturik.

Segidan paratu ditugun diferentziok berdintzera jotzen dute pixkaka-pixkaka, baina bildu izanak erakusten du sailkapen hau zuzena dela eta gutxienez XXI. mendearen lehen erdiraino, hola edo hala kasuan-kasuan, bizirik segitu duela.

HITZAK			
Euskara batua	Goldaratz	Imotz	Muskitz
Akordatzen (H) (herr.), oroitzen		(221) <i>akordatzen</i> <sup>30</sup>	(221) <i>oroitzen</i>
Hanka-hutsik, oinutsik		(215) <i>ankutsik</i> <sup>31</sup>	(215) <i>uñutsik</i> / <i>oñutxik</i> (XX.)
Ganibet, labana		(42) <i>kanabite</i> <sup>32</sup>	(42) <i>labana</i>
Labana, ganibet		(42) <i>labana</i> <sup>33</sup>	(42) <i>kanaita</i> / <i>kanebite</i> (XX.)
Behitegi, ukuilu	(25) <i>ikullu</i>	(25) <i>beitegie</i> / <i>beittie</i> <sup>34</sup>	

<sup>30</sup> “*Ooittu* esaten da, *akordatu*-rekin batera, Muskitzen, Oskotzen eta Etxalekun. Imozko gainerako herrietan, ez dute *oroitu* erabiltzen, *akordatu* baizik” (Apalauza, 2010: 425). XX. mendeko datuek *akordatu* dakarte eta EHHAK ‘oroitu’: [EHHA - akordatu, oroitu](#). Azkenaldiko emaitzek erakusten dute *akordatu* ari dela gailentzen.

<sup>31</sup> EHHAK *ank(a)utsik* / *ankutsin* dakar Imotz osorako: [EHHA - hanka-hutsik, oinutsik](#). XX. mendeko erantzunetan, ordea, *oñutxetan* / *oñutxik* dugu, gure muskiztarraren antzera.

<sup>32</sup> Gazt. ‘navaja’.

<sup>33</sup> Apalauzak desberdintze bera dakar (2008: 136-137). Badirudi, baina, lehenago *kanaita* / *kaneita* gisakoek hedadura zabalagoa hartzen zutela: “Muskitzen dago hitzaren azken arrastoa” (Apalauza, 2010: 423).

<sup>34</sup> Gazt. ‘cuadra (de vacas)’. Apalauzak (2008: 140-141) *beitti* Imotz osoari esleitzen dio eta *ikullu*, aldiz, Larrauni. EHHAK ere hori baieztatzen du: [EHHA - behitegi, ukuilu](#). Goldaratz ondoko Oderitzen –Larraun– *ikullu* dugu, guk Goldaratzten bildu dugun bezalaxe.

Erori	(15) <i>eroi</i>	(15) <i>bota</i> <sup>35</sup>	
Oihan, baso (M)	(138) <i>mendi</i>	(138) <i>oian</i> <sup>36</sup>	
Sabai, ganbara (H)	(29) <i>ganbaa</i>	(29) <i>sabaie</i> <sup>37</sup>	
Soro (I), euntze (GN)	(166) <i>iuntzi</i>	(166) <i>soro</i> <sup>38</sup>	
Tximista, oinaztura (GN)	(130) <i>oñazture</i>	(130) <i>tximiste</i> <sup>39</sup>	

1. taula: Imotz barneko hainbat ezberdintasun lexikal.

Emaitzek erakusten dute Goldaratz, arinki, gehiago aldentzen dela gainerako Imoztik Muskitz baino. Hala ere, azken bi *itei* –(130) eta (166)– erreparatuz, ohiz kanpoko banaketa dugula dio Apalauzak: “Ez da ohikoa Goldaratz ez beste Imozko herriak ekialdetik bereiz agertzea, eta Goldaratz, aldiz, ekialdeari lotuta agertzea; izan ere, Goldaratz bereizi ohi da eskuarki ekialdetik, eta ez alderantziz” (2010: 434). Etxaideren (1989) inkestek (130) *oñazture* dakarte Etxalekun nahiz Muskitzen, EHHak ez bezala. Aintzat har dezagun EHHako inkestak baino 20 urte zaharragoak direla Etxaiderenak: horrenbestez, gaur egun Goldaratzek erakusten du *oinaztura* taldekoen azken arrastoa, aspaldi gabe eskualde osoan nagusi zatekeena.

Hori kenduta, taulan ikus daiteke oro har erdialdeko formek indar hartu dutela azken hamarkadotan –ikus, galdetegian, (15), (38), (130), (215) eta (221)–, nafarrerazko formen kaltetan. Hizkeren berdintze edo *levelling* prozesuaren (§ 2.1.8) ebidentziak nabaritzen hasiak gara: aldaki markatuak orokorrenen mende daude eta murriztuz doaz, askotan ezerezteraino. Lehenak minoritarioak izaten dira eta bigarrenak, aldiz, nagusiak geosozialki. Eskuarki berdintzea dialekto batzuen asimilazioaren, nahasketaren eta uztartzearen bidez gertatzen da, eta maiz hizkuntzaren estandarizazioaren bidez (§ 4.4).

<sup>35</sup> Apalauzak *bota* Imotz osoari esleitzen dio eta *eroi*, berriz, Larrauni (2008: 140-141). Irudi du, ordea, Goldaratz *bota* eremutik kanpo geratzen dela, *eroi* eremuaren baitan. Gure emaitzek EHHaren banaketarekin bat egiten dute: [EHHA - bota, erori](#).

<sup>36</sup> Apalauzak dio *oiana* ‘mendia’ dela Imotz gehiengan; hala, gazt. ‘voy al monte’ esateko, *oianea naie* esaten dute (2010: 432). Orobat dio: “Goldaratz, zerbait izatekotan, ‘basoa’ da *oiana*; nolana ere, *arboladi* da hango ohiko forma ‘basoa’ adieran” (*idem*). Ikus EHHAn: [EHHA - mendi, oihan](#). Elhuyarrek ere, bere aldetik, gazt. ‘monte’ adiera ematen dio ‘oihan’ hitzari GN hizkeretan: <https://hiztegiak.elhuyar.eus/eu/oihan>. Guztiarekin ere, ematen du gero eta lausoago dagoela bereizketa Imotzen, *mendiren* mesedetan.

<sup>37</sup> Zatiketa bera ikus dezakegu Apalauzaren lanean (2008: 138), eta hala da EHHAn ere: [EHHA - ganbara, sabai](#).

<sup>38</sup> Hala dakar Apalauzak (2008: 138-139) nola EHHAk: [EHHA - euntze, soro](#). Apalauzak hau dio ‘euntze’ hitzaz: “*pentze* ohikoa da Nafarroako ekialdean eta Ipar Euskal Herrian”, Goldaratz baizik ageri ez dena (2008: 139). Hartara, (130) eta (166) bezalako adibideak ikusirik, ez dugu zurrin kontzebitu behar Goldaratz-Larraun multzoa.

<sup>39</sup> Apalauzak gauza bera dakar (2008: 138-139), baita EHHAk ere: [EHHA - oinaztura, tximista](#).

Imozko bi ertzeen berezitasunak berrartuz, aldaeretan ere banaketa opatu dugu:

ALDAERAK			
Euskara batua	Goldaratz	Imotz	Muskitz
Hamaika		(240) <i>amika</i> <sup>40</sup>	(240) <i>ameka</i>
Arrautza		(70) <i>arroltze</i> <sup>41</sup>	(70) <i>arraultze</i>
Bederatzi		(239) <i>beatzi</i> <sup>42</sup>	(239) <i>bedratzi</i>
Esan, erran (GN, I)		(255) <i>esan</i> <sup>43</sup>	(255) <i>erran / esan</i>
Gau		(68) <i>gabe</i> <sup>44</sup>	(68) <i>gau</i>
Iratzarri		(41) <i>iatzarri</i> <sup>45</sup>	(41) <i>etzarri</i>
Igitai		(71) <i>ütaye</i> <sup>46</sup>	(71) <i>eitegie</i>
Igeri egin		(220) <i>ira in</i> <sup>47</sup>	(220) <i>ingeri in / ingiri in (XX.)</i>
Matela (GN, I), masail		(175) <i>matalle</i> <sup>48</sup>	(175) <i>matela</i>
Onddo		(85) <i>ontto</i> <sup>49</sup>	(85) <i>onyo</i>

<sup>40</sup> Zatiketa bera erakusten du Apalauzak eta, dioenez, *ameka* aldaera Ipar Euskal Herriraino ailegatzten den forma dugu eta *amika*, aldiz, aski lokala da (2008: 136-137).

<sup>41</sup> Apalauzak *arroltzeak* dakar Etxalekurako (2010: 636). EHHAK erakusten du, ordea, tokiko aldaera nagusia *arraultze* zela joan den mendean Imotzen eta inguruetan. Ikus: [EHHA - arrautza](#).

<sup>42</sup> Muskitzen ez eze, Etxalekun ere bildu zituen aldaera sinkopatuak –*bedratzi*– Apalauzak (2010: 298), eta *beatzi* bakarra Larraunen bildu zuen (2010: 341). Emaitzek erakusten dute, hortaz, sinkopa gainbeheran dagoela.

<sup>43</sup> Apalauzaren esanetan, “*erran* eta *esan* biak txandakaturik ageri dira Muskitzen” (2010: 428): berriki arte Oskotzen mugaldea, eta gaur egun Muskitza mugitu da.

<sup>44</sup> Apalauzak *gabe*-ren adibide bakarra bildu zuen Imotzen: *gabin* (Gol.) (2010: 327). Datu zaharragoek, ordea, bietarik dakarte Imotzerako: *gabe* eta *gau*. Ikus: [EHHA - gau](#) eta [EHHA - gabon](#).

<sup>45</sup> Bat egiten dute gure emaitzek Apalauzarekin: izan ere, *iratzarri* gisakoak daude Imotzen; herri gehienetan *iatzarri* (Etx., Gol. eta abar) eta Muskitzen *etzarri* (2010: 454).

<sup>46</sup> EHHAK *i(g)itei* dakar Imozko ekialderako, eta *i(g)itai* mendebalderako: [EHHA - igitai](#). Badirudi muskiztarraren adibidea desitxuratu samar dagoela berezko aldaera kontuan hartuta: izan ere, Apalauzak *iteie* bildu zuen Oskotzen (2010: 232), Muskitz ondoan, alegia.

<sup>47</sup> Apalauzak *irale in* aldaera Goldaratzeko dakar –Eraso eta Latasarekin batera–, Larraun aldeko eremu murrizteko ezaugarri lexikotako daukana, eta *ingiri in* gainerako herrietan sailkatzen du, Nafarroa Garaian hedadura handikoa (2008: 138-139), nahiz eta guk elkarrizketaturiko etxalekuarrek lehen forma eman diguten.

<sup>48</sup> Apalauzak dio: “*matela* esaten diote, Muskitzen, aurpegiko zein ipurdiko masailari (*matel-ipurdie*), eta *matalle* dugu, aldiz, Imozko beste herrietan” (2010: 429). EHHAK ere hori berresten du: [EHHA - matela](#).

<sup>49</sup> Horixe nabarmentzen du Apalauzak oin-ohar honetan: “*ontto* baita ohiko ahoskera” (2020: 279). Ultzamaldean, berri, *onddo* dugu: [EHHA - txanpiñoi](#) (ikus lehen oharra, Suarbekoa).

Pago		(162) <i>pago</i> <sup>50</sup>	(162) <i>bago / pago</i>
Aiztur, guraize		(193) <i>puxik</i> <sup>51</sup>	(193) <i>piruxeak</i>
Zilbor, xilko (I)		(177) <i>txilbor</i> <sup>52</sup>	(177) <i>txilko</i>
Udazken		(158) <i>udazken</i> <sup>53</sup>	(158) <i>udondo</i>
Armiarma	(171) <i>armiarma / ermearma</i>	(171) <i>irmiarmoa / irmiarmua</i> <sup>54</sup>	(171) <i>argima(g)oa / armimaue (XX.)</i>
Baina, baino	(254) <i>baño</i>	(254) <i>biño</i> <sup>55</sup>	
Hetsi (GN, I), itxi	(38) <i>itxi</i>	(38) <i>ertsi</i> <sup>56</sup>	
Martutz (GN, I), masusta	(163) <i>matuste</i>	(163) <i>matxutxe</i> <sup>57</sup>	

2. taula: Imotz barneko hainbat aldaera.

Hartara, lexiko gehiena berdintsua dute Imozko herriek, baina maizenik ekialdeko eitea hartzen du Muskitzek. Oraingoan ere sumatzen da, dena den, nafarrerazko aldaerak indargabetuz joan direla azkenaldion, erdialdeko aldaeren alde. Horren adierazle dira (162) eta (255) adibideak – ikus, galdetegian, (255) *itemaren* oin-oharra–.

<sup>50</sup> Apalauzak adierazten duenez, *bago* esaten dute Muskitzen, Nafarroako ipar-ekialdean ohi bezala, eta *pago*, aldiz, Imozko gainerako herrietan (2010: 427). Guk bietarik aditu dugu Muskitzen, eta horixe bera islatzen du EHHAk ere: [EHHA - pago](#).

<sup>51</sup> EHHAk zatiketa bera berresten du: [EHHA - aiztur, guraize](#).

<sup>52</sup> Gure antzera, hauxe dio Apalauzak: “*txilko* bildu dugu Muskitzen, eta *txilbor* Imozko gainerako herrietan” (2010: 425). Baita EHHAk ere: [EHHA - xilko, zilbor](#).

<sup>53</sup> EHHaren arabera, joan den mendean *udondo* genuen Etxalekun ere: [EHHA - udazken](#). Mapak erakusten digu arrunt forma lokala dela. Gure emaitzak ikusiz, *udazken* forma zabaldua lekua hartzen ari zaiola esan daiteke.

<sup>54</sup> Apalauzak bi taldetan baino ez ditu bereizten aldaera horiek: bateko, *armimau* Muskitzen eta, besteko, *armiarma / ermiarma / irmiarma* gainerako herrietan (2008: 136).

<sup>55</sup> Apalauzaren (2008) *Transkripzioak* atalean aurkitu ditugu ‘baina’ hitzari dagozkion aldaerak: *baño* Goldaratzen (2008: 175-176); Etxalekun *biño* (2008: 193-194) eta *beño* (2008: 194); eta Muskitzen *biño* (2008: 200-204). XX. mendeko erantzunetan *beño* aldaera dugu Muskitzen, eta EHHAean Etxalekun ere bai –[EHHA - baina, baino](#)–, baina guk ez dugu haren arrastorik izan: irudi du, orduan, galbidean dagoela Imotzen.

<sup>56</sup> Nahiz eta Apalauzak dioen Imotzen *ertsi* dela aukera nagusia –Goldaratzen, *iirtsi* ere bai–, eta Larraunen eta Araitz-Betelun *itxi* (2010: 440), XX. mendeko inkestek nahiz gure emaitzek *itsi / itxi* dakarte Goldaratzeko.

<sup>57</sup> XX. mendeko galdetegiko muskiztarrak *mastutxe* erantzun zuen eta Apalauzak *martuxe* dakar Muskitzerako (2008: 136). Bestalde, EHHAk Etxalekurako gure datu bera dakar, *matxutxe*: [EHHA - martutz, masusta](#). Goldaratz eta Muskitzerako ez dugu EHHako daturik, baina Ultzamako Suarbeko *martux*-ek eta Larraungo Oderizko *masusti*-k pistak ematen dizkigute Muskitz eta Goldaratzeko, hurrenez hurren.

Aintzat hartzekoa da Imozko berezko lexikoa Basaburu Nagusikoa ere izaten dela (Apalauza, 2008: 140-141). Eskualde honetakotzat har daitezke, besteak beste, (137) *jainkoam paxa*<sup>58</sup>, (135) *kalma, malkor*<sup>59</sup>, *pa(r)atu*, (193) *piruxeak / puxik* eta *tripota* hitzak, baita (101) *altzurre*, (254) *biño, bulkatu / bulketu, konten*, (197) *koopilloa, maingi*<sup>60</sup>, (164) *malubi*, (208) *neskatxe*<sup>61</sup> eta (131) *ortotsa* aldaerak ere (*idem*).

2. taula ikusiz, azkenik, baiets daiteke Muskizko euskara osatuagoa dela, hots, hitzak osokiago ahoskatzen dituztela. Konpara bitez ondoko etsenpluok beren baliokideekin: (25) *beitegie*, (60) *dembora*, (34) *euskeras*, (186) *merendatu / merendue*, (193) *piruxeak*... Apalauzak dioskunez, “bokal arteko kontsonanteak egonkorragoak dira” (2010: 491), eta obra osoan berresten du Muskizko hizkeraren ezaugarri banatzaile hori (2010: 89, 230, 239, 266-267, 305 eta abar): ikertutako eskualdeaz ari zaigula, hamaika dira *salbu Muskitz* deitura daramaten baieztapenak. Muskitzek Imotzen eta Atetz-Ultzamaren arteko zubi-lana egiten du (2010: 228).

## 4.2. GIPUZKOAKO EUSKARA GUREAN

Imozko –eta Basaburuko– euskarak aspaldixkotik ditu erdialdeko hizkerak gogora ekartzen dizkiguten ziliportak, bereziki, lexikoari dagokionez (Apalauza, 2008: 134-135).

HITZAK	ALDAERAK
(207) <i>asko</i> <sup>62</sup>	(43) <i>burni</i> <sup>70</sup> ‘burdina’

<sup>58</sup> ‘*Jainkoan paxa*’-z gehiago jakiteko, ikus Apalauza (2010: 441).

<sup>59</sup> *Malkor* hitzak ‘haitza, harkaitza’ esan nahi du eta ohikoa da Nafarroako mintzoetan (Jimeno Jurío, 1998: 200).

<sup>60</sup> *Maingik* ‘maingu, herren’ esan nahi du: gazt. ‘coja/o’ nahiz ‘manca/o’. Apalauzak zenbait adibide eskaintzen ditu: *maingike* Oskotzen (2010: 232), *maingi* Gartzaronen (2010: 380)... Aldaeraren azalpena ere badakar (2010: 443).

<sup>61</sup> Gazt. ‘chica, muchacha’ izendatzeko, gure eskualdean *neskatxe* esaten da. EHHako Etxaleku eta Berueteko lekukotasunek *neskatxe* dakarte, besteak beste. Ikus, herrika: [EHHA - neskata](#).

<sup>62</sup> Ikus EHHAn: [EHHA - anitz, asko](#). Goi-nafarrera arkaiko eta zaharrear *anitz* dugu nagusien, baina *asko* ere lekukoturik dago (Reguero, 2017: 643). Apalauzak dio Atetzen eta Ultzaman *anitz* eta *aunitz* aditzondoak erabiltzen direla, eta bere garaian Txulapainen ere halaxe omen; gaur egun Imotzen eta Basaburu Nagusian *asko* hitza ageri da, eta hala da gure eremutik mendebaldera ere (2010: 413). Beharbada iraganeko denboretan *anitz* eta haren kidekoak baliatzen zituzten imoztarrek, baina ez dugu hori frogatzen duen lekukotzarik.

<sup>70</sup> EHHAk banaketa argia derakusa: [EHHA - burdina](#). Orobat Latasan *burnie* bildu zuen Apalauzak (2010: 222).



(216) <i>atze</i> <sup>63</sup>	(232, 255) <i>esan</i> <sup>71</sup>
(29) <i>ganbaa</i> <sup>64</sup> ‘ganbara’	(51) <i>gutxi</i> <sup>72</sup>
(115) <i>iñare</i> <sup>65</sup> ‘ainara, enara’	(13) <i>iiki</i> <sup>73</sup> ‘ireki’
(172) <i>kattagorri</i> <sup>66</sup> ‘katagorri’	(122) <i>illoa</i> <sup>74</sup> ‘iloba’
(42) <i>labana</i> <sup>67</sup>	(226) <i>jantzi</i> <sup>75</sup>
(130) <i>tximiste</i> <sup>68</sup> ‘tximista’	(209) <i>neskame</i> <sup>76</sup>
(170) <i>xa(g)uxar</i> <sup>69</sup> ‘saguzar’	<i>txabola</i> <sup>77</sup>

3. taula: erdialdeko euskararekin bat egiten duten Imozko hainbat hitz tradizional.

<sup>63</sup> Gure eremuaren ingurumarian *atze* da nagusi, baita hemendik mendebaldeko hizkeretan ere (Apalauza, 2010: 414). EHHAK ere horixe baieztatzen du: [EHHA - atze, gibel](#). Gure toponimian *gibel* dugu, ordea: *Amengibel* (Muskitz), *Elizgibel* (Muskitz eta Zarrantz) eta *Mendigibel* (Etxaleku), *Nafarroako Toponimia eta Mapagintza, Basaburua-Imotz* (1998) lanean ikus daitekeenez. Izan ere, *gibel* da nagusi goi-nafarrerazko testu arkaiko eta zaharretan (Reguero, 2017: 650).

<sup>64</sup> Goldaritzen, besterik ez. Apalauzak garbi dakusa *ganbara* eta *sabaia* hitzen banaketa geografikoa (2010: 432), eta gaineratzen du: “Araitz-Betelu ondoko hizkera giputzetan eta Leitizan, *ganbaa* ageri da” (*idem*).

<sup>65</sup> Imotzen, *txirriñe* deitzen diote enara hegaziari, baina Etxaleku da salbuespena, *iñarea* esaten baitute han, ‘enara’ gisakoa azken finean, Gipuzkoa aldean bezala (Apalauza, 2010: 445-446). Gaineratzen du: “Goi-nafarrerako hiztatz hartu du OEhk *zirrin*” (*idem*).

<sup>66</sup> Ultzamatik ipar eta ekialdera *katapurtxintxe* erakoak daude, eta *kattagorri* hitza Euskal Herriko erdigunekotzat jotzen du Apalauzak (2010: 415). Ikus: [EHHA - kattagorri, urtxintxa](#).

<sup>67</sup> Badirudi Euskal Herriko erdigunetik zabaltzen ari dela ‘labana’ hitza, eta gure eremuan bederen, lekua kentzen ari zaio *kanietari*: hortaz, pentsatzekoa da hitz horrek hedadura handiagoa zukeela garai batean, baina *labana* nagusitu da denborarekin (Apalauza, 2010: 423). Prestigioa izan daiteke horren arrazoia (*idem*). Ikus EHHAn: [EHHA - ganibet, labana](#).

<sup>68</sup> Gure eremuaren inguru guzian *tximiste* hitza maiz badugu ere, Apalauzak irudipena du Euskal Herriko erdigunean ageri dela nagusiki *tximista* (2010: 433). Lehenago aipatu bezala (§ 4.1), harrigarriki Goldaratzek gorde du *oñazture* forma: geron inkestan, ordea, gaurgero *tximistarekin* batera ageri da.

<sup>69</sup> Imotzen *sauxar* da ohiko forma baina *gauinare* gisakoak daude inguruko ibarretan (Apalauza, 2010: 414). Ikus EHHAn: [EHHA - gauenara, saguzar](#).

<sup>71</sup> Ikus EHHAn: [EHHA - erran, esan](#). Mapan Etxaleku *erran* eremuan sarturik dago baina egiatan berriemaileak *esan dire* erantzun zuen: izan ere, elkarriketatzailak ez zioten lexikoari erreparatu 94260. galdera horretan; lehen pertsonako datiboaren eta aditz iragankorraren arteko komunztadurari behatu nahi zioten.

<sup>72</sup> Apalauzak isoglosaren berri ematen du: Ultzamaldean ‘guti’ –*gutti*–, eta Imotz-Basaburuan eta handik mendebaldera ‘gutxi’ (2010: 416). Halaber, ikus Etxaleku EHHako zerrenda honetan: [EHHA - guti, gutxi](#). Azkenik, Reguerok dio: “*Gutxi* esateko hiru aldaera aurkitu ditugu Nafarroako testu zaharretan: *guti, gutxi* eta *giti*. Naski, *guti* da gehien ageri dena” (2017: 665).

<sup>73</sup> Hau da, *iriki*, ‘ireki’. Muskitzen *edeki* dugu –ikus (4) *itema*–, Ultzaman bezala (Apalauza, 2010: 416). Ikus EHHAn: [EHHA - edeki, ireki](#).

<sup>74</sup> Apalauzak *illeba* eta *illoa* aldaeren banaketa oso argi ikusi ez arren, *illoa* dakar Goldaratzeko eta *illeba* Imozko gainerako herrietarako, eta Goldarazko *illoa* gisakoak daude Gipuzkoan ere (2010: 437). EHHAK, ordea, Etxalekurako ere *illua* dakar: [EHHA - iloba](#).

<sup>75</sup> Apalauzak dio *jauntzi* erabiltzen dela Imotzen eta Basaburuan –*yauntzi* Muskitzen–, eta Larraunen *jantzi*, baita handik mendebaldera ere (2010: 449). EHHAK *beztitu* dakar gure eskualderako: [EHHA - beztitu, ja\(u\)ntzi](#).

<sup>76</sup> Ultzamatik ipar eta ekialdera, *neskato* da ohiko forma (Apalauza, 2010: 417). Orobat ikus EHHAn: [EHHA - neskame, neskato](#). Reguerok ere halaxe bildua du (2017: 654).

<sup>77</sup> Guk gehitua –galdetegitik kanpoko–. Gure herrietan *txabola* da nagusi, eta Ultzamaldean *etxola* (Apalauza, 2010: 413). Ikus EHHAK dakarrena: [EHHA - etxola, txabola](#). Mugaldeko eskualdean gaude, beraz, eta toponimiari erreparatuta, biak ageri zaizkigu Imotzen: *Apezetxoleta, Txabolberri, Txabolzar...* (iturria: [Nafarroako Toponimia Ofiziala](#)).

Egiari zor, *asko* eta *burni* hitzak berezkoak zaizkio goi-nafarrerari ere (Reguero, 2017: 643 eta 646). Imozko euskarari dagokionez, ditugun testigantza idatzi urriak iragan hurbilekoak dira, baina lekuan lekuko euskarak artean ere nahaste handirik gabekoak ziren garaia zen ordukoa: Imozko euskarak taulako forma horiek guziak ditu eta, horrenbestez, erdialdekoak eta tokikotzat har daitezke.

(232, 255) *esan* eta *erran* aldaerei dagokienez, errotazismo fenomenoaz mintzo zaigu Ibarra: batzuek *-r-* dardarkaria ahoskatzen duten bitartean, beste batzuek leku berean txistukaria ahoskatzen dute, *-s-* edo *-z-* (1997: 65). Gurean dago isoglosa: Muskitzek hartzen du *-r-* eta gainerakoek *-s-*, nahiz eta, ez aspaldi, Imozko herri gehiagok zerabilten (*idem*).

Eragin giputza aipatuz, 3. taulak erakusten du XX. mendean –baita lehenago ere– egon bazegoela erdialdeko euskararen lexikoaren presentzia imoztarren mintzairan, hala nola (236) *bezela* adibide bakana. Baina iragan mendeko erantzunetara *joz* eta aditzaren morfologiari erreparatuz gero, datuak are eta adierazgarriagoak dira. Ikus ditzagun, laster batean, duela mende erdiko etsenplu batzuk: (160) *ateako gera*, (203) *barkazioa eskatu det*, (161) *etorko gera*, (34) *ník éuskeáz itzítten dét* edo (128) *ník undásun ásko dét*. Hortxe dugu, gure irudiko, prestigioaren afera, euskara dotorea erakutsi nahia; esplikatu dugunez (§ 2.1.9), jendeak uste (izan) du gipuzkera dela denetan jatorrena. Bada, *izan* aditzaren erroa Imozko hizkera orotan *-a-* da (Apalauza, 2008: 116), gure berriemaileek erakutsi duten moduan: (160) *ateako ga*, (161) *bueltatuko ga / etorko ga...* Basaburua eta Imotzen *gu gaa*, *zu zaa* eta *aik dee* bezalakoak ditugu eta Ultzaman *gu gara*, *zu zara* eta *aiek dire* (Ibarra, 1997: 95). Ezaugarriaren muga Nafarroaren eta Gipuzkoaren arteko mugan dago: Araitz-Betelutik ezker, *-e-* erroa ageri da Tolosaldeko eta Gipuzkoako hizkeretan (Apalauza, 2010: 361). Gainera, Nafarroa Garaiko testu zaharrei begiratzen badiegu, jabetuko gara *gara & zara* aldaera zaharrak direla nagusi; sistematikoki *-a-* dun aldaera dugu (Reguero, 2017: 597). \**Edun* aditzaren erroari dagokionez, *-u-* da eremu osoan –zenbait kasutan *-o-* bihurtu da, Goldaratzen kasurako–. Horixe erabiltzen da, hain zuzen, Nafarroa Garai gehienez (Apalauza, 2010: 361), eta goi-nafarreraz idatzitako lehen testuetatik hasita, *-u-* erroa adizkiak ditugu (Reguero, 2017: 598). Gipuzkoara ezker, *-e-* erroa erabiltzen da (Apalauza, 2010: 361).

Horiek horrela, zehaztu beharra dago egungo hiztunek, 3. taulako hitzez gain, beste zenbait alditan eman digutela erdialdeko forma, XX. mendeko inkestetan ez bezala:

HITZAK		ALDAERAK	
Ereri	(15) <i>ero(r)i</i> <sup>78</sup> vs <i>bota</i> (Mus.)	Azazkal	(110) <i>azkazal</i> <sup>84</sup> vs <i>azazkal</i> (Etx.)
Hodei	(135) <i>laño</i> <sup>79</sup> vs <i>kalma</i> (Mus.)	Esan, erran	(232, 255) <i>esan</i> <sup>85</sup> vs <i>erran</i> (Mus.)
Oihan	(138) <i>mendi</i> <sup>80</sup> vs <i>oian</i> (Etx.)	Hetsi, itxi	(38) <i>itxi</i> vs <i>ertsi</i> (Etx.)
Barre/Irri egin	(223) <i>parre egin</i> <sup>81</sup> vs <i>irri in</i> (Mus.)	Korapilo	(197) <i>ko(rr)apillo</i> <sup>86</sup> vs <i>koopillo</i> (Etx. Mus.)
Tximista, oinaztura	(130) <i>tximiste</i> vs <i>oñaztura</i> (Gol.)	Masail, matela	(175) <i>masalle</i> <sup>87</sup> vs <i>matalle</i> (Etx., Gol.)
Behitegia, ukuilu	(25) <i>ukullu</i> <sup>82</sup> vs <i>beitegie</i> (Mus.)	Pago	(162) <i>pago</i> <sup>88</sup> vs <i>bago</i> (Mus.)
Arteka, zirrikitu	(13) <i>lertue</i> vs <i>erte(ka)</i> , <i>zirriku</i> <sup>83</sup> (Etx.)		

4. taula: eragin giputza duten adibide garaikideak.

Beste behin, haranaren ekialdea –bereziki Muskitz– sumatzen dugu eraginpeanago: bestela esanda, erdialdeko formak ekialdekoak menderatuz doaz pixkanaka. Goldaratz behin edo bitan

<sup>78</sup> Apalauzak azaltzen du: “Imoztik eta Basaburu Nagusitik ekialdera, Ultzama aldean ere adiera iragangaitza du *bota* aditzak, [...] baina *eroi* erakoak daude Basaburu Txikian eta Leitzan (B. L.), eta, jakina, Gipuzkoan” (2010: 439). Gure emaitzek erakusten dute, ordea, Goldaratz *bota* eremutik kanpo dagoela, eta EHHAK ere gauza bera dakar Goldaratz ondoko Oderitzerako: [EHHA - bota, erori](#).

<sup>79</sup> Hauxe dio Apalauzak: “*kalma* hitzak ‘hodeia’ esan nahi du Imotzen [...] eta, zerua estalita dagoenean, *kalma dao* ‘kalma dago’ edota *kalmatuik dao* ‘kalmaturik dago’ esan ohi da. [...] *laño* ‘hodeia & zerua estalita’ dugu Araitz-Betelu ondoko hizkera giputzetan” (2010: 442).

<sup>80</sup> Gogoan izan 31. oin-oharra.

<sup>81</sup> Apalauzaren lanean (2008: 138) Goldaratz *parra in* esaten dutela ikus dezakegu, baina gainerako Imotzen *irri in*. Ikus EHHAn: [EHHA - barre egin, irri egin](#).

<sup>82</sup> Apalauzak dio: “Ukuilua *beitti* izendatzen dute Imotz eta Basaburu Nagusia ibarretan” (2010: 439), baina bi ibarrotan ezagunak dira ‘ukuilu’ gisakoak; “forma berriagotzat hartzen dituzte” (*idem*), ordea. Ikus, berriz ere, [EHHA - behitegi, ukuilu](#).

<sup>83</sup> *Zirriku* hitza ageri da Goldaratz –baita Larraunen eta Araitz-Betelun ere– eta *erteka*, berriz, Imozko gainerako herrietan –Muskitzen, *erte*– (Apalauza, 2010: 435-436).

<sup>84</sup> Apalauzak dioenez, Erason eta Goldaratz entzun daiteke *azkezal* –Larraunen eta handik mendebaldera bezala–, baina gainerako Imotzen *azazkal* da aldaera tradizionala (2010: 436), joan den mendeko ihardespnek ere aintzat harturik. Ibarren esanetan, *azkazal* / *azazkal* bikotea adibide argia da Nafarroako eremu zabal honetan ematen diren leku-aldaketek: hitz jakin batzuetan, silaba-jauzia gertatzen da (1997: 59). Ohiko beste adibide bat ‘mozorro’ / ‘zomorro’-rena da (*idem*) eta gurean lehena baliatzen da –ikus (100) *itema*–.

<sup>85</sup> Lehenago azaldu dugunez, Muskitzen *erran* eta *esan* txandakatzen dituzte (Apalauza, 2010: 428) baina, ezbairik gabe, *esan* gailentzen ari da.

<sup>86</sup> Herri guztietan jaso ditugu *koopillo* erakoak, behin bakarrik *koopillo* eta hara non, Goldaratz. Izan ere, Apalauzak dio: “*koopillo* aldaera entzun daiteke Imotzen, nahiz eta *koopillo* ere entzun izan dugun, behin edo beste, Goldaratz [...] Larraunen eta Araitz-Betelun, *koopillo* ageri da herri guztietan [...] eta orobat Gipuzkoan” (2010: 449).

<sup>87</sup> Apalauzak dioenez, *matela* esaten diote Muskitzen eta *matalle* dugu, berriz, Imozko beste herrietan. Bestalde, *matail* aldaera Araitz-Betelun du muga, *masail* edo *matrail* ageri baitira handik mendebalera (2010: 429).

<sup>88</sup> Apalauzak dio: “*bago* esaten diote pago zuhaitzari Muskitzen, eta *pago*, aldiz, Imozko gainerako herrietan, Basaburu Nagusian, Larraunen eta Araitz-Betelun” (2010: 427).

baino ez zaigu arestiko taulan azaltzen: izan ere, Goldarazko euskara da erdialdeko hizkerekin gehien bat egiten duena, eta horrexegatik ez da gainerako herriak bezainbat besteratu.

Berriki *\*edun* aipatu dugu, eta duela mende erditik gaur artean nabari den pixkanakako aldaketa bat da horren beherakada, *eduki* aditzaren mesedetan, gazte hizkeran zorrozten dena. *Eduki* aditza –*eukittu* / *iukittu* (Apalauza, 2010: 385)– eta haren forma trinkoak ohikoak dira Imotzen –ikus Apalauza, 2010: § 8.4.20–, baina esan bezala, irudi du haren erabilera areagotzen ari dela. Joan den mendekoa dugu adibide hau: (90) *eztut*. Gure inkestatu guziek *eztauket* / *ez dauket* erantzun dute. Horren ildotik, interesgarria da (129) *itemean* etxalekuar batek egiten duen bereizketa –ikus 197. oin-oharra–. Nolanahi dela, alde nabarmenena aditz-laguntzailean sumatu dugu. Adinekoek oro har *\*edun*-i eutsi diote, duela mende erdi bezala: (235) *guk aimbet diru dute* eta *dute guk aimbeste* / *añe dirua...* Hurrengo honetan, ordea, bi helduk baizik ez dute (94) *dittut* / *ttot* eman; gainerakoek *dauzkit*. (235) *itemera* itzuliz, gazteek horrelaxe erantzun dute: *guk aimbet diru daukete* eta *guk aña diru daukete*. Gauza bera ikus daiteke beste kasu honetan: jende helduaren ahotik (234) *zuk biño geigo duu*, *zuk baño geigo duu* eta *dugu zuk baño geiigo* dugu eta, aldiz, gazteen ahotik *zuk biño geigo dauku* eta *zuk baño geigo daukiu*. Nolanahi ere, helduen artean ere beste joeratxo hau igarri dugu: zenbat eta ekialderago, orduan eta *\*edun* gehiago baliatzen da. Horrenbestez, sotilki bada ere, *eduki*-ren aldaketa progresiboa antzeman dezakegu.

Arestiko hori bezain sotila da *-tu* aditz-partizipioaren gorakada, *-i*-ren kaltetan: (237) *biali* vs *bialdu* (XX. eta XXI.), (227) *biluxi* (XX.) vs *biluxtu* (XXI.) eta (224) *ebatsi*<sup>89</sup> (XX.) vs *ebastu* (XXI.). Zenbait kasutan, egia esatera, izan zitekeen erdialdeko eraginik ez edukitzea eta eremu txikiagoko formekin lehian dauden forma zahar eta orokorragoak izatea, zeinak gure inguruan ere gorde izanen ziratekeen: alabaina, balekoak izan bitez ondoko datuak, gure ustea baieztatzeko. Berebat (227) *biluxi* vs *biluxtu* kasuari dagokionez, joan den mendeko bi informatzailek hala adierazteaz gainera, EHHAREN datuak ditugu: *biluxita* adberbioa jasota dago Etxalekun –[EHHA - biluzi](#)–, hots, *biluxi* + *-ta* atzizkia. (237) *biali* vs *bialdu* adibideari bagazozkio, EHHAK *biali* dakar Etxalekurako –[EHHA - bidali, utzi](#), irakur *Bestelakoak* atalean– eta, horrez gain, Apalauzak dio:

- *bialdu* ‘bidali’: [...] Latasan eta Itsason ere entzun dugu, baina *biali* aukerarekin batera. Gainerako herrietan, *biali* edo haren aldaeraren bat bildu dugu: *biali* (Lat., Gol., Era., Etxal., [...]), *bieli* (Osk., Mus.), [...]. Etxaideren datuetan, *bialdu* eta halakoak ageri dira (1989: 338-339): Beratsainen (Atetz), Etxalekun, Itsason, Berueten, Uitzin, Oderitzen, Aldatzen,

<sup>89</sup> Imozko jatorrizko forma da ‘ebatsi’ (Apalauza: 2010: 439).

Azkaraten, Areson, Sakanan, Eratsunen (Basaburu Txikia), Iturenen (Malerreka), Lesakan, Arantzan eta Aezkoan. Banaketa zurruna egin du Ibarrek (1995a: 494): *bigeli* eta *igorri* Ultzaman vs. *bialdu* Imotzen eta Basaburu Nagusian. Horren harira, ez dugu esango *bialdu* entzuten ez denik Imotzen eta Basaburu Nagusian, baina, zalantzarik gabe, *biali* gisakoak dira han nagusi (2010: 385-386).

### 4.3. ERDIALDEKO ETA NAFARRERAKO EZAUGARRIEN ARTEKO LEHIA

Euskara nafarrari esleitzen zaizkion hitz eta aldaera eskusibo batzuk identifikatu ditugu emaitzetan<sup>90</sup>, gehienetan adinekoen ahoetatik bilduak: esaterako, (47) *itxe*<sup>91</sup> ‘etxe’ (Reguero, 2017: 652) eta (13) *erte*<sup>92</sup> (Mus) ‘arte’ (Reguero, 2017: 648). Bien baturak (17) *itxekerte* sortzen du. Horiezaz landara, goi-nafarrera arkaiko eta zaharretik dokumentaturik dauden beste hainbat ditugu, Reguero (2017)-ri jarraituz:

HITZAK	ALDAERAK
(222) <i>atzendu</i> (2017: 644)	(57) <i>ago</i> ‘aho’ (2017: 641)
(226) <i>beztittu</i> ‘beztitu’ (GN, I) (2017: 376)	(240) <i>ameka</i> ‘hamaika’ (2017: 650)
(238) <i>deus</i> (2017: 646)	(232) <i>apez</i> ‘apaiz’ (2017: 549)
(229) <i>erdetxi</i> ‘erdietsi’ (I) (2017: 647)	(2) <i>atari</i> ‘ate’ (2017: 644)
(145) <i>izotzil</i> (XX.) (GN) (2017: 652)	(203) <i>barkazio</i> ‘barkamen’ (2017: 557)
(154) <i>lastail</i> (XX.) (GN) (2017: 653)	(69) <i>baru(r)ik</i> ‘baraurik’ (2017: 644)
(130) <i>oñazture</i> ‘oinaztura’ (2017: 654)	(93) <i>goatze</i> ‘ohatze’ (GN, I) (2017: 654)
(138) <i>oian</i> ‘oihan’ (2017: 654)	(112) <i>guzi</i> <sup>93</sup> ‘guzti’
(176) <i>urrin</i> (I) (2017: 657)	(226) <i>jauntzi</i> ‘jantzi’ (2017: 652)
	(175) <i>matela</i> (2017: 654)
	(131) <i>ortots</i> (2017: 655)

5. taula: goi-nafarreran ohikoak diren hainbat hitz eta aldaera Imozko euskaran.

<sup>90</sup> Baten bat ez da eskusiboki *nafarrera*, hala nola *apez*, *beztitu*, *deus*, *guzi* eta *jauntzi*, Ipar Euskal Herrian ere badiren aldetik. Bestalde, zerrendako hilabeteak XX. mendeko datuei dagozkie –(XX.) marka daramatenak–.

<sup>91</sup> Xehetasun gehiago Apalauzaren lanean (2010: 447-448).

<sup>92</sup> *Erte* edo *kerte*-k ‘arteka’ esan nahi du (Apalauza, 2010: 304). Apalauzak dio Goldaratzen *zirriku* esaten dutela, eta gainerako Imotzen *erteka* edo *erte* (2008: 138). Ibarrek seinatzen duenez, *erte* dugu *arte*-ren forma zaharra (1997: 50-51), edo hobeki esan, berrikuntza ez hain berria –hori baita *erte*–. Ultzamaldean *-er*-tik eratorriak mantentzen dira: *ertean*, *ertekoa* [...], *itxekertean* (*idem*).

<sup>93</sup> Reguerok (2017) ez dakar *guzi* aldaera § 3.4.1 *Hiztegia* atalean, baina hamaika adibide ageri zaizkigu bere obran, egile nafarren lekukotasunetan. Orobat ikus EHHAn Etxaleku eta inguruak: [EHHA - guzi, guzi](#).

Zenbakiak emateko molde hau ere zaharra omen da nafarreraz: (243) *iruetanogei*, (244) *lauetanogei* (2017: 667). Hiztegiak gain, *\*-ani > -ai* bukaera dugu Imotzen: (169) *arrai* (XX.), (72) *artzaye*... Bilakabide hori, nonbait, berezkoa zaio nafarrerari, Reguerok azaltzen duen moduan: “Mitxelenak (FHV § 7.5) erakutsi zuenez, gipuzkeran eta goi-nafarreran *\*-ani > -ãĩ > -ai* gertatu da, eta *arrai*, *artzai* eta *usai* gisakoak dituzte dialektook” (2017: 556). Gaineratzen du: “Adibide askorik izan ez arren, pentsatzekoa dirudi goi-nafarreraren eremu handi batean *-ai* bukaera dagoela” (*idem*).

Imozko euskararen izaera ulertzeko, aintzat har dezagun nafarra dela geruza zaharra eta giputza berria (Zuazo, 2006: 114). Maiz erdialdeko eta nafarrerako ezaugarrien arteko tentsioa sumatzen dugu: gehiago dena, oreka hausten ari da arrapaladan. Zuazok argi egiten du: “XVIII. mendean gero, handituz joan da euskara giputzaren ospea eta indarra eta, euskara batua euskalki horretan oinarritu denetik, askozaz nabarmenagoa da haren eragina” (iturria: [Ezaugarriak](#): § *erdialdeko euskara*). Baieztatzen du: “se adoptó el dialecto guipuzcoano como base de la unificación, con lo que en definitiva se siguió la línea que había ido imponiéndose desde el siglo XVIII” (2010: 124). Ondorioen atalean sakonduko dugu horretan. Aitzineko atalek (§ 4.1 & § 4.2) erakusten dute aspaldiko tentsio hori zorrozten ari dela azken urteotan: balantza erdialdeko formen alde erorarazten ari da. Jarraian (§ 4.4tik aurrera) azeleratze horren eragileak izendatuko ditugu, eta ekarritako aldaketa zenbait plazaratuko dugu.

Bien bitartean, gaur egun bete-beteko lehia sumatu ditugun eleak zerrendatuko ditugu:

HITZAK	ALDAERAK
(56) <i>a(r)otz</i> <sup>94</sup> → <i>errero</i>	(36) <i>bezin</i> <sup>102</sup> → <i>bezain</i>
(222) <i>atzendu</i> → <i>a(a)ztu</i> ‘ahaztu’	(140) <i>erleju</i> <sup>103</sup> ‘erloju’ → <i>erloju</i>
(120) <i>azal</i> <sup>95</sup> → <i>larru</i>	(38) <i>ertsi</i> ‘hetsi’ → <i>itxi</i>
(19, 22, 25) <i>beittie</i> ‘behitegi’ → <i>ukullu</i> ‘ukuilu’	(115) <i>ĩñare</i> ‘ainara, enara’ → <i>enara</i>
(15) <i>bota</i> <sup>96</sup> → <i>ero(r)i</i>	(197) <i>koopillo</i> ‘korapilo’ → <i>koapillo</i> ‘korapilo’

<sup>94</sup> EHHAn datuek gure eskualderako *a(r)otz* dakarte nagusiki, eta Goldaratz ondoko Oderitzen *arotz* nahiz *errero* bildu zuten orduan: [EHHAn - arotz](#).

<sup>95</sup> Ikus EHHAn: [EHHAn - azal, larru](#).

<sup>96</sup> Adiera iragangaitza duena.

<sup>102</sup> Ikus EHHAn: [EHHAn - bezain](#).

<sup>103</sup> Ikus EHHAn: [EHHAn - erloju](#).

<p>(188) <i>erde</i><sup>97</sup> ‘lerde’ → <i>apar, baba</i></p> <p>(127) <i>gaitz</i> → <i>gaixotasun</i></p> <p>(212) <i>gaizki</i> → <i>gaixo</i></p> <p>(187) <i>gernu</i><sup>98</sup> → <i>pixe</i> ‘pixa’</p> <p>(219) <i>go(r)atu</i><sup>99</sup> → <i>altxa, jaso</i></p> <p>(223) <i>irri in</i> ‘irri egin’ → <i>parra/e (eg)in</i> ‘barre egin’</p> <p>(135) <i>kalma</i> → <i>odeye, laño</i> ‘hodei, laino’</p> <p>(217) <i>makurrao/u</i><sup>100</sup> ‘makurrago’ → <i>okerrau</i> ‘okerrago’</p> <p>(138) <i>oian</i> ‘oihan’ → <i>mendi</i></p> <p>(130) <i>oñazture</i> ‘oinaztura’ → <i>tximiste</i> ‘tximista’</p> <p>(215) <i>oñutsik</i> ‘oinutsik’ → <i>ankutsik</i> ‘hanka-hutsik’</p> <p>(80) (<i>matxa</i>) <i>porka</i><sup>101</sup> → -, <i>arrazimo</i> ‘mordo, mulko’</p> <p>(176) <i>urriñ</i> ‘urrin’ → <i>usai</i> ‘usain’</p> <p>(78) <i>zango</i> → <i>gemelo, pantorrille</i> ‘zangar’</p>	<p>(175) <i>matalle</i> ‘matela’ → <i>masalle</i> ‘masail’</p>
---	--

6. taula: gaur egun lehian dauden hitzak.

Lehian sumatu ditugun –eta gainbehera doazen– horien % 80 hitzak dira, eta kopuru txiki bat aldaerak: hau da, badirudi hitzak errazago ordezten ari direla imoztarrak. Zerrendakoez gain, gazte-gazteenak (203) *barkamen*, (160) *egunsenti*, (56) *errementari* eta (33) *igeltsero* erantzunak ere eman ditu: esan nahi baita, belaunaldi gazteengan biziagoa da bilakabidea. Hurrengo atalean sakonduko dugu horretan (§ 4.4).

#### 4.4. EREDU ESTANDARRAREN ERAGINA

Orain arte Imozko mintzo tradizioaletako ezaugarriak azpimarratu ditugu. Gaurdaino ailegatu diren hitz batzuk hari-haritik iritsi dira, baina hor ditugu. Orain artean, beraz, aldakortasun-

<sup>97</sup> EHHAk Etxalekurako *lamburi* dakar, bitxiki, inkestagileek behiez galdeginda. Nolanahi ere, inguruetan *erde* dugu: [EHHA - lerre](#). Esnearen aparrari, ordea, *apar* esaten zaio eskualdean: [EHHA - apar](#).

<sup>98</sup> Ikus EHHAn: [EHHA - gerneru egin, pixa egin](#).

<sup>99</sup> Ikus EHHAn: [EHHA - goratu](#).

<sup>100</sup> Segidako adibideak gazt. ‘empeorar’ dakar, osasunari dagokionez. Imotzen *gaizkitu* jasota dago, baina inguruetan *makurrago jarri / paratu*. Ikus dezagun haren hedadura: [EHHA - makurrago](#).

<sup>101</sup> Ikus EHHAn: [EHHA - mahats-mordo](#).

zantzuak deskribatu ditugu, joerak, gehienera ere. Aurrerantzean, azken mende erditsuan izandako bilakaera dokumentatuko dugu, eta eskolako euskararen eragina aipatuko dugu lehenik.

Eredu estandarren eragin biziagoa ikusi dugu gazteengan: desberdintasuna ikusten den aldi gehienetan adindunek tokiko formak darabiltzate eta gazteek, aldiz, erdialderagokoak –euskaral gizartean gailendutakoak–, eskolako euskara *Hegoaldeko batuaz* elikatzen baita gehienik. Izan ere, *Hegoaldeko* euskara batua estandarizazioaren eta horren sarbide izandako hezkuntza-sistemaren argitan espikatzen da. Hartara, erdialdeko hizkeren eragina gazteengan gehiagotan agertzea euskarazko alfabetatzearekin loturik dago hertsiki. Ontzat hartuz gero euskara batua gipuzkeran oinarritu dela nagusiki (Zuazo, 2010: 37), ez da harritzekoa gazteek emandako forma gehienek forma giputzekin bat egitea –salbu (105), (168) eta (241) aldaerek–.

HITZAK	ALDAERAK
(219) <i>altxa</i> vs <i>go(r)atu</i>	(105) <i>aiz</i> <sup>110</sup> vs <i>yaiz</i> ‘haiz’ (Im.)
(253) <i>askotan</i> vs <i>maiz</i> (Etx.)	(241) <i>amairu</i> <sup>111</sup> vs <i>amiru</i> ‘hamairu’ (Gol.)
(188) <i>aparra</i> vs <i>erdii</i> ‘lerde’ (Gol.)	(168) <i>amurraie</i> <sup>112</sup> vs <i>amorraie</i> ‘amuarrain’ (Etx.)
(61) <i>egueldi</i> <sup>104</sup> ‘eguraldi’ vs <i>dembo(ra)</i> ‘denbora’ (Gol.)	(203) <i>barkamen</i> vs <i>barkazio</i> ‘barkamen’ (Etx.)
(56) <i>errementari</i> vs <i>a(r)otz</i> (Etx.)	
(182) <i>legamie</i> <sup>105</sup> ‘legamia’ vs <i>orantza</i> (Etx. & XX.)	
(12) <i>lur</i> <sup>106</sup> vs <i>zola</i> / <i>zolu</i> ‘zoru’ (Im.)	
(209) <i>morroi</i> <sup>107</sup> / <i>mutil</i> (Im.)	
(167) <i>soro landatue</i> ‘soro landatua’ <sup>108</sup> vs <i>alorra</i> (Etx.)	
(157) <i>udaberri</i> <sup>109</sup> vs <i>primabera</i> ‘udaberri, primadera’ (Im.)	

7. taula: eredu estandarra islatzen den gazteen erantzunak.

<sup>104</sup> Ikus EHHAn: [EHHA - denbora, eguraldi](#).

<sup>105</sup> Ikus EHHAn: [EHHA - legamia, orantza](#).

<sup>106</sup> Ikus EHHAn: [EHHA - lur, zola](#).

<sup>107</sup> Ikus EHHAn: [EHHA - morroi, mutil](#).

<sup>108</sup> Ikus EHHAn: [EHHA - alor, soro](#).

<sup>109</sup> Ikus EHHAn: [EHHA - primadera, udaberri](#).

<sup>110</sup> Ikus EHHAn: [EHHA - \(hi\) haiz](#).

<sup>111</sup> Ikus EHHAn: [EHHA - hamairu](#).

<sup>112</sup> Ikus EHHAn: [EHHA - amuarrain](#).



Hala eta guztiz ere, eredu estandarrari eta euskal alfabetatzeari esker, gipuzkeratik ailegatutako zenbait hitz ordeztu eta berriz nafarreraz eman ditu Etxalekuko gazteak: (104) *Nafarroa* (vs *Naparroa*), (137) *ortzadar* (vs *arkoiris*), (215) *oñutsik* (vs *ankutsik*) eta (230) *o(g)i*. Egia esateko, (137) adibidea erdi-ekialde zabalekoa da<sup>113</sup> –ez eskusiboki nafarrerarena–, eta (230) adibidea euskalki orotako hitza da<sup>114</sup>, Imotz eta inguruetan *obi* aldaera baitarabilte.

Gure ariketan eredu estandarraren eragina, gazteengan ez eze, jende helduarengan ere sumatu dugu, maiz *imotzeraz* kamuflaturik egonik ere. Izan ere, adineko hiztunak ere ohituta eta harremanetan daude aldaera estandarrarekin –komunikabideak, paisaia linguistikoa...–. Ez daiteke kasu guzietan orokortu, baina hona hemen konparaketa diakronikoa, non ikus daitekeen gazteez gain helduak ere hari lerratzen zaizkiola –nahiz eta helduen kolektiboan beti baden tokiko aldakia emanez erantzun duenik–:

HITZAK	ALDAERAK
(233) <i>guraso</i> vs <i>attama</i> ‘aita-ama’ (XX.)	(247) <i>azkena</i> , <i>azkenekoa</i> vs <i>atzena</i> (XX.)
(183) <i>mamia</i> vs <i>gaztambera</i> ‘gaztanbera’ (XX.)	(140) <i>erloju</i> vs <i>erleju</i> ‘erloju’ (XX.)
(49) <i>mikatza</i> / <i>garratza</i> vs <i>kiratsa</i> (XX.)	(127) <i>gaixotasun</i> vs <i>gaitz</i> (XX.)
(217) <i>oker</i> vs <i>makur</i> (XX.)	(38) <i>itxi</i> vs <i>ertsi</i> ‘hetsi’ (XX.)
(223) <i>parra in</i> ‘barre egin’ vs <i>irri in</i> ‘irri egin’ (XX.)	(244) <i>larogei</i> ‘laurogei’ vs <i>lauetanogei</i> ‘lauretan hogei’ (GN, I) (XX.)
(130) <i>tximiste</i> ‘tximista’ vs <i>oñazture</i> ‘oinaztura’ (XX)	(141) <i>osteun</i> ‘ostegun’ vs <i>orzeun</i> ‘ortzegun’ (GN) (XX.)
	(142) <i>ostiela</i> ‘ostiral’ vs <i>orzillera</i> ‘ortzirale’ (GN) (XX.)

8. taula: eredu estandarraren eragina egungo imotzarren mintzoan.

Aipaturiko astegunak direla eta, ohartzen gara gaur egun *-st-* kontsonante-taldea dela nagusi Imotzen –ez *-rtz-*–, baina bakarren batek eusten dio oraindik ere: (131) *ortots* –‘ostots, trumoi’–, hau da, \**ortz(i)-(h)ots*-etik heldu dena. Datu zaharragoek erakusten dute Muskitzen *ertze* (1995. urtean) eta *ortzilleria*, Etxalekun eta Oskotzen *ortzillera* eta Etxalekun *orseune* (1989. urtean) genituela, eta antzera Basaburu Nagusian, *ortzegun* baikenuen Gartzaronen (1984.

<sup>113</sup> Ikus OEHan: [OEH - ortzadar](#).

<sup>114</sup> Ikus EHHAn: [EHHA - ogi](#).

urtean), baina *osteun* darabilte gaur egun (Apalauza, 2008: 84). Hortaz, datu zaharrek erakutsi arren *-rtz-* multzoak hedadura zabalagoa izan duela Nafarroan, XX. mende hondarrerako Imotz eta Basaburuko ekialdean –baita Atetzen ere– trantsizio-aldaerak baino ez dira ageri.

Ikus dezakegunez, *-r(t)z-* multzoa erabiltzen da hastapenetatik [goi-nafarrera arkaiko eta zaharretik] Nafarroako zati nagusienean. Hala ere, Nafarroako mendebaldean iparraldetik hegoaldera zeharkatzen duen isoglosa bat dago Gipuzkoarekin eta Arabarekin muga egiten duten eskualdeak besteengandik bereizten dituena. Era berean, beste isoglosa batek Erronkari bitan banatzen du: ibarraren hegoaldean *-r(t)z* dute, aldiz, Uztarroze eta Izabak Zuberoarekin batera *-st-* dute (Reguero, 2017: 564).

Imozko herri honetan [Oskotzen] lehenago *erran* eta *esan* formak txandakatzen ziren, azkenean *esan* formak irabazi zuelarik. [...] Hiztunen arabera, forma hauek zakarrak dira, orokorrean uste izan da *esan* eta *bost* finagoak direla. Laburbilduz, esango dugu forma hauek ez direla ospetsuak eta horregatik, inkontzienteki, hiztunak baztertzeraz jotzen duela, ospe [...] gehiago dutenak hartuz (Ibarra, 1997: 65).

Muskitza joz, ikus ditzagun ondorengo etsenpluok: (222) *aaztu - atzendu* (XX.), (232) *apaiz - apez* (Im), (161) *buelatu - itzuli* (XX.), (238) *ezer - deus / dius* (Im) eta (224) *lapurtu - ebatsi* (Im). Muskiztarra gure parte-hartzailerik nagusia da baina, halakoetan, ez du kontserbadurismoz jokatu; kontrara, *Hegoaldeko batuan* nagusi den ereduari segika ihardetsi du. Hiztegiak gain, berritzaile agertu da hitz bukaerako *-a-n*: (4) *ataria*, (43) *burnia*, (195) *lixua*, (245) *milla...* Ez du, alta, beti horrela jokatu: (156) *abendue*, (187) *gernue / pixe*, (31) *ongarrie*, (174) *soñue...* Ezaugarri hori ez da egonkorra eta txandakatzen duela ikus dezakegu; izan ere, (4) galderan *edeki ataria* dugu, baina (38) galderan *ertsi atarie*. Kasu bakanetan, galdera berean eman ditu bietariko akabailak, hala nola (71) *eitegia / eitegie* edo (127) *gaitze / gaixotasuna*. MARKO TEORIKOA atalean ikusi bezala (§ 2.1.8), zahartzarora ez da beti kontserbadurismoaren adierazle: joera hori ez da unibertsala. Haatik, behin edo berriz gainontzekoek erantzuten jakin ez duten arrapostuak eman ditu naturalki, lehengo mintzoaren erakusgarri: (9) *giltza*, (220) *ingeriitten*, (7) *txirrimiste...*

#### 4.5. GAZTEEK AGERTURIKO ESTANDARRERANZKO JOERA EZ-ZORROTZA

Aitzineko puntuan aipatu dugun moduan, gazteak nabarmenago desbideratzen ari dira herriko aldaeratik arauzko eredurantz. Hala eta guztiz ere, espero izandako aukera guzietan ez dute egun indarrean den erantzun *modernoa* eman. *Item*-kopuru adierazgarri batek erakutsi du anitz alditan tokiko moldeak baliatzen dituztela edo, behinik behin, ezagutzen dituztela.

Gazteek eraldatzeko aukera zuten hainbat forma *kaltebera* gisa sailkatu ditugu: zehatz-mehatz, bereziki aldatzeko posibilitate handiko 25 hitz eta aldaera aurreikusi ditugu. Hauexek, hain zuzen:

HITZAK	ALDAERAK
(54) <i>a(a)te</i> ‘ahate’	(240) <i>amaika</i> ‘hamaika’
(78) <i>anka</i> ‘hanka’	(241) <i>amairu</i> ‘hamairu’
(120) <i>azal</i>	(148) <i>apiril</i>
(160) <i>eunsenti</i> ‘egunsenti’	(75) <i>arratoi</i>
(41) <i>esnatu</i>	(4) <i>ate</i>
(238) <i>ezer</i>	(218) <i>barru(a)n</i>
(127) <i>gaixotasun</i>	(36) <i>bezain</i>
(33) <i>igeltsero</i>	(115) <i>enara</i>
(231) <i>jolastu</i>	(220) <i>i(g)eri e(g)in</i>
(224) <i>lapurtu</i>	(164) <i>marrubi</i>
(12) <i>lur</i>	(175) <i>masalle</i> ‘masail’
(131) <i>trumoi</i>	(163) <i>masuste</i> ‘masusta’
	(113) <i>na(a)stu</i> ‘nahasi’

9. taula: hiztun gazteendako *kalteberak* generitzen hitz eta aldaerak.

Deigarria da hogeitazkoaren eta hogeita hamar urte ingurukoaren arteko aldea. Esan bezala, zenbat eta gazteago, hainbat eta handiago nagusi den euskara estandarrekiko eragina. Izan ere, 25 forma *kaltebera* horietatik gaztetxoak 10etan (% 40) ez digu tokiko hitza edo aldaera eman: (12) *lurre*, (36) *bezain*, (78) *anka*, (120) *azala*, (175) *masalle*, (33) *igeltseroa*, (115) *enara*, (160) *eunsentia*, (163) - eta (164) *marrubie*. Hamarkada bat nagusiagoak diren gazteek, ordea, zerrenda horren lehen erdia ere ez dute tokiko moldean eman (% 20), baina bigarren erdia bai: (33) *kisuskilli* / *kisuskiyi*, (115) *txirriñe*, (160) *argixtin*, (163) *matuste* eta (164) *malubi*.

Zehazki esanda, honako aurreikuspen hauek ez dira bete; ez eskuineko ez ezkerreko zutabekoak:

HITZAK	ALDAERAK
(54) <i>a(a)te</i> ‘ahate’	(148) <i>apiril</i>
(41) <i>esnatu</i>	(75) <i>arratoi</i>
(238) <i>ezer</i>	(4) <i>ate</i>
(127) <i>gaixotasun</i>	(218) <i>barru(a)n</i>
(231) <i>jolastu</i>	(220) <i>i(g)eri e(g)in</i>
(224) <i>lapurtu</i>	(113) <i>na(a)stu</i> ‘nahasi’
(131) <i>trumoi</i>	(240) <i>amaika</i> ‘hamaika’
	(241) <i>amairu</i> ‘hamairu’

10. taula: bete ez diren aurreusteak, gazteen mintzoari dagozkionak.

Gogoan izan dezagun 25 hitz *kaltebera* gisa etiketatu ditugula, gazteek eraldatzeko aukera handia zutenak, gure hipotesien arabera. Horietarik 15 ez dituzte aldatu; hots, % 60. Hori dela eta, ezin esan dugu elkarriketaturiko gazteek estandarrezko berdintze-joera lasterra erakutsi dutenik, erdibidekoa baizik.

#### 4.6. GAZTELANIAREN ERAGINA

Gaztelanitik hartutako mailegu anitz ditu Imozko euskarak, eta lehenagoko zein oraingo hitzunek naturalki erabiltzen dituzte: (221) *akordatzen*, (185) *desayunoa*, (40) *ja(b)ona*, (173) *karakola*, (214) *karga*, (28) *kuartoa* / *abitezioa*, (186) *be(e)ndatu* / *be(e)ndu*, (207) *pariente*, (157) *primabera*, (73) *seko* / *sekatuik*, (219) *tapa*, (15) *undittu* eta abar.

Gazteleraren eragina, edonola ere, desberdin azaltzen da gazte eta adinekoengan gaur egun. Gazteei dagokienez, maiz erabiltzen ez duten hiztegia dela iruditzen zaigu, edo/eta inkestatzaileok gaztelaniazko forma eman baitiegu, halaxe eman dute haiek ere: (188) *baba* (Etx.), (58) *bajille* (Gol.), (91) *kapaz* (Etx.), (211) *karpintero* (Etx.), (55) *mareatuik* eta (78) *pantorrille* (Gol.), tokiko doinu bereizgarrian eta zenbait ezaugarri dialektalez egokiturik badaude ere.

Aldiz, jende nagusiaren kasuan, gaztelaniaz eman dituzten hitz asko ohikotasunean erabilitakoak dira, txikitatik gaztelaniaz barneratu dituztenak –eta halaxe transmititu

ondorengoei—. Horren adibide dira (44) *anilloa*, (73) *arbola / flore / planta*, (137) *arkoiris*, (156) *diziembre*, (145) *eneroa*, (146) *febreroa*, (20) *entra(a)*, (151) *julio*, (150) *junio(a)*, (183) *kuajada*, (198) *kune*, (182) *lebadure*, (196) *lejia*, (202) *monagilloa*, (155) *nobiembre*, (99) *palillo*, (207) *pariente*, (169) *peska(d)u*, (153) *setiembre* eta (154) *o(k)tubre*, baita Goldarazko (56) *errero*<sup>115</sup> eta Muskizko (155) *golondrina*<sup>116</sup> ere. Azken honetan, gisa berean, inongo dudarik egin gabe gazteleraz eman dute den-denek: (54) *pato*.

Arestiko adibide-zerrendari helduz, azpimarratzekoa da joan den mendeko lekukotasunek euskal formak dakartzatela. Ikus ditzagun: (156) *abendue*, (207) *aide*, (169) *arrai*, (155) *azaroa*, (44) *eaztune*, (20) *eskaratza*, (150) *ga(rag)artzaroa*, (183) *gaztambera*, (145) *izotzille*, (137) *jainkoam / jangoikuam paxa*, (151) *garille / uzta*, (154) *lastalle*, (196) *lix(u)ondoa*, (202) *meza lagun(t)zalea*, (182) *orantza*, (146) *otsa:lle / otxaille*, (198) *seaska* eta (153) *urrie*. Aipatu beharretan gaude zenbait adibidetan erdal forma ere ageri zaigula –euskal formekin batera– XX. mendeko inkestetan ere: konkretuki, (44), (198) eta (207) *itemetan*. Orduantxe hasia zen gaztelania toki gehixeago hartzen Imotz bezalako gizarte txikietan.

Orain arte azaldutakoa frankismoaren abaroan esplikatzen ahal dugu. Aintzat har dezagun adineko elkarrizketatuak urte frankistetan jaio zirela, eta diktaturak Sánchez Carrión “Txepetx”-ek (1972) deituriko *castellanización*<sup>117</sup> prozesua areagotu zuela. Handiagotu; izan ere, euskararen ospe-galtzea lehenagotik zetorren:

Uno de los factores determinantes [la Iglesia], pero desde luego no el único. El retroceso del euskera venía siendo vertiginoso desde finales del XVIII. Según Jimeno Jurío, las razones principales hay que buscarlas en la obligatoriedad de la enseñanza escolar en castellano y en el hecho de que maestros, escribanos y otros profesionales, incluidos muchos sacerdotes, no supieran o no quisieran hablar en euskera, que pasó así a ser una lengua relegada al mundo rural, con las connotaciones de desprestigio social que esto conllevaba (Dronza, 2007: 272).

Gaztelaniaren ofizialtasuna 1931eko Konstituzioan aldarrikatu zen aurreneko aldiz [...], baina aitorten berantiar horrek ez du esan nahi ordura arte gainerako hizkuntzekiko eskuzabaltasun handiagoaz jokatu zutenik. Alderantziz. [...] Ezagunak dira, konstituzioetan islatu ez baziren ere, lege-maila apalago batean XVIII., XIX. eta XX. mendeetan gaztelaniaren alde eta bestelako hizkuntzak erabiltzea esparru jakin zenbaitetan [...] debekatuz eman ziren agindu, dekretu eta gainontzeko neurriak (Erize, 1997: 371-372).

La cuestión [...] no se ha reducido a la simple marginación, sino que ha habido una política de prohibición sistemática. El empleo del anillo o un objeto similar ha sido práctica habitual. [...]

<sup>115</sup> Apalauzaren hitzetan: “Imozko Goldaratzen eta Erason, *errero* erabiltzen da eskuarki; ez dute *arotz* hitza ezagutzen. Imozko gainerako herrietan, aldiz, *a(r)otz* da ohikoa” (2010: 430).

<sup>116</sup> Izan ere, Oskotzen eta Muskitzen *golondrina* esaten dute (Apalauza, 2010: 445).

<sup>117</sup> “Castellanización significa introducción del castellano, no pérdida del vasco. Cuando aquella ocasiona ésta, la castellanización es entonces también deseuskerización” (Sánchez Carrión, 1972: 25).

Parece ser que ese sistema pedagógico entró en vigor a raíz del decreto de Nueva Planta, en 1716. [...] El castigo de la escuela se ha completado a menudo con la tarea impuesta por los maestros a los padres de los alumnos. Un ejemplo [...] de la Burunda [:] la profesora del colegio [...] había explicado a sus padres que la razón del bajo rendimiento académico se debía al escaso dominio del castellano, por lo que era conveniente que en lo sucesivo hablasen siempre en esa lengua (Zuazo, 2010: 28-30).

Dena dela, euskal kulturaren aurkako jarrerak frankismora arte ez ziren finkatu [...]. Euskararen aurkako, edo erdararen aldeko, jarreraren erantzukizuna, beraz, ez zaio zuzenean nabarrismo politikoari [1915etik aurrerako ideologia, euskal nazionalismoaren kontrakoa, zeinetan *Diario de Navarra*-k protagonismo handia izan zuen] egotzi behar, baina honen garapen eta finkatze prozesuan euskal kulturarekiko urruntasunaren isla aurkitzen dugula ukaezina da (Erize, 1997: 377-378).

En 1975 tras la muerte en la cama del dictador español Francisco Franco, [la población vasco parlante] no pasaba del 20-25% y ya no había monolingües en euskera pero sí un 80% de monolingües en castellano [...]. El último gran mazazo al euskera vino del franquismo, que no se conformó con prohibir su enseñanza, sino que incluso prohibió hablarlo intentando completar el lingüicidio y nacionicidio, acuñando frases como: “español, habla la lengua del Imperio”. El nacionalismo español siempre ha concebido su España como monolingüe, lo mismo que el francés [...]. Con el franquismo desaparecieron los euskaldunes monolingües tras unos 20.000 años (Gezuraga, 2010).

Frankismoak euskararen prestigio-eza zorrotzu zuen, eta debekatu. Erizek dioen gisan, jakina da “Espainiako Gerra Zibilak euskal kulturaren bilakaeran eta, noski, Nafarroako euskararen historian, eragin zuen etena” (1997: 34). Horren adierazle dira Nafarroako euskal hizkuntz komunitatearen bilakaeraren datuak: 1863. urtean % 30, 1935. urtean % 17 eta 1991. urtean % 10 (Erize, 1997: 268). Ildo beretik, “Txepetx”-ek ahotara ekartzen du Nafarroako hainbat herri euskaldun izatetik erdaldun izatera iragan zirela bat-bateko trantsizio latz batean (Sánchez Carrión, 1972: 59). Elizaren eta Eskolaren eskuak berebiziko garrantzia izan zuen erdalduntze-prozesu horretan, Javier Drondak dioskun moduan: “En última instancia todo dependía de la actitud de cada párroco. Así, según los casos, se podría acusar a la Iglesia de promover el euskera o el castellano” (2007: 271). Nolanahi ere, jakin, badakigu gure hiru herrietan mezak euskaraz mantendu zirela Espainiako Gerra Zibila aitzin (Dronda, 2007: 291), nahiz eta: “Hubo un cambio importante después de la guerra civil, siendo muchos los lugares en los que hasta entonces se había predicado siempre en euskera y a partir de entonces se haría en castellano” (2007: 296). Katiximari dagokionez, gaineratzen du: “Por lo que respecta a la enseñanza del catecismo, parece más habitual la presencia del castellano que en la predicación. Quizá por influencia de la escuela, donde siempre se enseñaba el catecismo en castellano” (Dronda, 2007: 295). Gure eskualdean eskolak ahalmen eztabaidaezina izan zuen haurren erdalduntzean. Hainbat adituren hitzak ekarri nahi izan ditugu, horren erakuskari:

[...] Nire gaztaroan, Imozko Eraso, Oskotz, Latasa eta Urritza [...] erdalduntzat genituen, bertan jende asko euskalduna izan arren. Muskitz, Zarrantz, Goldaratz eta Etxaleku berriz, Imozko

herri euskaldunak ziren. [...] Inguruko herri askotan haurrak erdaraz hasi ziren berrogeiko hamarkadan, Etxalekun berriz, euskaraz bizi ginen [...] eskolako hizkuntza erdara bazen ere. Horixe zen gaztelania, eskolako hizkuntza eta euskaraz ez zekiten erdaldunekin aritzeko hizkuntza. [...] Eskolako ikasketak ongi egiteko, zailtasunik gabe, euskara jakitea oztopotzat zeukaten frankok, maisu-maistrek horrela esanik (Aleman, 2008: 6).

En Lesaca el vascuence es todavía usual. Los niños son ya sin embargo pseudobilingües castellanófonos, pues pierden el vasco durante la escolarización (Sánchez Carrión, 1972: 109).

Los niños de Echalecu han comenzado a hablar entre ellos el castellano en la calle de un año a esta parte. Han pasado así de un pseudobilingüismo a un bilingüismo. Pero el euskera tiene todavía bastante fuerza entre ellos al ser, excepto en dos familias, lengua obligada en el ámbito familiar. [...] Muzquiz es localidad de predominio del idioma eúskaro [...]. Los críos también lo hablan, en la edad escolar, si bien entre ellos de 5 años a esta parte han comenzado a utilizar el castellano. [...] Aunque el idioma usual de todos, excepto la maestra, es el vasco, no quedan personas que sepan exclusivamente el vasco (Sánchez Carrión, 1972: 158-160).

La escuela. Es el principal [factor de castellanización], pero no es el único. El castellano ha comenzado siempre a introducirse por aquí pero sin la interferencia de otros factores la castellanización raramente ha sido deseuskeringización. Si el ambiente es cerradamente euskaldun el niño siempre vuelve al vasco; si es bilingüe ya no y entonces la impronta de la escuela es tan decisiva que en la mayoría de los casos los chicos ya no recuperan el vasco. A veces el odio maniático con que los maestros han tratado de extirpar el vascuence en los niños ha producido los resultados desastrosos para el euskera que cabía esperar (Sánchez Carrión, 1972: 199).

Guztiarekin ere, Imozko etxeetan gero eta ezagunagoa duten euskara estandarrari esker, eta, nola ez, euskal alfabetatzeari esker, aurreko mende(et)an erdaldundutako euskal hitz batzuk bueltatzen ari direla dirudi: (169) *arraye*, (44) *e(r)aztun*, (226) *jantzi*, (198) *seaska*... bai eta hilabete batzuen izena ere, hala nola (156) *abendue*, (155) *azaroa*, (146) *otsaille / otsaye* eta (151) *uztaille*.

Azkenik, hiztegiak gainera, gure emaitzetan erdal eragina bestelako mailetan identifikatu dugu. Erdal kalkoetan bakarra bildu dugu: (255) *nola eztakin, eztu esain* (Etx). Gaztelaniazko hurrenkerari dagokionez, beste bi hauek: (234) *dugu zuk baño geiago* (Mus) eta (235) *dute guk aña dirua* (Mus). Halakorik ez da ageri XX. mendeko ihardespentetan.

#### 4.7. TERMINO ZAHARKITUAK, AHANZTURAREN OSINEAN

Nabarmena da duela mende erdiko lexiko franko ez dela honezkero erabiltzen –bizimodua ere ez baita bera–, edo termino berriagoekin ordezkatu dituztela, aurreko ataletan aztertu bezala. Gazteek estandarrarekiko berdintze-tasa adierazgarriena badute ere –nahiko apala, edonola ere–, tokiko hainbat ezaugarriren galera helduengan hasten da.

Aldagai lexikalari behatu diogu eta horixe da, hain zuzen ere, arinen eta bizien berdintzen hasten dena. Elkarrizketatutako jende nagusia izen zaharrez oroitzen da, gehienetan; gazteendako, aldiz, sekula aditu gabekoak dira horietako batzuk. Gure ikerketak, berebat, berretsi egiten du orokorrean adinduak kontserbatzaileagoak eta gazteak berritzaileak diren ideia.

Jarraian, gazteek ezagutzen edo barneraturik ez duten hiztegia ekarriko dugu. Anitz lehengo bizimodu edo betebeharrekin lotura duten eleak dira: (56) *a(r)otza*, (188) *erdea*, (13) *erte / lertu*, (201) *eskuazpie*, (150) *garagarzaroa*, (151) *garille*, (183) *gaztambara*, (187) *gernu*, (145) *izotzille*, (194) *ke(d)arra*, (49) *ki(r)etsa*, (154) *lastalle*, (195) *lixu*, (111) *makarrak*, (175) *matalle*, (182) *orantza*, (30) *txapitela*, (7) *txirrimiste*, (184) *urriñe*, (153) *urrie* ('iraila'), (176) *urriñe* eta (12) *zola / zolue*. Horietako batzuk zeharo ezezagunak zaizkie eta beste batzuk, berriz, aditutakoan gogorarazi dituzte. Hilabeteen izenei dagokioenez, maiz helduek berek ere ez dituzte ezagutzen.

Gazteenari beste hauek gehitu behar zaizkio: (167) *alorra*, (124) *ansarona*, (24) *aska / aspille*, (69) *baru(r)ik*, (26) *bizitze*, (43) *burnie*, (20, 21) *ezkaatza / kalzada*, (9) *giltze*, (88) *kolkoan*, (118) *larra*, (164) *matxutxe*, (202) *meza launtzalea*, (87) *ollanda*, (63) *ooldi(g)oa*, (9) *soliboak*, (10) *zure* eta (211) *zurgiñe*. Goldarazko gazte bati, berriz, (58) *untzik* okurritu ez eta gaztelaniara jo du kasu horretan. Ikus dezakegunez, bada aldea hamarkada batean ere. Hori hala izanik ere, lañoki gehituko dugu oso kontuan hartu behar ditugula norbanakoaren mugak (§ 4.8), eta hizketa axolagabean naturalki botatako adierazpideak baliteke presiopeko momentu batean ez okurritzea.

Emaitzek, ezagun da, hizkuntz aldaketaren inguruko informazioa ematen dute. Jende nagusiaren artean oso hedatuta dagoen forma jakin bat gazteen artean ia azaltzen ez baldin bada, orduan esan daiteke forma hori erregresio prozesuan dagoela: baliteke desagertzea edo, horren orde, beste forma bat zabaltzea –aurreko puntuetan ikusi dugunez–, segur aski belaunaldi gazteek bultzatutako berrikuntza. Haatik, gerta daiteke berrikuntza muturrean dagoen taldetik etorri beharrean, erdian dagoenak bulkatua izatea. Edo nagusien artean franko normalak diren formak erdiko taldean gutxituz joatea, eta berriz ere gazteen artean berpiztea: (251) *oñutsik*. Halako kasuetan, ez da erraza jakitea datuek benetako aldaera baten berri ematen duten ala gertatuko den hizkuntza-aldaketaren zantzuak diren (Martínez, 2010: 105-106).



Beha diezaiegun, azkenik, kasik galdurik dauden hitz eta aldaera batzuei, eta galdutzat har ditzakegun beste batzuei. Dirudienez, hitzak aisekiago ordezkatu dituzte imoztarrek, baina aldaera-kopurua ere ez da makala. Muskitzek hasten du, argi eta garbi, ahanzturara kondenaturikoen zerrenda: salbu (20), (49), (137), (141), (142), (153), (183) eta (226-aldaera) adibideak, gainerakoak Muskitzi dagozkio.

Zaharkiturik gelditzen ari diren formak		Galduak dauden formak	
HITZAK	ALDAERAK	HITZAK	ALDAERAK
(161) <i>arratsean</i>	(247) <i>atzena / atzenekoa</i>	(197) <i>asporie</i> ‘begizta’	(254) <i>beño</i> ‘baina’
(226) <i>beztittu</i> ‘beztitu’	(162) <i>bago</i> ‘pago’	(145) <i>izotzille</i> ‘izotzil,	(208) <i>neskako</i> ‘neskatxa’
(20, 21) <i>ezkaatza</i> ‘ezkaratz’	(227) <i>biluxi</i> ‘biluzi’	urtarril’	(209) <i>neskato</i> (GN, I)
(21) <i>galtzada / kalzada</i>	(232) <i>erran</i>	(150) (g) <i>aartzaroa /</i>	(141) <i>orzeune</i> ‘ortzegun’
(183) <i>gaztambera</i>	(220) <i>ingeriitten /</i>	<i>gara(g)arzaroa</i>	(142) <i>orzillera</i> ‘ortzilrale’
‘gaztanbera’	<i>ingiritten</i> ‘igeri egiten’	‘garagarril, ekain’	
(9) <i>giltze</i>	(243) <i>iruetanogei</i>	(151) <i>garille</i> ‘garil,	
(137) <i>jainkoam /</i>	‘hiruretan hogeï’	uztail’	
<i>jangoinkoaren paxa</i>	(226) <i>jauntzi</i> ‘jantzi’	(154) <i>lastalle</i> ‘lastail,	
‘ortzadar’	(244) <i>lauetanogei</i>	urri’ (GN)	
(42) <i>kanaita / kanebite</i>	‘lauretan hogeï’		
‘ganibet’	(163) <i>mastutxe</i> ‘martutz,		
(49) <i>kietsa / kiratsa</i>	masusta’		
(221) <i>o(ro)itzen</i>	(158) <i>udondo</i> ‘udazken’		
(30) <i>txapitela</i>	(105) <i>yaiz</i> ‘haiz’		
(7) <i>txirrimiste</i>			
(55) <i>txoratuik</i> ‘zorabiatuik’			
(184) <i>uriñe</i> ‘urin’ (GN, I)			
(153) <i>urrie</i> ‘irail’			

11. taula: bateko, forma zaharkituak eta, besteko, gaurgero galdurikoak.

Atentziona ematen du identifikatutako formen % 77 inguru Muskizko orain arteko euskarari zegokiola.

#### 4.8. UNEAN UNEKOAREN MUGAK ETA IDIOLEKTOA

Oso presente izan behar dugu inkestatuari une jakin horretan okurritutako emaitzak bildu ditugula: hau da, baliteke behin baino gehiagotan elkarrizketatuak zernahi erantzun eman izana, zehatz-mehatz galdetzen zitzaionari mugatu gabe; edo, bestela, argialdirik gabeko momentu batean suerta daiteke eta batere erantzunik ez eman, nahiz eta normalean delako hitza erabili. Horrexegatik, ez ditzakegu eskuratutako datuak egia biribiltzat har, ez eta orokortu ere: momentu zehatz bateko burutapenak dira.

Horrez gain, pertsona orok idiolektoa du, ezaugarri bereziak eta apartekoak, mintzatzeko nork bere estilo propioa, inkontzientea betiere. Alde horretatik, gizabanako bakoitzak berezko aldaerak ditu. Aldakortasuna maila indibidualean ere sumatu dugu, beraz. Begira diezaiegun (6), (18), (22) eta (33) adibideei; Goldarazko gazteen zutabean (6) *manille / maniyera*, (18) *pillari / piyari*, (22) *ikullu / ikuyu* eta (33) *kisuskilli / kisuskiyi* ditugu –elkarren senide dira eta *yeismorik* gabeko ereduak jaso dute aita-amengandik–. Bi hitz /ll/ fonema zaharraz: adinekoen elean bizirik dirauen hotsa da, baina gainbehera ikus daiteke gazteen hizkeran *yeismoa* dela eta, hau da, /y/ hotsaren nagusitasuna: *atorriyune* (114), *ikuyu* (22), *iru paliyo* (99), *iye da* (89), *iyuntzeako* (161), (8) *l(e)atiye*, *miye* (245), *oyoak* (87), *aniyoo* (44), *koapiyoo* (197) eta abar. Imozko adibidea ez da kasu isolatua: oro har eremu zabalago batean gertatzen ari den ordezkatzeari da, gazteak albokari palatala egiteko gaitasuna galtzen ari dira, eta gehienetan hautematekoa ere bai.

Besterik da hautu kontzienteen auzia. Hiztuna erabakitze gaitasunaz baliatzen da eta hautaketa kontzienteak egiten ditu. Gertatu izan da, bi erantzun ageri diren *itemetan*, hiztunak horietako bat tokiko forman ematea, ezaguna duelako, baina egiaz bestea erabiltzea, hots, “kanpokoa”. Bere burua zuzentze horren erakusgarri dira, besteak beste, gazte etxalekuarraren (72) *artzañe & artzaye*, (212) *gaixotue & gaizki*, (38) *itxi & ertsizazu*, (135) *odeye & kalma* eta (169) *arraye & peskadue*; eta goldaraztar gazte baten (222) *aztu & atzendu*, (224) *ebastu & ebatsi*, (233) *gurasoai & attetaamai* eta (139) *tximiste & ñazture*. Orobat gazte guziek holaxe jokatu dute (140) *itemean*: *erloju & erleju*. Gazteriaren adibideak ekarri ditugu baina jokamolde hori adinekoek ere agertu dute: gutxiagotan, dena den, beren hizkeraz ziurtasun handiagoa duten irudipena baitugu –muskiztarrak izan ezik–.

## 4.9. HITZ BAT, HAINBAT ADIERA

Zenbaitetan hitz berak eremu geografikoaren araberrako esanahia hartzen du: hurbila baina ezberdina. Honako bitxikeria dugu gaztelaniazko *cuchillo* eta *navaja* (42) galderan, adibidez: muskiztarrarendako lehena *kanaita* da –eta hala zen bere aitaxirendako ere–, eta bigarrena *labana*; aldiz, etxalekuar baten ikuspuntutik, alderantziz da. Halaz guztiz, *kanebita* / *laban* bereizketari dagokionez, Apalauzak dio hitzun guziak ez datozela bat hitzaren esanahia azaltzeko orduan (2010: 423).

Kilometro gutxian, beraz, hitz berberak adiera ezberdina izan dezake, nahiz eta eremu semantiko berekoak diren gehienetan. Joan den mendeko etxalekuarrentzat gaztelaniazko *entrada* (20) *eskaratza* zen; aldiz, goldaraztar batek hori bera ihardetsi du *suelo empedrado* (21) galderan –*ezkaatza*–. Aztertu beharko genuke enuntziatua nola eman zen joan den mendean, apika bi informatzaileek kontzeptu berberari erreferentzia egin ziotelako, baina inkestagileek desberdin hauteman<sup>118</sup>.

Ildo beretik, (112) *atzaparra* hitzak etxalekuarrentzat gazt. ‘manazas’ zentzua du, hots, zentzu zakarra, baina muskiztarrarentzat *beatz guziek* dira, eta goldaraztar baten ustez, berriz, animaliena izendatzeko balio du. Etxalekun (114) *nabarra* adjektiboa ‘ilun samarra edo zikintzeko erraza’ ulertzen dute eta Goldaratzzen, alderantziz, gaztelaniazko ‘estampado’. Kasu horretan, hitz berak aurkako esanahia du. Bestalde, Muskitzen (176) *urriñ* hitzak ‘usain goxoa’ zein ‘zikina’ adierazten du, eta Goldaratz ez besteko Imozko herrietan, ordea, ‘usain goxoa’ da *urriñ* eta ‘zikina’, berriz, *usai* (Apalauza, 2010: 426). Goldaratzzen denak dira *usai* (*idem*).

Aipaturiko horiek aski argiak dirudite oro har, baina beste kontzeptu batzuen aurrean nahas-mahas ederra dago, (115) *iñarea* / *txirriñe* galderan kasurako. EHHaren arabera, gazt. ‘golondrina’ eta ‘vencejo’-ren artean nahasketa handia dago: “Gertatzen da galdera honetako hegatzia eta ondoko galderakoa ‘vencejo / martinet’ ez dituztela ongi bereizten lekuko guztiek” –ikus [EHHa - enara](#)–. Ibarrek ere hori bera dio: “askotan, hurbil dauden bi terminoren arteko bereizketa falta gertatzen da, batzuetan ezagutzen ez delako izan daiteke. Esaterako, *txirriñe*

---

<sup>118</sup> EHHak honela planteatu zuen, gutxi gorabehera: ‘ate inguruko lekua, sartu eta jarraian dagoena: gaztainak, suegurra, gurdia eta baserriko hainbat tresna uzteko lekua, baita garia ere’ ([EHHa - ezkaratz](#)). Hori esanda, eskualdean *ezka(r)atza* ageri da nagusiki, baina oharretan ikus dezakegunez, etxalekuarrek *etxe kaltzada* erantzun zuen. Ematen duenez, gure (20) eta (21) *itemak* hurbil samarrak dira hitzunen ikuskeran.

erabiltzen da hiru izen hauek bereizteko ‘vencejo, golondrina eta avión’ (1997: 127)”. Apalauzak eranstean du: “Oskotzen eta Muskitzen, hala ere, esan digute ez direla gauza bera *golondrina* eta *txirriñe*; *golondrina* zuri-beltza izaten da, eta *txirriñe*, berriz, beltz-beltza” (2010: 445). Elhuyar hiztegian ‘vencejo’-rendako *txirrin* dugu –ikus [vencejo - Diccionarios Elhuyar](#)–. Hartara, irudipena dugu ez dela atzo goizekoa gazt. ‘golondrina’ eta ‘vencejo’-ren arteko nahastea eta, ziurrenera, herritarren ikuskera aldatu egiten da alde eta norbanako batetik bestera.

*Ukuilu* eta *behitegi* hitzen arteko zalantza-dantza ere nabaritu dugu. Jo dezagun (19), (22) eta (25) *itemetara*: gazt. ‘planta baja’, ‘cuadra’ eta ‘cuadra de vacas’, hurrenez hurren. Etxalekuarrek denari *beittie*<sup>119</sup> deitzen diote, berriemaile muskiztarrak denari *ukullu*, eta goldaraztarrek bereizi egiten dute: lehenari *beittii* oro har, eta bigarrenari eta hirugarrenari *ikullu*. Orobat (120) *itemean*, XX. mendeko berriemaileek *larru* erantzun zuten, eta gaur egun *azal* eta *larru* bildu dugu Etxalekun: lehena gorputzekoa dela diote eta bigarrena gazt. ‘cuero (animal)’. Halakorik ez dute pentsatzen gainerako adindunek. Antzeko ezadostasuna sumatu dugu (228) galderan: gazt. ‘encontrar’ galdegin eta batzuek *aurkittu / opatu / upatu* ihardetsi dute, eta beste batzuek *billatu / billetu*. Afera da XX. mendeko erantzunetan ere gauza bera dugula, bietarik, alegia.

Finean, gogora ekar ditzagun sinonimiaren inguruan esandakoak (§ 2.1.6):

Aldagai lexikoak aztertzean ere lehenengo zailtasuna hitz bi baliokideak diren ala ez frogatzea izaten da. Sinonimorik egon dagoen ala ez erabakitzeko eztabaida sarritan sortu izan da hizkuntzalarien artean. Gerta daiteke, eta gertatu egiten da, esanahi lexiko berbera duten bi esapidek, hau da, errealitate berbera adierazten duten bi hitz edo hitz multzok, esanahi pragmatiko ezberdina izatea (Martínez, 2010: 97).

#### 4.10. SENEZ SORTZEKO GAITASUNA

Aipatzekoa iruditzen zaigu hiztunek logikoki sortzeko erakutsi duten ahalmena: hitz espezifikoa ezagutu ez, baina dedukzioz jokaturako proposamenak egin dituzte, batzuetan onik atera eta berezko hitzari asko hurbildu zaizkionak. Zuazok aldarrikatzen duen senez sortzeko gaitasuna datorkigu burura (2000: 132-133). Inkestatuetan gaztetxoaren erakusbideak dira hauek: (13) *austure (zirriku, lertue)*, (17) *itxetartea (itxekertea)*, (69) *jan gai (baruik)*, (88)

---

<sup>119</sup> ‘Behitegi’ nahiz ‘beheiti’ izan daitekeena, bidenabar esateko.

*lepotiken bera (kolkoan), (117) ollalume, (23) pentsutegie (ganbela), (32) zazi egurrek eske (egurtokie) eta abar. Denek jo dute behin edo beste estrategia horretara: adibidez, den-denek suposatu –eta asmatu– dute (200) eskugañe, pare batek (201) eskuazpie eta beste batek eskupea. Estalkiari (219) estalie deitu dio muskiztarrak, eta zotzari (99) ortz makilla.*

## 5. ONDORIOAK

Hondarreko atalean azterketaren emaitzen irakurketa eginen dugu, bibliografia orokorraren argipean. Hasmentako hipotesiak baieztatu ala ezeztatuko ditugu kasuan-kasuan. Lanari lotutako gaiak landu eta ondorio nagusiak aipatuko ditugu. Etorkizunari begira ere gogoetatuko dugu eta, azkenik, aditzera emanen ditugu lanaren ekarpenak.

5.1. ONDORIO NAGUSIAK. 5.1.1. ADITUEN ESANAK. 5.1.2. EMAITZEN IRAKURKETA. 5.1.3. HIPOTESIAK. 5.1.4. ALDERDI EZTABAIDAGARRIAK: INKESTAREN ARGILUNAK. 5.1.5. GERORA BEGIRA: EGITEKO DAUDEN ZEREGINAK. 5.1.6 PARTE-HARTZAILEEI ESKERRAK. 5.2. LANAREN EKARRIAK. 5.3. AKABERA.

### 5.1. ONDORIO NAGUSIAK

#### 5.1.1. Adituen esanak

Dakigunez, hizkuntzak berezkoa du aldakortasuna, ez da betiko geldirik dagoen izaki perfektua; ekintza da hizkuntza, ez emaitza bukatua (Camino, 2009: 32). Lan dialektologikoa da honakoa: geron jakin-mina hiztunen arteko ezberdintasun lexikaletan egon da eta, batik bat, arrazoi linguistikoetan –zehazki, hizkuntz bariazioan eta aldaketa linguistikoan– (Francis, 1983: 7-9).

Dialektologia eta Soziolinguistika eskutik helduta doaz, eta lan hau *soziolinguistika bariasionistan* kokatu dugu. Ikasi dugu, honezkero, Dialektologiak hizkuntzaren aldaerak aurkitzen, deskribatzen eta sailkatzen dituela, eta aldakortasunaz Soziolinguistika arduratzen dela (Camino, 2009: 259). Dakigunez, Labov aitzindari izan zen hizkuntza eta gizartea lotzen, lengoia ezin aztertu baita gizarte testuingurutik eta hiztunengandik bereiz. Ideia horrez gain, erakutsi digu bariazioa berezkoa zaiola hizkuntz egiturari eta, López Moralesek dioen gisan, aldakortasun linguistikoak korrelazio handia du hizkuntza- eta gizarte-faktoreekin (1989: 183). Bariasionisten arabera, hainbat aldaeraren atzean motibazio soziala dago.

Azterturiko hizkuntz aldagaia *lexikoa* izan da, *adina* aldagai sozialaren arabera: alegia, lan bariasionista honetan, belaunaldien arteko aldaera lexikalei erreparatu diegu. Izan ere, aldaketa linguistikoaz ohartzeko egoki da lekuko zaharrak eta gazteak baliatzea, hizkuntza nora mugitzen ari den ikusteko (Camino, 2009: 302). Belaunaldi-estratifikazioak bariazioaren martxa adierazten du: belaunaldi gazteak berritzaileagoak izaten dira, adinekoen kontserbadurismo linguistikoaren aldean; era berean, gazteak forma berritzaileekiko sentikorragoak dira, eskolatze-indizeak altuagoak direlako (López Morales, 1989: 114-115).

Zer bilatu dugu bariazio lexikoa aztertzean? Bada, forma lexiko batzuen –normalean substantiboen, aditzen edo adjektiboen– erabilera txandakatua azaltzea, baldintza linguistiko eta estralinguistiko jakin batzuetan.

Hitzen migrazioa bistakoa da, eta saihetsezina: hain zuzen, Imozko euskarak –euskarek– mende erditsuan izandako zenbait aldaketa bildu ditugu. Ikerketaren asmoa izan da egiaztatzea eta agerian jartzea Imozko mintzaira(k) aldatu eta une oro aldatzen ari d(ir)ela hainbat faktoreren eraginez. Gure kasuan, ondokoen eraginak du indar gehien Imozko hiztunengan, gazteengan batez ere: batasunaren oihartzunak eta gaztelania ezartzeak. Biok kausa estralinguistikoak dira; gizarteari eta kulturari dagozkie. Kanpoko faktoreez gain, zeharbidez sendotu dugu eragile intralinguistikoek ere aldaketa linguistikoa dakarten ideia, hala nola faktore psikologikoek. Hitzunek egiten dituzten balorazioek hizkuntza-aldaketaren oinarrian daude. Berandu gabe emanen ditugu zehaztasunak (§ 5.1.2).

Hizkera-erkidego baten barrenean aldaketa linguistikoak gertatzen hasten direnean, geografikoak eta sozialak diren eragileak lehian egon ohi dira: halaber, hizkera baten barreneko berregituraketa eragin duten hizkuntza-aldaeren arteko lehia dago (Camino, 2005: 177). Ezagun denez, maila lexikoko aldaketak, alde batetik, errealitatea adierazteko forma bat beste batek ordezkatzeko duenean gertatzen dira; eta, beste alde batetik, kontzeptu berriak edo berezituak adierazteko beste hizkuntza bateko hitzak mailegatzeko direnean (Martínez, 2010: 122-123). Jende nagusiaren artean oso hedaturik dagoen forma jakin bat gazteen artean ia azaltzen ez bada, orduan esan daiteke forma hori erregresio prozesuan dagoela. Hori aintzat hartuz, gerta daiteke (21) *galtzada* / *kalzada* eta (195) *lixu* hitzak desagertzea. Baliteke, bestenaz ere, beste forma bat zabaltzea, garaiko gazteek bultzatutako berrikuntza hain segur. Gure emaitzetan, hain zuzen, horixe da nagusi: forma tradizionala termino berriago batekin

ordeztea, nagusi den euskara estandarretik edo gaztelaniatik etorria. Izen-deitura horiek dituzte maileguak ekarri dituzten eragileek.

Hala, berrikuntza bat hizkuntz aldaketa bilaka dadin, gizarteratu beharra da (Camino, 2009: 33). Argi denez, aldaketa linguistikoa gertatzen denean, tradizioko ezaugarri bat berarekin lehian hasi den beste berri batek mailaka-mailaka ordezkutzen du (Camino, 2009: 37). Edozein hizkuntza-aldaketa garatzean, gizarteko elementu batzuk berrikuntza jakin baten abangoardian daude, hala nola adina (Hernández Campoy, 1993: 172). Aldaerek lotura handia dute *adina* aldagaiarekin, [§ 4.4](#) eta [§ 4.8](#) bitarteko ataletan erakutsi bezala. Gure emaitzetan berrikuntzat, besteak beste, (120) *azala* –gorputzekoa– eta (12) *lurre* har daitezke; aldaketatzat, berriz, (182) *lebadura/e / legamia*, (183) *kuajada / mamia* edo (154) *urria/e* har ditzakegu, osoki gizarteratu direnak.

Ez dezagun ahantz aldaketa aldakortasunarekin hasten dela: lehena diakronikoa da eta bigarrena sinkronikoa. Aldaketa diakroniko guztiak aldakortasun sinkroniko gisa hasten dira (Camino, 2009: 36). Gure eginbidea bi ikuspuntu horietatik landu dugu. Azterketa diakronikoa egin dugu bi garaitako hizkera alderatzean: hizkuntzaren garapena denboran zehar aztertzea, datuak kontrastatzea, aldaketa gertatu den edo ez behatzea... denbora errealean. Azterketa sinkronikoa egin dugu denbora-puntu jakin bat edo unean unekoa ere miatu dugulako: bidean dauden aldaketak antzematea, ondorioak eta aurreikuspenak egitea... itxurazko denboran.

Denbora errealean datu-bilduma eginez, ziurtasunez jakin izan dugu abiatu dagoen hizkuntza-aldaketa bat ote den (Camino, 2009: 67). Sinkronikoki edo itxurazko denboran lan egitean, berriz, egiaztatu dugu erraza dela *behatzailearen paradoxaren* atzaparretan erortzea (Moreno Fernández, 2009: 122), baina metodologia baliagarria iruditu zaigu adineko jendearen eta gazteen arteko hizkera alderatzeko, eta asumitzen dugu edozein desberdintasun hizkuntza-aldaketa baten ondorioa dela (Chambers & Trudgill, 1994: 123). Bestalde, jakin badakigu denborarekin aldaketak gerta daitezkeela hiztunen pertzepzioan, eta hori frogatzeko, gazteen, helduen eta zaharren oharmena sinkronikoki neurtzea beharrezkoa da ([§ 2.1.10](#)). Halaber, geroak esanen du itxurazko denboran egin ditugun suposizioak –hala nola 11. taulako termino zaharkituak– eta identifikaturiko aldaketa linguistikoak baliozkoak diren ala ez: “El *tiempo aparente* nos permite llegar a una interpretación de un cambio en curso, que podría ser ratificada o rechazada por el *tiempo real*” (Moreno Fernández, 2009: 122).



### 5.1.2. Emaizzen irakurketa

- Imotz barneko lexiko ezberdina

Imozko euskara, bere txikian ere, ez da uniformea; aitzitik, mugen gaindiko hainbat barnebanaketa eta joera daude (§ 2.3). Zenbait lexiko desberdin erabiltzen dute mutur bateko eta besteko imoztarrek. Ibarreko bi ertzeek aparteko ezaugarri lexikalak dituzte: orokorki esanda, Goldaratz Larraun aldera hurbiltzen da maiz eta Muskitz, aldiz, Ultzamaldeko hizkeretara (Apalauza, 2008: 145). Hitz bereizgarria da (42) *kanaita* ‘ganibeta’ Muskitzen eta (29) *ganbaa* ‘ganbara’ Goldaratz. Haatik, lehenbiziko taulan (§ 4.1) paratu ditugun adibideek berdintzera jotzen dute pixkaka-pixkaka, baina berriz azpimarratzen dugu bildu izanak balio handia duela, erakusten baitu gutxienez XXI. mendearen lehen erdiraino, hola edo hala kasuan-kasuan, imoztarren ahotan bizirik segitu dutela.

Hiztegiari erreparatuz, ikusi dugu Goldaratz, arinki, gehiago aldentzen dela gainerako Imozko lexikotik Muskitz baino. Alderak diren bezainbatean, maizenik ekialdeko eitea hartzen du Muskitzek, hala nola (240) *ameka* ‘hamaika’. Gainera, agerikoa da Muskitzen hitzak osokiago ahoskatzen dituztela, hau da, “bokal arteko kontsonanteak egonkorragoak dira” (Apalauza, 2010: 491). Horren adibide da (193) *piruxeak* ‘aizturak’. Emaiztekin argi erakutsi dute erdialdeko formek indar hartu dutela azken hamarkadotan, nafarrerazko formen kaltetan. Muskitzen ikusten da argien bilakabidea: (255) *erran* > *esan*, (162) *bago* > *pago*...

- Erdialdeko euskararen erakusgarriak Imotzen

Dakigunez, euskalkien artean ere indar-erlazioak daude, eta ez dira orekatuak izaten: aniztasunaren kalterako, hizkera batzuk indarrez atzeratzen ari dira (Zarraga, 2010: 23). Begi-bistakoa izan da erdialdeko euskararen nagusitasuna gurean.

Halarik ere, Imozko euskarak aspaldixkotik ditu erdialdeko hizkeren ukituak, eta XX. mendeko inkestetan ere suma daiteke eragin giputza lexikoan. Horren adibide dira, besteak beste, (216) *atze* eta (226) *jantzi*. Dena den, ikusi dugu egungo hiztunen mintzoa giputzagoa dela duela mendi erdikoena baino (§ 4.2), eta aldaketa are nabarmenagoa dela ibarraren

ekialdean –Muskitzen, tolesik gabe esanez–: (232) *esan*, (135) *laño*, (209) *morroi & neskame*... Argi dakusagu bilakaera hori nagusi den *Hegoaldeko* euskara batuak eta sakoneko prestigioak eragin dutela. Hiztegiak bestalde, batez ere gazteenek agerian utzi duten kontu nabarmen bat *eduki* aditzaren gorakada da: Zuazo ere mintzo da *eduki* nagusitzeko joeraz gure eskualdea aipatzen duelarik (2006: 113). Argi dago, berriz ere: nafarrerazko formak indargabetuz doaz pixkanaka.

Lexikotik kanpo, aipatzekoak dira joan den mendeko parte-hartzaileek gaurkoek erakutsi ez dituzten zenbait ezaugarri giputz: *izan* eta \**edun* aditzaren erroa -e- egitea, konparazionera. Prestigioarekin (§ 2.1.9) lotzen dugu berriz ere, zalantzarik gabe: *izan* ere, gogora dezagun barreneko prestigioa alderdi geografiko bati ere egokitu lekiokela. Bada, gizarte jakin bateko kideek, edozein izanik ere maila soziala, duten gaitasun soziolinguistikoari esker, badakite aldaera prestigiodunak eta prestigiorik gabeak zein diren. Ildo horretatik, Alemanek (§ 2.1.10) kontatzen digu: “Kanpokoari ederresteko eta etxekoa zokoratzeko eta gutxiesteko joera ez dugu oraingoa halere, lehen ere ongi irakatsi ziguten euskararik hoherena Tolosakoa zela. Gure euskara kaxkarra zela eta zenbatetan ez ote dugu Etxalekun, *det* erabili kanpotarren aurrean, gure arteko *dut* erabili ordez” (2008: 11-12). Ez dago dudarik aldakortasunaren eragile estralinguistiko ahaltua dela prestigioa, eta *ideologia gramatikala* dakargu gogora (§ 2.1.9).

- Erdialdeko eta nafarrerako formen arteko lehia

Jabetu gara hizkerak uste baino eraginerrazagoak direla: lehen, eskala txikian kutsatzen ziren eta gaur egun, mugikortasun geografikoa eta hartu-eman handiagoa baitago, proportzionalki hartzen ditu euskarak eraginak. Lehenago, gizartea eskualdean mugitzen zen eta orain joan-etorriak ugariak dira eskualdetik kanpo. Beste euskalkietako hiztunekin harreman-kopurua handitu da (Martínez, 2010: 130), eta ukipen edo kontaktu horrek aldaketa gertatzeko aukera handitzen du (Martínez, 2010: 122). Abiada bizian gertatu da hizkuntza-desberdintasun geografikoaren apaltzea eta, nahitaez, dialektoen berdintzera jo da. Bizimoduaren homogeneizazioarekin batera, prozesu naturala da hizkeren berdinkaratzea (Camino, 2005: 161). Trudgillek (1986) izendaturiko *dialect levelling* (§ 2.1.8) fenomenoaren baitan gaude bete-betean, dialektoen arteko homogeneizazio prozesuan.

Gure alderdian, aspaldikoa da erdialdeko eta nafarrerako ezaugarrien arteko lehia. Azken urteotan, berriz, tentsioa zorrozten ari da eta norabide argia du: itzulungururik gabe esanda, balantza erdialdeko formen alde erorarazten ari da. Eragile nagusi bati egotz dakioke: euskara batuak euskara gipuzetik edan izana gehienbat, lexikoari dagokionez behinik behin. Zuazok hauxe uste du eta lan honetarako baliagarria zaigu: “el euskera unificado se ha elaborado tomando como base el dialecto guipuzcoano. Eso ha tenido como consecuencia que hablas de su alrededor, occidentales y navarras sobre todo, hayan tendido a acercarse y fundirse con él” (2010: 37).

Sánchez Carrión “Txepetx”-ek honela dio “La herencia de Koldo Mitxelena” artikuluan:

La unificación, más concretamente, el modelo de estándar (Euskera batua) que él impulsó y que es el que, hoy por hoy, ha acabado imponiéndose. Mucho se ha discutido sobre si el modelo, basado en el guipuzcoano con ciertas adherencias navarro-labortanas era el más apropiado (o el más justo a la vista de la realidad demográfica de la comunidad euskaldun) para establecer desde ella normalización (1991: 1324).

Es una evidencia que salta a la vista la coincidencia que existe entre el modelo de batua propuesto por Mitxelena y su lugar de origen (Rentería) situado en una zona fronteriza entre esos tres dialectos base de la unificación (1991: 1325).

Las condiciones sociales necesarias [para el modelo razonable de estándar] son dos: un factor de *madurez* social [...], y un factor de fertilidad personal [...]. Ha sido en la época de Mitxelena cuando ambos factores se han conjugado, por fin y por mérito de ambas partes. Y el vástago fue el más natural que las condiciones permitían. Todo lo demás habría sido una fecundación in vitro de muy incierto resultado (1991: 1326).

Mitxelenak pisu handia du, naski, eredu estandarraren nolakotasunean. Konparazio argigarria eskaintzen digu “Txepetx”-ek, jarraian, eta Euskara Batuaren guraso-rolak esleitzen ditu:

La comunidad es el óvulo que debe ser fértil, y estar en condiciones de madurez para poder ser fecundado [...]. Pero para producir una nueva vida [...] necesita la fecundación de un espermatozoo [...] asimismo fértil (creativo) y maduro [...]. En un momento histórico del tiempo, cuando el óvulo está preparado y para el hablante individual la vida de la lengua se convierte en el centro de su vida, son varios [...] los individuos que inician el camino, pero solo el que primero llega fecunda el óvulo. En el hijo que saldrá de ahí (la adaptación del idioma a una nueva función histórica) habrá mucho de la madre (de todo el conjunto de la comunidad), mucho de sí mismo (cada vez más, en la medida en la que adquiera entidad independiente), pero el individuo que primero llegó (después de madurado el óvulo) le habrá imprimido, quizás para siempre, su sello propio. Y la Lengua se lo agradecerá porque la libra de una esterilidad que pesaba sobre ella como la mayor de las amenazas. Koldo fue, para el euskera contemporáneo, ese individuo (Sánchez Carrión, 1991: 1326).

Gure inkestako datuetara bueltatuz, Imotzen lehian dauden formak hitzak dira gehien-gehienik (% 80), hala nola (223) *irri in* eta *parra/e (eg)in*. Aldaerak, bestalde, ez ditugu hain zaurgarri sumatu (§ 4.3), baina bat aipatze aldera, (38) *ertsi* eta *itxi* adibidea dakargu.

- Eredu estandarra

Aldakortasuna bi faktorek ekarri dute Imotza azken mendi erdi honetan: eredu estandarrak eta gaztelaniak. Lerroburu hori atal honetan eta hurrengoan bihituko dugu.

Ukaezina da euskarazko irakaskuntzak, alfabetatzeak eta arauarekiko hartu-emanak aldaketa linguistikoa ekarri dutela, hala nola euskara batuko lexikorantz lerratzea: (12) *lur* dugu horren adibide. Euskal herri-hizkerak eta ereduak urtzen eta koloregabetzen ari dira, kutsu lokala duten ezaugarriak galtzen –markatuenak–, eta hedatuenak nagusitzen (Camino, 2005: 160). Bi mintzaira elkarrekin harremanetan egotean –batua eta herriko hizkera–, eragin diglosikoa eta desoreka gertatzen da: batek pisu handiagoa izaten ohi du eta, ondorioz, aldaera gutxitua arriskuan geratzen da (Zarraga, 2010: 44-45).

“Eskolako” euskararen eragina gazteengan biziagoa dela ikusi dugu (§ 4.4). Erdialdeko – eta, neurri txikiagoan, mendebaldeko– hizkeren eragina gazteengan gehiagotan agertzea euskarazko alfabetatzearekin loturik dago hertsiki. Galdetegian desberdintasuna ikusten den aldi gehienetan adindunek tokiko formak darabiltzate eta gazteek, aldiz, erdialderagokoak, eskolako euskara *Hegoaldeko batuaz* elikatzen baita gehienik. Ikusi dugunez, gazteek emandako forma gehienek forma giputzekin bat egiten dute, hala nola (182) *legamia* (Etx.) edo (61) *egueldi* (Gol.).

Gazteek estandarizazio-tasa adierazgarriena erakutsi badute ere, tokiko hainbat ezaugarriren galera helduengan hasten da. Eredu estandarraren eragina jende nagusiarengan ere sumatu dugu, maiz *imotzeraz* kamuflaturik egonik ere. Izan ere, adineko hiztunak ere ohituta eta harremanetan daude aldaera estandarrarekin –komunikabideak, paisaia linguistikoa...–. Orokortu gabe, baina ikus daiteke helduak ere hari lerratzen hasi zaizkiola: adibidez, (233) *guraso* eta (244) *larogei*.

Kontserbadurismoaz bi hitz. Normalean tokiko aldaerak belaunaldi zaharretan hobeki gordetzen dira (Camino, 2009: 73), baina zahartzaroak ez dakar ezinbestean gordetzaile

izatea, bereziki dialektoaren eta mintzo estandarren arteko lehia dagoen kasuetan (Camino, 2009: 71). Muskiztarrak hamaika adibide utzi dizkigu horren frogagarri – atzenekoan izan ezik, gainerakoetan tokiko aldaera edo hitza ere eman du–: (232) *apaiz*, (238) *ezer*, (224) *lapurtu*, (183) *mamia*... Izan ere, aintzat hartzekoa da posible dela pertsona berarengan ezaugarri zaharrak eta berriagoak batera agertzea (Camino, 2009: 297). Horrez gainera, kontuan har dezagun lekuko muskiztarrak bere euskararekiko dudak eta hutsuneak agertu dituela, galdetegiko hainbat eta hainbat oin-oharretan zehazten denez.

Beti ez da erraza izaten galdetegiko galdera guztien erantzunak herri guztietan lortzea [...]: indarrez eta erabileraz ahul dauden hizkuntzetan, egoera arrunta izaten da jatorrizko hizkuntza erdi ahazturik duten edo guztiz menperatzen ez duten lekukoak egotea, batez ere jatorrizko hizkuntza eta demografikoki edo gizarteko mailen arabera indartsuago dena ukipenean dauden eremuetan [...]. [Berebat,] galdetegiko gai guztietako errealitateen izenak ezagutzen ez dituzten lekukoak aurki ditzakegu, lanbide bat, ohitura bat edo jakitate sozializatu bat hurbiletik bizi izan ez dutenak (Camino, 2009: 281).

Salbuespenak salbuespen, gure ikerketak berretsi egiten du orokorrean adinduak kontserbatzaileagoak eta gazteak berritzaileak diren ideia. Oro har, gordetzailetasuna helduen mintzoaren bereizgarri da, eta gazteak hizkuntz aldaketaren abangoardian daude: “Hizkuntza-aldakortasunaz gizataldeetan egin ohi diren ikerketetan, adina aitzinera doakion heinean, hiztuna bere mintzoan gordetzailago izan daitekeela erakutsi da” (Camino, 2009: 67).

Gazteak nabarmenago desbideratzen ari dira herriko aldaeratik arauzko eredurantz. Hala eta guztiz ere, ez dituzte kasu guztietan espero genituen erantzun “kutsatuak” eman: kontrara, *item*-kopuru nabarmen batek erakutsi du anitz alditan tokiko moldeak baliatzen dituztela edo, behinik behin, ezagutzen dituztela. Guk aurrez izendatutako hitz *kalteberen* % 60 ez dituzte eraldatu; tokiko forma gorde dute, adibidez, (231) *jostatu* edo (131) *ortotsa itemetan*. Ezin esan dugu, hortaz, elkarrizketaturiko gazteek estandarrenazko berdintze-joera lasterra dutenik, erdibidekoa baizik (§ 4.5). Hori bai, deigarria da hogeiturokoaren eta hogeita hamar urte ingurukoaren arteko aldea: zenbat eta gazteago, hainbat eta handiago nagusi den euskara estandarrekiko eragina. Gaztetxoaren adierazpideak dira, besteak beste, (33) *igeltsero* eta (164) *marrubi*.

- Gaztelaniaren presentzia

Gaztelania da euskararen antzaldatze trinkoaren bigarren eragilea.

Gaztelaniatik hartutako mailegu anitz ditu Imozko euskarak (§ 4.6), hala nola (221) *akordatzen* edo (185) *desayunitzea / desayunoa*, eta lehenagoko zein oraingo hiztunek naturalki erabiltzen dituzte. Baina, gaur egun, desberdin azaltzen da gaztelaniaren eragina gazteengan eta adinekoengan.

Gazteak gizarte gaztelaniatuagoan hazi dira eta emaitzek horixe jarri dute agerian. Beren kasuan, egunerokoan erabiltzen ez dituzten hitzak dira, eta inkestatzaileok gaztelaniazko forma proposatu baitiegu, halakoxe erantzuna eman dute haiek ere: adibidez, (211) *karpintero* etxalekuarrak eta (78) *pantorrille* goldaraztar batek. Presente izan ditugu, nolana ere, norbanakoaren mugak (§ 4.8) –ikus bi puntu geroago–, eta aintzat hartu dugu hizketa axolagabeen naturalki botatako adierazpideak balitekeela presiopeko momentu batean ez okurritzea.

Aldiz, jende nagusiaren kasuan, gaztelaniaz eman dituzten hitz asko ohikotasunean erabilitakoak dira, txikitatik gaztelaniaz barneratu dituztenak –eta halaxe transmititu ondorengoei–. Nahiz eta XX. menderako hasia zen gaztelania toki gehixeago hartzen Imotz bezalako gizarte txikietan, azpimarratzekoa da joan den mendeko lekukotasunek euskal formak dakartzatela egungo erdarazkoen ordez: konparazione, (169) *arrai* edo (183) *gamtambera*. Ondorioztatzen dugu, hartara, frankismoak erdaldundu zuela gure nagusien lexikoa (§ 4.6), haien haur denboran: bereziki eskola frankistak, hizkuntza nazional bat eta bakarra baitzuen xede.

Horren guziaren ondorioz, duela mende erdiko lexiko franko ez da honezkero erabiltzen (§ 4.7) –bizimodua ere ez baita bera–, edo/eta termino berriagoekin ordezkatu dituzte. Galdu diren izenak ditugu (196) *lix(u)ondoa* edo (182) *orantza*, adibidez.

Acepto el principio de que toda lengua está inmersa en un cambio continuo, que ha de saber adecuarse a las necesidades del momento, pero en el caso de lenguas como el euskera, que han de competir, en un mismo espacio, con otras más importantes y mejor protegidas, cualquier cambio no puede darse como bueno (Zuazo, 2010: 35).

Elkarrizketatutako jende nagusia izen zaharrez oroitzen da, gehienetan; gazteendako, aldiz, sekula aditu gabekoak dira galdegin dizkiegun horietako batzuk. Lehengo bizimodu edo betebeharrekin lotura duten eleak dira, oroz gain: (20) *eskaratza*, (21) *galtzada*, (154) *lastalle...*

- (Kasik) galdu ditugun formak

[§ 4.7](#) atalean galbidean dauden hainbat formaren berri eman dugu, hala nola (49) *kietsa* / *kiratsa* edo (7) *txirrimiste*. Dirudenez, hitzak aisekiago ordezkatu dituzte imoztarrek, baina aldaera-kopurua ere ez da ahuntzaren gauerdiko eztula. Nabarmentzekoa da 11. taulan identifikaturiko formen % 77 inguru Muskizko orain arteko euskarari zegokiola: besteak beste, (162) *bago*, (232) *erran* eta (209) *neskato*. Berriz ere, errepika bera dakargu: erdialdeko formak indar hartuz doaz, nafarrerazko formen kaltetan.

- Unean unekoaren mugak eta idiolektoa

Unean unekoaren mugetara itzuliz, hitz-tarte bat eskainiko diegu. Argi gera bedi eskuratutako datuak ez ditzakegula egia biribiltzat har, ezta orokortu ere: momentu zehatz bateko burutapenak dira. Beharbada behin edo beste elkarriketatuak zernahi erantzun eman du, zehazki galdetzen zitzaionari mugatu gabe; edo, bestela, argialdirik gabeko momentu batean suerta daiteke eta batere erantzunik ez eman, nahiz eta normalean delako hitza erabili.

Horrez gain, pertsona orok idiolektoa du, ezaugarri bereziak eta apartekoak, mintzatzeko nork bere estilo propioa. Alde horretatik, gizabanako bakoitzak berezko aldaerak ditu. Aldakortasun maila indibidual horretan ere sumatu dugu, hala nola gazte batzuen *yeismoa*.

Bestalde, hiztunak testuingurura egokituriko hizkera darabil; erabakitze gaitasunaz baliatzen da eta hizkuntz hautuak egiten ditu. Komunikatzeko, badira idatzi gabeko hainbat konbentzio, eta hiztun arruntak jakiten ohi du noiz erabili bata ala bestea; erabakia kontzientzia linguistikoko horrek motibaturik dago eta, era berean, azken hori testuinguru komunikatiboak bulkaturik (Martínez, 2010: 92).

Hiztunek berezko gaitasuna dute hizkuntz aldakortasunaz baliatzeko, halako egoeran duten zeregina definitzeko eta identitate sozial partikularrak eraikitze baliabide gisa (Hernández Campoy, 2016: 92). Laboven *gaitasun soziolinguistikoarekin* lotenez: “la *Sociolingüística Laboviana* quiere averiguar el conocimiento que el hablante particular tiene acerca del tipo de lenguaje más apropiado para las diferentes situaciones sociales en las que se pueda encontrar y su habilidad para cambiar fácilmente de un estilo a otro, y no sólo su mera actuación” (Hernández Campoy, 1993: 163). Hernández Campoyk *Communication*

*Accommodation Theory* aipatzen du: gizabanakoak besteengana egokitzeko joera izaten du, eta bere komunikazio-jokabidea egokitzen du testuinguruaren arabera esleitzen dizkioten roletara edo pertsonalki egoera jakin batean proiektatu nahi dituen roletara (2016: 101).

Kanpo-faktoreek edo estralinguistikoek hizkuntzaren aldakortasunean eragin zuzena dute. Horixe ikusi dugu gure emaitzetan: dokumentaturiko aldaketak, askotan, faktore estralinguistikoekin lotzen dira; sozialekin eta kulturekin maiz –gaztelaniarekiko, euskara batuarekiko eta arauarekiko harremanak–, bai eta eragile psikologikoekin ere, halako hizkeraren ustezko prestigioak eragin handia baitu hizkuntz aldaketetan. Faktore psikologikoak dira, hain zuzen, gizabanakoaren hautuen motorra.

- Hitzak sortzeko gaitasuna

Gaitasun edo ezagutza implizituarekin loturik, hiztunari berezkoa zaion ahalmen asmatzailea dugu. Hiztunek logikoki sortzeko erakutsi duten gaitasun linguistikoa aipatu beharra dago: batzuetan, nahiz eta hitz espezifikoa ezagutu ez, berriemaileek dedukzioz jokatu dute eta aski fin, gainera: (201) *eskuazpie / eskupea*, (17) *itxetartea*... Estrategia hori lekuko guzietan esleitzen dakieke. Gauza dira adierazi nahi duten hori nola edo hala komunikatzeko.

- Hitz beraren adiera ezberdinak

Emaitzen irakurketa bukatze aldera, atentzioa eman digun beste kontu baten gainean solas egingen dugu: esanahi edo errealitate desberdina duten hitz berberen aferaz. Batzuetan, hitz berak eremu geografikoaren araberrako esanahia hartzen du: hurbila baina ezberdina. Kilometro gutxian hitz berberak bestelako adiera izan dezakeela ikusi dugu, nahiz eta eremu semantiko berekoak diren gehienetan: adibidez, (114) *nabarra* edo (176) *urriñ*. Beste batzuetan, berriz, ohartu gara aspaldidanik dagoela nahasmendua, (42) *kanaita* eta (115) *txirriñe* hitzekin adibidez, eta halaxe jakinarazi dute Imotz eta inguruetako aditu aitzindariak ere (§ 4.9). Oso adierazgarria da, orobat, (228) *billatu / billetu* adibidea. Nolanahi ere, kulunka semantiko orokorra da, eta ez gure eskualdekoa.



### 5.1.3. Hipotesiak

Segidan, hasmentako hipotesiak banaka-banaka xehatu, eta noraino bete diren azalduko dugu.

- Lehenbiziko hipotesia, beteta

Holaxe zioen gure lehen aurreikuspenak (§ 3.1):

Gaur egungo hitzun guzien lexikoa joan den mendekoena baino eraginpeanago dago, gaztelania eta euskara batu estandarerantz lerraturik. Zenbat eta gazteago, hainbat eta hibridoago euren hizkera. Uste dugu adinekoek ezaugarri dialektalei hobeki eusten dieten eta, orduan, XX. mendeko hitzunen euskara dialektalagoa zen.

Argi geratu da 1. belaunaldikoek –hots, XX. mendeko berriemaileek– ezaugarri dialektalei hobeki eusten zietela. Berori berresten duten adibideak dira honako hauek: (162) *bago* (XX.) vs *pago* (XXI.), (38) *ertsi* (XX.) vs *itxi* (XXI.), (183) *gaztambera* (XX.) vs *cuajada* (XXI.), (49) *kiratsa* (XX.) vs *garratza / mikatza* (XXI.), (217) *makur* (XX.) vs *oker* (XXI.), (175) *matalle* (XX.) vs *masalle* (XXI.), (130) *oñazture* (XX.) vs *tximiste* (XXI.) eta (184) *uriñe* (XX.) vs *gantza* (XXI.).

Ondorioz, baieztatzen ahal dugu iragan mendeko imoztarrek euskara dialektalagoa zerabiltela. Gaur egungo hitzunek hainbat izen zahar termino berriekin ordezkatu dituzte, eta aldaera estandarreko aukera lehenesten dute: gailendu den erdialdeko euskara edo *Hegoaldeko batua*, estandarizazioaren argitan esplikatzen dena. Arestian aipatu ditugun adibideak aldakortasun-prozesuan daude bete-betean, txandakatze edo trantsizioan nolabait ere (§ 4.7): ordezkapena gertatzear dago, parte-hartzaile nagusi bakarren batek eman duelako joan den mendekoen erantzun bera. Caminok oroitarazten digu, berriz ere: “aldaketa diakroniko guztiak aldakortasun sinkroniko gisa hasten dira” (2009: 36).

Aldaketa dagoeneko gertatu den emaitzak ere badaude, hala nola (196) *lix(u)ondoa* (XX.) vs *lejia* (XXI.), (182) *orantza* (XX.) vs *lebadura/e / legamia* (XXI.), (142) *orzillera / ostirelia* (XX.) vs *ostiela / ostirala* (XXI.), bai eta hilabeteen izen ugari ere. Aldaketotako batzuk erdal maileguak dira, eta beste batzuk ordezkapenak. Konparazio diakronikoari esker, aldaketa horiek mende erditsuan gertatu direla ikus dezakegu.

- Bigarren hipotesia, ez ardi eta ez axuri

Hauxe zekarren bigarren aurreikuspenak ([§ 3.1](#)):

*Hegoaldeko* euskara batuaren eragina nabarmenagoa da gazteen kasuan: handia eta lasterra izatea espero dugu. Hartara, berdintze-joera bizia aurreikusten dugu, estandarrentz.

Imozko gazteek txikitatik izan dute eredu estandarrekin, arauarekin eta idatziarekin harremana, euskaraz jaso baitute hezkuntza sistema osoa: egun, Oinarrizko Hezkuntza Irurtzunen egiten dute denek, D ereduan gehienek –gure gazteek bai, bederen–. Nonahi da nagusi etxetik kanpoko mintzoa: edo gaztelania, edo euskara batu estandarra.

Hala ere, 2. hipotesia sustengatzeko aurreikusten genuena baino adibide gutxiago bildu dugu ([§ 4.5](#)). Gogora dezagun 25 hitz *kalteberen* % 40 ez duela tokiko moldean eman gaztetxoena, eta % 20 hamarkada bat nagusiagokoek. Komunean dituzten bost forma izaki eta merezi du zein diren aipatzea: (12) *lurre*, (36) *bezain*, (78) *anka*, (120) *azala* eta (175) *masalle*. Den-denak eskolako euskarari edo *Hegoaldeko batuari* dagozkio.

Horiek horrela, gazteek portzentaje altu samarra eman dute beren herriko moldean. Horren aurrean, kontu bat nabarmendu beharretan gara: kasu bakanen batean, susmatzen dugu gazteek ezaguna duten tokiko forma eman digutela, nahiz eta egoera natural batean bestela joka dezaketelako susmoa izan ([§ 4.8](#)). Hala balitz, pentsatzekoa da elkarrizketa espontaneoetan gehiagotan lerratuko liratekeela gaztelaniarantz edo euskara baturantz.

Horri loturik, gogora dezagun lekukoak bere jarduna molda dezakeela, bere ustez azterketan espero dena esaten ahalegintzeko (Martínez, 2010: 98). Laboven *behatzailearen paradoxari* aurre egiteko, harrigarri egin zaigunetan berriz galdegin diegu –funtsean, [§ 3.2.3](#) atalean esplikatzen dion moduan: “inkestatzaileak hizkuntzalaritzaz jakituria zerbait eduki behar duela, biltzen diren erantzunen egokitasunaz juzkuak egiteko bezainbatekoa bederen: erantzunetarik tiraka eginez hainbat berri interesgarri biltzeko, erantzun makurrak diskriminatzen gaituzteko edo lekukoak inkestatzaileari ziria sartu nahi dionean harrapatzen” (2009: 292).

Bildutako datuetara mugatzen bagara, ordea, baiets daiteke inkestaturiko hiru gazteek etxeko forma ezagutzen eta bereizten badakitela. Esan bezala, ez dugu sumatu espero

genuen *Hegoaldeko* euskara batuaren eragin handia<sup>120</sup>, hein batean beharbada, jakin bazekitelako zeren bila genbiltzan. Zernahi gisaz, afera da ariketa honetan estandarrenazko berdintze-joera graduala ikusi dugula gazteengan, uste genuena baino apalagoa. Aurreikuspena zen, besteak beste, (41) *esnatu*, (131) *trumoi*, (240) *amaika* edo (231) *jolastu* biltzea gazteengandik, baina gure harridurarako, tokiko forman eman dituzte. Horrek esan nahi du oraindik imoztarren ahotan adituko ditugula. Nolanahi dela ere, agerikoa da aparra bezala zabaltzen ari dela euskara nagusi edo orokor bat, *Hegoaldeko batua* deitu duguna, eta hurbil egon daitezke zerrendaturiko hitzak gazteen mintzoan ere.

Kontuak kontu, gure 2. hipotesia neurri batean deuseztaturik geratzen da. Ongi gogoan izatekoa da, era berean, gazte hauek ez direla Imozko gazteriaren isla, gazte-jende osoa aintzat hartuz, gehiena ez-dialektoduna delako: “gazte gehienek erabiltzen duten euskara hurbilago dago arauzko eredutik herriko aldaeratik baino” (Apalauza, 2008: 27). Beraz, elkarriketaturiko gazteak salbuespen gisa har daitezke, oasi gisa basamortuan. Testuinguru jakinetan baizik ez dute etxeko euskaraz egiten: familiarrean, herrikoekin edo oso hurbilekoekin – dialektodunak baldin badira–. Hortik kanpo, baturantz lerratzen dira.

Hizkuntz heriotzaren seinale bat izan ohi da hizkuntz menperatu hauek erresebatzen direla etxean edota familian erabiltzeko, alegia, giro afektiboetako hizkuntzak bihurtzen dira soilik, aldiz, hizkuntz menperatzaileak giro formalagoetarako gordetzen dira, administrazioarako, sendagilearengan joateko etab (Ibarra, 1997: 110-111).

Beraz, etorkizunerako proiektzioa eginez, hibridotuz joanen da gazteen mintzamoldea eta ikusteko dago, ondorengorik izatekotan, zer-nolako hizkera erabiliko duten. Imozko orain arteko euskara gaitzak harturik dago: egia objektiboa da hiztun gutxiegi direla.

Galzorian da, lekuko zaharrenek erabiltzen dute, hezkuntzak eta aldaki estandarren prestigioak arriskupean utzi du jatorrizko mintzoa; bizimodu modernoak populazioaren emana eragin du, dialekto-nahasteak gertatzen ari dira, erakundeak, hezkuntza, prentsa idatzia, zinema, telebista eta irratia eredu estandarra etengabe haizatzen ari dira... (Camino, 2009: 295).

- Hirugarren hipotesia, beteta

Honela zioen hirugarren hipotesiak (§ 3.1):

Biziera aldatu baita, joan den mendeko hainbat kontzeptu zaharkitu dira eta gaurgero ez dira baliagarri, galzorian daude. Nahiz eta adineko jendeak hitz gehientsuenak adituak izan, espero daiteke gazteek galdetegiko hitz askoren euskal baliokidea ez ezagutzea, ez direlako sekula beren errealtatearen parte izan. Horren ordez, jakina, gazteek badute lexiko sorta zabal bat,

---

<sup>120</sup> Bitxiki, XX. mendeko galdetegietan kontrakoa ikusi dugu zenbaitetan: Imotzen ohikoa zen forma ez ematea. Adibidez: (15) *erori* Etxalekun, (47) *etxérà* Goldaratzen...

hiztun zaharragoek baliatzen edo ezagutzen ez dutena –baina gure lanak ez dio puntu horri helduko–.

Emaitzek argi eta garbi agertu dute joan den mendeko lexiko franko ez dela gaurgero erabiltzen, hitz asko ez dira praktikoak edo imoztarren egunerokoaren parte. Ingurumena, etxeko lanak edo etxe tradizionalaren gaineko hitzak dira horietatik, batez ere. Bizimodua aldatu da eta, ondorioz, joan den mendeko hainbat kontzeptu zaharkitu dira, dagoeneko ez dira erabilgarri: desagertzeaz daude edo hiztunek ordeztu dituzte –berriki 1. hipotesian azaldu bezala–.

Erakutsi dugunez, zenbat eta adinez txikiagoa, orduan eta ezezagutza handiagoa; gero eta handiagoa, orobat, iragan mundu horrekiko lotura eza. Gure ariketako adindunek forma zahar gehienak ezagutzen dituzte, adituak dituzte, nahiz eta horietako asko ez erabili: esan diegularik oroitu dira, baina maiz termino berriagoekin ordezkatu dituzte. Horren adibide dira (20) *eskaratza* (XX.) vs *entraa* / *sarrera* (XXI.), (183) *gatzambara* vs *kuajada*, (196) *lix(u)ondoa* vs *lejia* eta (182) *orantza* (XX.) vs *lebadure* / *legamia* (XXI.). Gazteek hitz horiek ez dituzte inoiz entzun: ez dute euskal baliokidea ezagutzen, ez direlako sekula beren errealitatearen parte izan. Horietako asko ahanzturara behartuta daude. Zerrendaturiko *item* horietara joz gero, pentsa zitekeen imoztarrak gehienetan erdal mailegu gordinen alde egiten duela: alta, lau adibide dira, eta anekdotikotako har ditzakegu. Izan ere, 8. taulako adibideei erreparatuz gero, anitzez handiagoa da estandarizazioak imoztarren mintzora ekarritako hitz-kopurua. Ondoriozta daiteke, orduan, estandarren eragina handiagoa dela erdararena baino gure elkarrizketatuen hizkeran.

Gordetzailtasunaren ideia berreskuratuz, adinekoen taldeak osatzen du kolektiborik gordetzailena: oro har eta salbuespenak salbuespen, ezaugarri dialektalei hobeki eusten diete eta gazteek hiztegi hibridoagoa darabilte, batez ere guztietarik gazteenak. Egiak, espero izatekoa zen hori. Ez da harriztekoa lekukoa zenbat eta gazteago, orduan eta gaztelaniazko edo/eta euskara estandarreko lexiko, egitura, esamolde... gehiago baliatzea, ondokoak adibide: (211) *karpintero* vs *zurgiñe*, (188) *aparra* / *baba* vs *erde* / *erdii*, (253) *askotan* vs *maiz*... Horra belaunaldi batetik bestera gertaturiko zenbait aldaketa linguistiko, hiru belaunaldi aski baitira hizkuntza-sistema batetik guztiz bestelakoa den beste batera jauzi gaitza egiteko (Camino, 2009: 73). Horrenbestez, 3. hipotesia ontzat ematen dugu.

- Laugarren hipotesia, beteta

Hauxe zekarren gure laugarren aurreikuspenak ([§ 3.1](#)):

Hiztunak ezaugarri propioak ditu, berezkoak, eta aldakortasuna maila indibidual horretan ere sumatzen da. Horren haritik, erabakitze gaitasunaz baliatzen da eta hautu kontzienteak egiten ditu.

Hiztunaren ezaugarri propioen ideia ere sendotu dugu. Profil bertsuko informatzaileak izan badira ere *grosso modo*, norbanakoaren berezko ezaugarriak azpimarratu nahi genituzke berriz ere: hautuak, lehentasunak, egokitzapenak, hizkuntz jarrerak, ahoaren morfologia, aurrekoengandik jasotako eredua... Horiek guzkiek gizabanakoaren hizkera berdingabea egiten dute, eta maila indibidual horretan ere sumatzen da aldakortasuna. Horren haritik, hiztuna erabakitze gaitasunaz baliatzen da eta hautaketa kontzienteak egiten ditu. Horren gibelean faktore psikologikoak leudeke –horiek ere ekartzen baitute hizkuntz aldaketa–. Ekar dezagun gogora eragileei loturiko Laboven sailkapena: intralinguistikoak, sozialak eta kognitibo-kulturalak ([§ 2.1.4](#)). Guk behaturiko eta, ondorioz, eskuratutako aldaketa-emaizak faktore sozial batek ekarri ditu: adinak. Baina, eragile psikologikoen garrantzia azpimarratzea beharrezko dakusagu. Horretan, 4. hipotesia bete da.

Hizkuntza-hautuen gaiak badu mamia. Informatzaile batek hala onarturik, hautu kontzientea da hitzak ahal bezain osorik ebakitzea. Muskiztarraz ari gara, paradoxikoki adinez nagusiena dena. Lanean aipatu dugu ([§ 2.3](#)), baina, ekialderantz joan ahala kontsonanteak egonkorragoak izateko joera dagoela (Apalauza, 2010: 291, 490), eta ez litzateke harritzekoa, beraz, bere ekoizpenetan bietariko eragina egotea. Muskiztarraren jokabideak lotura izan dezake, bestela, Caminok deritzon *arbuio linguistikoarekin* (2009: 98): hots, beharbada pentsatzen du mintzamolde ez-estandarra gizarte-maila baxuaren edo heziketa ezaren ondorio dela, eta euskara dotorea eskolako eta hedabideetako euskara batua dela ([§ 2.1.9](#)). Honatx euskaltzain etxalekuarrak dioena: “Eta guk, helduagook ere, gero eta gutxiago erabiltzen ditugu [hainbat hitz], gazteek eskolan ikasitakoa eta telebistan entzuten duguna, nahitaez, gurea baino hobea delakoan. Eta berriki arte esaten genituen hitzak inongo hiztegitan baztertuak utzi ditugu” (Aleman, 2008: 11).

Esanak esan, helburu gorena osoki bete da: lexiko-lagin bat aztertuz, espero izatekoa zen bariazioa baieztatu dugu. Berretsi eta dokumentatu dugu aldakortasuna menderik mende, herriz herri, ekialdetik mendebaldera, belaunez belaun eta parekoz pareko gertatzen dela.

#### 5.1.4. Alderdi eztabaidagarriak: inkestaren argi-ilunak

Ezin atzunduzko beste kontu bat da inkestagilearen papera: eginiko lana ekina eta iraunkorra izan da, eta hein berean emankorra: kontent gaude erdietsitakoarekin. Parte-hartzaile ororen ezagun hurbila izatea mesedegarri izan arren, ikertzailea (guztiz) dialektoduna ez izateak inkestatuengan nolabaiteko eragina izan du, kasuan-kasuan handiagoa edo txikiagoa. Tematu gara eta berriemaileei ohartarazi diegu mintzaera naturala aztertu nahi genuela, [§ 3.2.3](#) atalean esplikatu dugunez. Nolanahi ere, inkesta moldea aski formala izan denez, hiztunen elesta nola edo hala baldintzaturik egon da, eta noiz edo noiz hizkera moldatu izan duten ustea dugu. Izan ere, gazteak mintzagai hartuz, bazekiten zeren bila genbiltzan eta baliteke (auto)engainu-osagai bat egon izana elkarrizketa bitartean. Informatzailearen estrategia kontzientea izan daiteke, inkestatzailearen aurrean ongi geratzeko, edo oharkabekoa. Arrisku hori beti bada; inkesta mugatuaren eragozpenetako bat.

Bat-bateko jolasaldia ez izateak, jakina denez, zenbait desabantaila dakartza berekin batera: haatik, konbikzio osoz diogu inkesta gidatua izan dela eskuratu nahi genuenerako metodorik egokiena. Dituen mugez haratago, modurik eraginkorrena eta gogobetegarriena iruditu zaigu; alde batetik, eraginkortasunez jokatzeko, eta beste alde batetik, XX. mendeko jatorrizko inkesten erari egokitzeak.

Galdeketak jokaera hertsia du baina, orokorrean, dialektologia bilduma gehienetan erabiltzen dena da, helburu jakin eta aurrez zehaztu batzuekiko lotura zuzenena baitu (Camino, 2009: 275). Zailtasunak zailtasun, lexikoaren aldakortasuna aztertzeko inkesta izaten da beharrezko informazioa eskuratzeko modurik eraginkorrena, eta ongi frogatu da emaitzak izan badituela (Martínez, 2010: 98). Hartara, guk ere galdetegia hartu dugu bide, diskurtso jarraitu eta espontaneotik kanpo: hau da, nahiago izan dugu forma lexikoei buruz zuzenean galdetzea, nahiz eta, horretan ere, *behatzailearen paradoxa* agertzera arriskatu (Moreno Fernández, 2009: 33). Erantzun ez fidagarrien aurrean, berriz pentsa zezaten eskatu diegu informatzaileei; eta burua hutsik gelditzekotan, denbora gehixeago eskainiz edo argibideren bat emanik, erantzuteko gauza izan dira. Gogoratu dezagun, gainera, hitzak kontestualizatzeko beharra hasieratik sumatu dugula eta, horri esker, uste dugu hiztunek ahalik eta naturalen ekoitzi duten. Hala berean, inkesta zurrunetik landa izandako hizketaldiak ere eskaini dizkigute lekukoek, horretarako aukerei aurrerabidea eman baitiegu. Caminok dioen moduan: “eredu onarekin eta

senez egindako inkestatik, denbora aurrezturik eredu libreagotik bezainbat berri atera daiteke” (2009: 276).

Hori bai, dolu dugu elkarrizketak grabatu ez izanaz, baina ez genuen lekukorik galtzeko arriskurik hartu nahi izan. Hurrengoan, konbentzimendu-estrategiak hobetzera saiatuko gara.

### 5.1.5. Gerora begira: egiteko dauden zereginak

Apalauzak dioen bezala, geolinguistikoki arrunt interesgarria da Imozko euskara (2008: 171), baina interesgarri izateak zailtasuna ere areagotzen dio. Sinetsita gaude bildutako datuak xehekiago aletu daitezkeela etorkizuneko lan mardulago batean: hala nahi genuke.

Lan bariasionistatzat dugu, baina jakin, badakigu, hankamotz gelditu zaigula hainbat alderditan. Alde batetik, Laboven metodologiaren azken urratsa (§ 3.2) ikerketa kuantitatiboa egitea izaki, eta guk ez ditugu portzentajeak sistematikoki atera. Beste alde batetik, gure unibertsoa hiru herritan zatiturik dago, eta, gainera, Muskitzen ez dago hiztun gazterik. Horrek guziak trinkotasuna kordokatzen dio soziolinguistika bariasionistari dagokion lan bati. Dena dela, gai horren arras hurbileko azterketa da.

Jakitun gaude aztertu duguna sakonkiago garatzen ahal dela, hala nola aurreko mendeetako autoreen ideiak ekarriz: Azkue XX. mendean, Bonaparte XIX. mendean... Horrez gain, geron azterketa osa liteke osagarriak gaineratuz. Aurrera begirako asmoen artean legoke hizkuntz ezaugarri gehiago aztertu beharra, baita gainerako maila linguistikoak ere, fonetika-fonologia konparazione. Horrela, ibarreko oraingo euskararen ikuspegi osoagoa izanen genuke. Grabagailua lagun izanen dugu etorkizuneko egitasmoetan.

Oraingoan adinaren aldagai sozialean oinarritu bagara ere, hurrengo batean bestelakoak aztertzen ahalko lirateke: generoa, ikasketa-maila edo erregistro-mota. Bereziki interesgarri deritzogu generoari erreparatzeari datorren azterlan batean, esan ohi delako emakumeak gizonak baino oharmen soziolinguistiko finagoa duela, finezia handiagoa hizkuntz jardueran, araua diren aldaera linguistikoetarako joera, edo jokaera gordetzailerak ala berritzaileak kasuan-kasuan (Camino, 2009: 298). Caminoren hitzetan, ordea, berritzaile izatea ez dago norberaren

generoarekin loturik, pertsona bakoitzak duen jokabidearekin, rolaekin eta izaerarekin baizik, irekia edo irekizale izatearekin, bizi izan den egoera eta errealitatearekin (2009: 300).

Eskuraturiko emaitzak eta ateratako ondorioak estrapolagarriak izan litezke gure alderdiko edozein herritara. Dena dela, erdietsitakoa joera orokorra den edo elkarrizketatu ditugun hiztunen joera den egiaztatzeko, informatzaileen lagina handitzeko beharra ikusten dugu, berriki aipatu bezala, emaitzen fidagarritasuna handitzeko. Interesgarria litzateke, era berean, A ereduan ikasitako gazte euskaradunekin lan egitea, D ereduan ikasitakoekin alderik ba ote dagoen ikusteko.

Interesgarria litzateke, halaber, hurrengo batean oharmenezko dialektologiari heltzea, hots, hiztun arruntek hizkuntzaren eta hizkeren inguruan dituzten iritziak ikertzea (Preston, 1999a: 24), imoztarrek dialektoez ohartzeko duten gaitasun implizituari inguratzeko –pertzepzioari dagokion inkesta eginez, demagun–. Izan ere, pertzepzio- eta jarrera-faktoreak eragile inportanteak dira abian den hizkuntza-aldaketaren azterketan (Preston, 1999b: 22). Orobat lehenago ere adierazi dugun gisan, mintzo bat bi dialekto nagusiren artean kokaturik dagoenean, ezaugarri batzuetan alderdi batera eta beste batzuetan bestera jotzen duen hizkera bat aztertzen ari garenean –Imozkoa, besteak beste–, inportantea da hiztunen iritzia aditzea, argitasuna eskain baitiezaioke hizkuntzalariari. Berebat dialektoaren heriotza dagoen lekuetan ere, non hizkuntz aldaeren lehia bortitza izaten baita, garrantzitsua da lekukoek hizkuntzaz esplizituki eman dezaketen argitasuna (Camino, 2009: 305). Esan ohi da, oharmenezko dialektologia egiten denean, erantzun subjektibo partekatu bat hiztun edo lekukoaren 2/3en adostasuna izatera iristen baldin bada, egiantzekotasun handia duela (Camino, 2009: 307).

Aukera bikaina dugu oraindik ditugun testigantza baliotsuei zukua ateratzeko, eta ez alferrik galtzen uzteko. Oroit gaitezen Imozko euskararen osasun-egoeraz: gero eta nekezagoa izanen da mintzatzaile dialektodun fidagarriak opatzea. Aitzina begira, aurreikus daiteke pixkaka-pixkaka Imozko euskalkidun-komunitatea txikituz joanen dela; kasurik onenean, gero eta euskara estandarizatuago baterantz. Hartara, guretako lorpena da nahi genituen hiru herrietako hiztunak aurkitu izana, eta haiei esker ekarpen txiki bat egin eta argitaratu ahal izatea.



### 5.1.6. Parte-hartzaileei eskerrak

Eskualdeko euskarara gehiago hurbiltzeko parada izan dugu eta azpi xede hori ere soberan bete dugu. Hala, imoztarrengandik lezio doblea jaso dugu: batetik, gure ikergaiarentzat edukia eta ezagutza eta, beste alde batetik, bukaezinezko eskuzabaltasuna, giro goxoa eta solasaldi ezin interesgarriagoak. Caminok dio ikerketaren esperientziak berriemailearengan uzten duen irudia honelakoa beharko lukeela izan gutxi gorabehera: “etorkizunean honelatsuko beste ikerketa batean berriemaile horrek berak parte hartzeko arazorik ez agertzeko modukoa” (2009: 294). Gure informatzaileek aitortu dutenez, guri bezain gozagarri iruditu zaie topaketa. Horrek gure asebetetze-maila gaindikatu du.

Giroari bagagozkio, esan dezakegu parte-hartzaile oro gustura sentitu dela: inkestatzailearen zeregina ere bada konfiantza, aldarte ona eta egonaldi atsegina lortzea (Camino, 2009: 303). Elkarrizketatu guzietan gertatu zaie interesgarri ariketa, eta gogotsu azaldu dira zenbait termino berriz bereganatu eta erabiltzeko –adibidez, (30) *txapitela*–. Hautu kontzienteen aferara garamatza berriz horrek, erakusten baitu ele eta egitura jakinak txerta ditzakegula borondatez gure solasean.

## 5.2. LANAREN EKARRIAK

Azken urteetan indarrean dagoen gaia dugu aldakortasuna. Bariazio lexikoa, ordea, aski ezezaguna zaigu: bestelako eremuetan nola gertatzen den neurtzea arruntagoa izan da, hala nola fonetika-fonologia arloan edo sintaktikoan. Aldakortasuna neurtzea ez da batere erraza eta, ondorioz, ez da erraza orokortasun zenbait egitea. Halaber, euskararen lurraldean hain errealitate ezberdinak egoteak zaildu egiten du orokortasunak egitea. Halako lanen modukoak beharrezkoak dira errealitate konplexu hori ezagutu ahal izateko.

Gure lana saio bat izan da, *ahalegina* esan geniezaioke, edo *zundaketa*: nahiago bezala. Ikerlan hau eginez, Imozko euskar(et)an sakondu eta argazki eguneratua egin nahi izan dugu. Imotz *ttikia* da bere osoan, baina berezia hizkera aldetik. Apalauzaren doktore-tesiak (2010) –eta lehentxeago karrikaturiko *Imozko euskara* liburuak (2008)– argitara eman zituen ordura arte filologikoki ezezaguna zen inguru honen hizkuntza-ezaugarriak. Oinarri eta bidelagun izan

dugu une oro, eta munta handiko ikerketa eta dokumentazio-lana deritzogu: zinez *maistralana*, gure Biblia.

Idea honi segituz garatu dugu geron azterketa:

*Geure aurreko belaunaldietako hiztunek erabili duten euskara ezagutzea* beti izango dugu lagungarri. Jakina, gure aurrekoek erabili dituzten hitz eta esapide guzti-guztiak ez zaizkigu gertatuko baliagarri. Baserri giroko hitz eta esapide asko, esate baterako, ez dira gizarte hiritar baterako egoki. [...] *Gaur egun bizirik dagoena, eta iraganean izan dena, jasotzea eta ezagutzea* da egin beharreko lehen urratsa, eta, egokitzen jotzen dena, *erabiltzea eta indartzea*, bigarrena (Zuazo, 2000: 144-145 [letra etzana neronena da]).

Dokumentatzeko beharra, etorkizuneko egitasmoetarako baliagarri izanen delakoan. Xumea izanagatik ere, lanaren garrantzia azpimarratzea dagokigu: alde guzietatik inarrositako *tarteko* hizkera honi ikusgarritasuna ematea premiazkoa da.

Gure aletxoak jarri nahi izan dugu euskal komunitate linguistikoa pitin bat gehiago hornitzeko asmoz. Dialektologia eta Soziolinguistika uztartuz, euskararen barietadismoa kategoriarako beste ekarpen empiriko bat da, finean; emarritto bat, zeinak frogatzen duen tokian tokiko aldaki markatuak estandarren alde desagertzen ari direla, agudoago edo mantsoago. Artzelus (2019), García-Palomino (2021), Ensunzak (2014) eta funtsean aurrekarien atalean (§ 2.2) aipaturiko autore guzietan egin bezala, hizkuntza-aldakortasunaren gaineko antzeko ikerlan bat dakargu, bilduma aberasteko. Esparru horretan dabilzanek gure lana interesgarritzat joko dutelakoan gaude, baldinbaitere. Halaber, proiektu handiago baten abiaburu gisa dakusagu.

Hizkuntzalaritzatik haratago, bereziki interesgarria gerta dakieke imoztarrei. Gure zeregina, orain, lau haizeetara barreiatzea da.

Baina, inondik ere, ekarpenik handiena geure buruari egin diogu: gure bizilekuko hizkuntza – eta lekukoak– hobeki ezagutzeko parada izan dugu. Inguratzen gaituena modu kontzienteagoan ulertzea ahalbidetu digu lanak. Ikasketa eta bizipen zirrargarriak.

Alda eta, batez ere, bizi bedi Imozko euskara.

### 5.3. AKABERA

#### *Botas ikasten da oñes*

Izotzilletik abendure, udondo zein udazken,  
argiasteko eguzkiek ‘egun on’ erraten du Muskitzen  
ta iuzkii bea Goldaazko iuntzitan illunaarrin ortzitzen<sup>121</sup>.

Tartean Oskotz, Etxaleku, Zarrantz,  
Eraso, Latasa, Urritze,  
bide guzian ikusle.

Kalmak, lankarra, iurii o eurie,  
itxetan ekea ta jainkoam paxa dotore.  
Erri oken mintzoa, antzeko ta diferente,  
bakotxa bakarra, berezi eta aparte,  
denak ederrak dee.

Kontzientzik illarrosteko espa aundii,  
mantso-mantso bagoazi,  
atzendu biño len nola zaion gue jolasai,  
euskéra, éuskiá, iúskeá.

Oianeko larrak garbitzeko demboa da ta  
ez gattezen galbandu,  
eatzarririk ertsi begik,  
imajiña ditzaun goo mendik  
beis e euskias josirik.  
Aldion bat etorko ote  
non arro esain duun:  
“Noizpatte izandu zena biziberrittu duu”

Erason, 2023ko *garagarzaroaren* 28an.

---

<sup>121</sup> Etxalekun aditua, ‘ezkutatzen’.

## 6. ERREFERENTZIAK

- ALEMAN, S. & SALABERRI ZARATIEGI, P., 2008. *Sagrario Aleman Astitz, euskaltzainaren sarrera-hitzaldia*. Bilbo: Euskaltzaindia.
- APALAUZA, A., 2005. *Hizkuntza-aldaketa Goldarazko hiztun-erkidegoan*, Ikasketa Aurreratuen Ziurtagiria lortzeko lana, EHU: Gasteiz [lan argitaragabea].
- \_\_\_, 2008. *Imozko euskara*. Nafarroako Gobernua: Iruñea.
- \_\_\_, 2010. *Nafarroako ipar-mendebaleko hizkeren egitura geolinguistikoa*. Gasteiz: UPV/EHU.
- \_\_\_, 2012. *Nafarroako ipar-mendebaleko hizkeren egitura geolinguistikoa*. Iruñea: Euskaltzaindia & Nafarroako Gobernua.
- ARIZTIMUÑO, B., 2010. “Tolosako eta Ataungo hizkerak. Hizkuntz bariazioa eta konbergentzia-joerak”. *Uztaro*, 72: 79-96.
- ARTZELUS, A., 2019. “Garaziko hizkuntza-aldakortasuna geografiaren, adinaren eta generoaren arabera”. *FLV*, 127: 153-188.
- \_\_\_, 2020a. “Garaziko euskararen azterketa diafasikoa”. In E. Santazilia, D. Krajewska, E. Zuloaga & B. Ariztimuño (arg.), *FLV*, 50 urte: 63-79. Iruñea: Nafarroako Gobernua.
- \_\_\_, 2020b. “Garaziko gazteen hizkuntza-aldakortasuna hezkuntza-ereduaren eta praktika-komunitatearen arabera”. In I. Camino, X. Artiagoitia, I. Epelde & K. Ulibarri (arg.), *Eibartik Zuberoara euskalkietan barrena. Koldo Zuazori gorazarre*, 89-113. Bilbo: UPV/EHU.
- \_\_\_, 2021. *Garaziko euskararen hizkuntza-aldakortasuna*. Gasteiz: UPV/EHU.
- AURREKOETXEA, G., 1992. “Nafarroako euskara. Azterketa dialektometrikoa”. *Uztaro*, 5: 59-109.
- \_\_\_, 2004. “Estandar eta dialektoen arteko bateratze-joerak. Ikuspuntu teorikotik begirada bat”. *Uztaro*, 50: 45-57.
- \_\_\_, 2008. “Bariazio soziolinguistikoa Dimako euskarari”. *Euskalingua*, 12: 17-26.
- \_\_\_, 2021. “Hizkuntza-aldagaien aldakortasuna. Lehen hurbilketa”. *Uztaro*, 118: 95-114.
- CAMINO, I., 2004. “Irizpide metodologikoak egungo euskal dialektologian”. *Euskera*, 49 (1): 67-102.
- \_\_\_, 2005. “Euskal soziolinguistikaren atarian”. In P. Etxeberria & H. Knörr (arg.), *Nerekin yaio nun. Txillardegiri omenaldia*, Iker, 17: 157-187. Bilbo: UPV/EHU & Euskaltzaindia.
- \_\_\_, 2009. *Dialektologiatik euskalkietara tradizioan gaindi*. Donostia: Elkar.

- CAMPBELL, L., [1998] 2004. *Historical Linguistics: an Introduction*. Edinburgo: Edinburgh University Press, eta Cambridge, MA: MIT Press.
- CHAMBERS, J. K. & TRUDGILL, P., [1980] 1994. *La dialectología*. Madrid: Visor.
- CHOMSKY, N., 1957. *Syntactic structures*. Paris: The Hague.
- CONDE SILVESTRE, J. C., 2007. *Sociolingüística histórica*. Madril: Gredos.
- \_\_\_, J.C. & HERNÁNDEZ CAMPOY, J. M. (arg.), 2012. *The handbook of historical sociolinguistics*. Malden, MA: John Wiley & Sons.
- COSERIU, E., 1973. *Sincronía, diacronía e historia. El problema del cambio lingüístico*. Madril: Gredos.
- COYOS, J. B., 2019. “Euskara batua eta euskalkiak Ipar Euskal Herrian: Pertzepziozko dialektologian oinarritua den inkestaren bigarren zatia”. *Euskera*, 64: 255-290.
- DAVANT, J. L., 2021. “Iparraldeko batua?”. *Argia*. Ikus: <https://www.argia.eus/albistea/iparraldeko-batua2>.
- DRONDA, F. J., 2007. “El clero navarro ante el euskera en los años de entreguerras”. *FLV*, 105: 271-298.
- EGUSKIZA, N., 2019. *Hizkuntza-aldakortasun geo-soziolingüistikoa Arratian*. Leioa: UPV/EHU.
- ENSUNZA, A., 2014. “Gernika-Lumoko euskararen aldakortasuna: aldagai fonetiko zenbait”. *ASJU*, 46 (2): 177-244.
- \_\_\_, 2015. *Busturialdeko euskararen hizkuntza-aldakortasuna denboran eta espazioan*. Gasteiz: UPV/EHU.
- \_\_\_, 2020. “Busturialdeko euskararen aldakortasuna: ‘zait’”. In I. Camino, X. Artiagoitia, I. Epelde & K. Ulibarri (arg.), *Eibartik Zuberora euskalkietan barrena. Koldo Zuazori gorazarre*, 197-209. Bilbo: UPV/EHU.
- ERIZE, X., 1997. *Nafarroako euskararen historia soziolingüistikoa (1863-1936)*. *Soziolingüistika historikoa eta hizkuntza gutxituen bizitza*. Iruñea: Nafarroako Gobernu.
- ETCHEBEST, X., 2017. Zuberotar dardarkarien bariazio sozio-fonetikoa. UPPAko eta UPV/EHUko doktoretza-tesia.
- ETXEBARRIA AROSTEGI, M., 2000. *Variación sociolingüística en una comunidad bilingüe*. Bilbo: UPV/EHU.
- \_\_\_, 2002. “Sobre variación lingüística”. In X. Artiagoitia, P. Goenaga & J. A. Lakarra (arg.), *Erramu Boneta: Festschrift for Rudolf P.G. de Rijk. Supplements of the International Journal of Basque Linguistics and Philology*, 44, 199-230. Bilbo: UPV/EHU.

- ETXAIDE, A. M., 1989. *El euskera en Navarra: encuestas lingüísticas (1965-1967)*. Donostia: Eusko Ikaskuntza.
- EUSKALTZAINDIA, 1998. “Euskara batuaren ahoskera zaindua”. *Euskera*, 43: 485-490.
- \_\_\_, 2005-2020. *Euskararen Herri Hizkeren Atlasa*. [Euskararen Herri Hizkeren Atlasa \(EHHA\) - Euskaltzaindia](#)
- FRANCIS, W. N., 1983. *Dialectology: An Introduction*. London & New York: Longman.
- GARCÍA-PALOMINO, A., 2021. “Dialekto-berdintzeari Lezamatik begira: adinaren, generoaren eta hizkuntz jarrerren garrantziaz”. *FLV*, 131: 113-145.
- GARMENDIA MUNDUATE, L., 2008. “Hizkuntza aldakortasuna Zaldibiako euskararen: ikuspegi soziolinguistikoa”. *Euskalgintza XXI. mendeari buruz XV. biltzarra. Hizkuntza gaiak*, 101-111.
- GEZURAGA, A., 2010. “Burla, exclusión y persecución del euskera en España”. *Nabarralde*. Ikus: <https://nabarralde.eus/burla-exclusion-y-persecucion-del-euskera-en-espana/>.
- HERNÁNDEZ CAMPOY, J. M., 1993. “Dialectología tradicional, sociolingüística laboviana y geolingüística trudgilliana: tres aproximaciones al estudio de la variación”. *Estudios de Lingüística*, 9: 151-181.
- \_\_\_, 2016. *Sociolinguistic styles*. Malden: Wiley-Blackwell.
- HYMES, D. H., 1972. “On Communicative Competence”. In J. B. Pride & J. Holmes (arg.), *Sociolinguistics: Selected Readings*, 269-293. Harmondsworth: Penguin.
- HUARTE, J. V., 2003. *Estudio del léxico de la casa en los dialectos vascos de Navarra*. Iruñea: Nafarroako Gobernua.
- IBARRA, O., 1994. *Ultzamako euskararen azterketa*. Gasteiz: UPV/EHU.
- \_\_\_, 1995. *Ultzamako hizkera. Inguruko euskalkiekiko harremanak*. Iruñea: Nafarroako Gobernua.
- \_\_\_, 1997. *Ultzamako hizkera. Ultzama, Anue, Atetz, Basaburu Nagusia, Imotz, Odieta eta Lantz*. Lekunberri: Plazaola Partzuergo Turistikoa.
- \_\_\_, 2014a. “Hizkuntza-aldakortasuna: euskara baturanzko joera elkarrizketen bidez azterturik”. In I. Aduriz & R. Urizar (arg.), *Euskal hizkuntzalaritzaren egungo zenbait ikerlerro*, 213-229. Eibar: UEU.
- \_\_\_, 2014b. “Egungo gazte mintzairaren hainbat ezaugarri”. In I. Epelde (arg.), *Euskal dialektologia: lehena eta oraina*, 65-85. Donostia: UPV/EHU & GFA.
- \_\_\_, 2018. *El euskera de ayer y hoy: variación y contacto*. Iruñea: Pamiela.

- JIMENO JURIO, J. M., 1998. *Nafarroako Toponimia eta Mapagintza, Basaburua-Imotz*, 44. libk. Nafarroako Gobernua: Argitalpen Funtsa.
- KASARES, P., 1999. "Aunitz dakit, bizitzen badakit". *Baztan* (Nafarroa), hizkuntzaren antropologiatik aztertua: hizkuntzen kategorizazioa komunitate elebidun batean. *Bat*, 30: 79-94.<sup>122</sup>
- LABOV, W., [1972] 1983. *Sociolinguistic Patterns*. Philadelphia: U. Pennsylvania Press. *Modelos sociolingüísticos*. Madril: Cátedra.
- LÓPEZ MORALES, H., 1989. *Sociolingüística*. Madril: Gredos.
- LUJANBIO, O., 2008. "Hizkuntza-aldakortasuna Goizuetako euskarán", *Uztaro*, 80: 77-97.
- \_\_\_, 2014. "Hizkuntza-aldakortasuna Goizuetako euskarán: emaitza gehiago". In I. Aduriz & R. Urizar (arg.), *Euskal hizkuntzalaritzaren egungo zenbait ikerlerro*, 231-255. Eibar: UEU.
- \_\_\_, 2016. *Hizkuntza-aldakortasuna euskarán. Nafarroa ipar-mendebaldeko bi udalerritan egindako azterketa*. Gasteiz: UPV/EHU.
- MARTÍNEZ, L. V., 2010. "Hizkuntzaren aldakortasuna". In A. Zarraga, J. B. Coyos, J. M. Hernández, L. Joly, I. Larrea, L. V. Martínez, B. Uranga & P. Bilbao (arg.), *Soziolinguistikaren eskuliburua*, 85-131. Gasteiz: Eusko Jaurlaritza & Soziolinguistika Klusterra.
- MITXELENA, K., [1977] 2011. "La lengua vasca". In J. A. Lakarra & I. Ruiz Arzalluz (arg.), *Luis Michelena. Obras Completas*, IV: 13-66. Donostia eta Gasteiz: UPV/EHU.
- \_\_\_, 1981. "Lengua común y dialectos vascos". *ASJU*, 15: 289-313. Orain in J. A. Lakarra & I. Ruiz Arzalluz (arg.), *Luis Michelena. Obras Completas*, VII: 517-543. Donostia eta Gasteiz: UPV/EHU.
- MONTGOMERY, C. & BEAL, J., 2011. "Perceptual dialectology". In Maguire, Warren & McMahon, April, (arg.) *Analysing variation in English*, 121-150. Cambridge: Cambridge University Press.
- MORENO FERNÁNDEZ, F., 2009. *Principios de sociolingüística y sociología del lenguaje*. Bartzelona: Ariel.
- ORMAETXEA, J. L., 2008. "Otxandioko hizkera: adinaren araberako bariazioa". *FLV*, 108: 249-262.

---

<sup>122</sup> Artikulu hori *Bat Soziolinguistika* aldizkarian argitaratu zen 1999an. Baina testua, jatorriz, gaztelaniaz idatzi zuen Kasaresek Asturiasko *Cultures* izeneko aldizkarirako (2000, "Averamiento dende l'antropollingüística a la comunidad del Valle de Baztan (Navarra)", *Cultures* revista asturiana de cultura 10, 73-104 or.) eta *Bat* aldizkarikoek euskaratu zuten: alegia, hizkuntza aldetik ez da Kasaresena.

- PAGOLA, R. M., 1992. *Euskal fonetika Nafarroan*, 2 libk. Iruñea: Nafarroako Gobernua.
- PRESTON, D. R., 1999a. "Introduction", in D. R. Preston (arg.), *Handbook of Perceptual Dialectology, I*. Amsterdam: John Benjamins.
- \_\_\_, 1999b. "Introduction", in D. R. Preston (arg.), *Handbook of Perceptual Dialectology, II*. Amsterdam: John Benjamins.
- REGUERO, U., 2016. "Goi-nafarrera arkaiko eta zaharraren azterketan sakonduz: periodizazio saiorako langaiak". *ASJU*, 50 (1/2): 1-17.
- \_\_\_, 2017. *Goi-nafarrera arkaiko eta zaharra: azterketa eta testuak*. Gasteiz: UPV/EHU.
- \_\_\_, 2019. "Aportaciones a la lexicografía dialectal del alto-navarro". *La investigación en lexicografía hoy, II: Diccionarios bilingües, lingüística y uso del diccionario*. UV: 537-552.
- SÁNCHEZ CARRIÓN, J. M., 1972. *El estado actual del vascuence en la provincia de Navarra (1970). Factores de regresión; Relaciones de bilingüismo*. Iruñea: Vianako Printzea Erakundea - Nafarroako Foru Aldundia.
- \_\_\_, 1991. "La herencia de Koldo Mitxelena". In *Memoriae L. Mitxelena Magistri Sacrum*, *ASJU*ren gehigarriak, 14: 1317-1334.
- SANKOFF, G., 2002. "Cross-Sectional and Longitudinal Studies in Sociolinguistics". Ikus: <https://www.ling.upenn.edu/~gillian/LongitStudies.html>.
- SANTAZILIA, E., 2009. "Luzaideko hizkuntza bariazioa". *FLV*, 111: 219-248.
- TRASK, R. L., 1996. *Historical Linguistics*. Londres: Arnold.
- TRUDGILL, P., 1986. *Dialects in contact*. Oxford: Blackwell.
- UNAMUNO, L., 2010. "Adinaren araberako bariazioa Gizaburuagako hizkeran". *Euskalingua*, 16: 41-48.
- \_\_\_, 2016. "Adinaren araberako bariazio sintaktikoa euskaran". In G. Aurrekoetxea, J. M. Makazaga & P. Salaberri (arg.), *Txipi Ormaetxea omenduz. Hire bordatxoan*, 279-288. Bilbo: UPV/EHU.
- URGELL, B., 2018. "Lehen Euskara Modernoa". In J. Gorrotxategi, I. Igartua & J. A. Lakarra (arg.), *Euskararen historia*, 543-657. Gasteiz: Eusko Jaurlaritza.
- YRIZAR, P., 1981. *Contribución a la dialectología de la lengua vasca*, 1. libk. Donostia: Gipuzkoako Aurrezki Kutxa Probintziala.
- ZARRAGA, A., 2010. "Soziolinguistikari sarrera". In A. Zarraga, J. B. Coyos, J. M. Hernández, L. Joly, I. Larrea, L. V. Martínez, B. Uranga & P. Bilbao (arg.), *Soziolinguistikaren eskuliburua*, 21-81. Gasteiz: Eusko Jaurlaritza & Soziolinguistika Klusterra.



- ZUAZO, K., 1998. “Nafarroako euskal hizkerak”, in I. Camino (arg.), *Nafarroako hizkerak: Nafarroako Euskal Dialektologiako Jardunaldietako Agiriak (1997, Iruñea)*, 1-22. Bilbo: UEU.
- \_\_\_, 2000. *Euskararen sendabelarrak*. Irun: Alberdania.
- \_\_\_, 2003. *Euskalkiak, herriaren lekukoak*. Donostia: Elkar.
- \_\_\_, 2006. *Deba ibarreko euskara. Dialektologia eta Tokiko batua*. Oñati: Badihardugu Euskara Elkartea.
- \_\_\_, 2010. *El euskera y sus dialectos*. Irun: Alberdania.
- \_\_\_, 2014. *Euskalkiak*. Donostia: Elkar.
- \_\_\_, 2015. Euskalkiak. <http://euskalkiak.eus/eu/><sup>123</sup>

---

<sup>123</sup> Webgune horrek UPV/EHUREN babes du.

## 7. ERANSKINAK

### 7.1. ERANTZUNEN LEGENDA

- 1) Ez dugu konparazioa egiteko daturik.
- 2) XX. mendeko testigantza(k) ez d(ir)a fidagarriak.
- 3) Bilatzen ari ez ginen informazioa da.

Duela mende erdi bezala (edo antzera).

Aldakortasuna nabarmen ikusten da.

- Berriemaileak ez daki.

∅ Ez diegu denei galdegin.

Oharra: bikoteak dauden zutabeetan erantzun bakarra egotekotan, edo ez dute kasu guzietan biek ihardetsi edo erantzun berbera eman dute.

### 7.2. INFORMATZAILEAK

XXI. mendea (2022)		
ETXALEKU	GOLDARATZ	MUSKITZ
♂ 68 urte ♀ 52 urte ♂ 20 urte	♂ 70 urte ♀ 61 urte ♂ 34 urte ♂ 33 urte	♂ 80 urte

XX. mendea		
ETXALEKU 1966 & 1980 ±	GOLDARATZ 1984-1988	MUSKITZ 1966
(E <sup>2</sup> ) Agustin Beloki, 63 urte (E) Agustin Beloki	(G) Miguel Olaetxea Azpiroz, 68 urte	(M) Joakin Oraien, 84 urte

### 7.3. GALDETEGIA

HITZA / ESALDIA gaztelaniaz emanik		GAZTEA (1) ETXALEK U	GAZTEAK (2) GOLDARAT Z	HELDUAK (2) ETXALEKU	HELDUAK (2) GOLDARAT Z	HELDUA (1) MUSKITZ
1	PARED (E) Paeta	Paitá	Paitá	Páitá Paitá	Paitá	Parét(a)
2	PUERTA PRINCIPAL, PORTAL (E) Ataria	Átarié	Itxeko atarí	Atarié	Atarí printzipala, aundí	Atari na(g)úsia
3	ESCALÓN (de una escalera) (E) Eskale	Eskallé	Koská	Eskallé Kóska	Koska, eskalleá, eskaleá	Eskáloia
4	PUERTA (E) Atarie	Atari	Atarí	Àtarié Atárié	Atarí	Edéki ataria
5	VENTANA DE LA PUERTA (E) Leatille	Ø	Leatiyé	Àtariko leioá	Ø	Ø
6	MANILLA DE LA CERRADURA (E) Eskukoe	-	Maniyerá Manillé	Eskútokie <sup>124</sup> Klixketá	Manillé	Klixketa
7	VENTANA MUY PEQUEÑA (en las partes altas y bajas de las casas) (E) Txirrimiste	Leyatillé	-	Leatillé	Leio ttikii, leio zirrikú	Leio oso txikiák, txirrimíste
8	CONTRAVENTANA (E) Laatile	Persianá	Latiyé <sup>125</sup> Kontrabentaná <sup>126</sup> Leatiyé <sup>127</sup>	Leátillé, pertsiana Leatille <sup>128</sup>	Leatillé Kóntrabentaná	Kontrabentan á <sup>129</sup>
9	INTERRUPTOR DE LA LUZ (E) Giltze	Klixketá	Klixketá	Argín klixketá <sup>130</sup>	Klixketá	Argién giltzá
10	VIGA MAESTRA (E) Zure nausie	<sup>131</sup>	Zuré <sup>132</sup>	Bigá <sup>133</sup> Zure	Kárrerá, mugatxuko zuré	Zure <sup>134</sup>
11	SOLIVOS	-	Sóliboák	Sóliboak	Sóliboak	Solibóak

<sup>124</sup> Geroxeago oroitu da *klixketa*-z.

<sup>125</sup> Barnekoa zein kanpoko.

<sup>126</sup> Kanpoko.

<sup>127</sup> Barnekoa.

<sup>128</sup> Barnekoa.

<sup>129</sup> Berriei hala esaten die. Geroxeago, guk hitza esatean, *leatille*-z oroitu da.

<sup>130</sup> Baina *giltze* ezaguna du.

<sup>131</sup> Gazt. 'madera'-ri deitzen dio *zure*.

<sup>132</sup> Izen espezifikokoak erantsi ditu: *astazaldí, pillarí*...

<sup>133</sup> Gazt. 'madera'-ri deitzen dio *zure*.

<sup>134</sup> Erantsi du teiltukoak *kábriok* direla, eta beste batzuk ere badirela, adibidez, *txinéla, frontala*...

	(Madera que se apoya en la viga maestra) (E) Soliboak					
12	SOLADOS o SUELO (de piedra, ladrillo, baldosa, madera...) (E) Zolue	Lurré	Lurre	Zolá Zolué	Lúrre Zóla	Zola
13	GRIETA (E) Zirrikue	Austuré	Zirrikú	Lértue, íkié <sup>135</sup> Lertué <sup>136</sup>	Zirrikú	Erteá
14	GOTERA (E) Ittuxurak, itxaxure	Itxuxuré	Itxixuré	Itxuxuré	Itxixuré Itxuxuré	Itxexúre
15	HUNDIRSE LA CASA (E) Erori, ondatu	Bota in dá	Undittu Erói	Lúrreá etorri dá <sup>137</sup> Itxá botá	Éroi	Eróri bere gise
16	TIRAR LA CASA (E) Bota (M) Bota (E <sup>2</sup> ) Tíretú / Arríketú / Bota	Botá	Botá	Botá	Botá	Bota
17	PEQUEÑO ESPACIO ENTRE CASAS (E) Itxekarte(a)	Itxetarteá	Itxekartí	Itxekerteá Itxékerte·a <sup>138</sup>	Bi itxetartekoá Itxekartí	Etxekértiá
18	COLUMNA (E) Pillarea	Pósteá	Pillarí Piyarí	Pillareá Pillare·á	Pillarí	Pillériá
19	PLANTA BAJA (E) Beitie	Beittié	Itxeko beittí Beittiko plantá	Béittié	Beittí Ikullú	Ukúllua <sup>139</sup>
20	ENTRADA / HALL (E) Eskaratzá	Entrá	Itxeko entraá	Entráa, sárrerá Entrá	Entráa Sarrerá	Sarrerá
21	SUELO EMPEDRADO DE LA ENTRADA (E) Galtzada	-	-	- Sarrera arrittué	Ezkaatzá <sup>140</sup>	Kalzáda
22	CUADRA (E) Okullu	-	Ikullú Ikuyú	Beittié	Íkullú	Ukúllúa
23	PESEBRE (E) Ganbela	Pentsutegié	Ganbelá	<sup>141</sup> Ganbela <sup>142</sup>	Ganbelá	Ganbéla <sup>143</sup>

<sup>135</sup> Zirriku gazt. ‘rendija’ gisa ulertzen du.

<sup>136</sup> Lertué zuran sortzen denari esaten dio; zirrikue, aldiz, paretakoari.

<sup>137</sup> Dioenez, ‘bota’-k ‘erori’-ren esanahia du Imotzen: adibidez, *bota naiz = erori naiz, nahi gabe*. Ohikoa da nafarreraz, 30. eta 73. oin-oharretan adierazi dugunez.

<sup>138</sup> Alderdi fonetiko-fonologikoari begira jarriko gara une batez: izan ere, berezitasun batez ohartu gara; tarteko bokal baten existentziatz. Bereziki indartsu ageri zaigu etxalekuarren hizkeran: *e* ta *i* arteko bokal sotil bat, gure lanean aurrerantzean *e*- bidez adierazia. Belaunez belauin duen ezaugarria da, *-ea* bukaeretan gertatzen dena. Muskiztarrak gutxiagotan agertu du, garbiagoa baita *e > i*-ranzko joera Muskitzen, *item*-ak derakusan moduan.

<sup>139</sup> Guk *béittie* proposatzean, oroitu da.

<sup>140</sup> Dioenez, etxe atariko harri horiek puntadunak dira.

<sup>141</sup> *Ganbela* esan eta ezagutzen du, oroitu da. Halaber, gehitu du *saleá* behiei belarra paratzeko lekua dela.

<sup>142</sup> Gehitu du *saaleak* belarretarako direla.

<sup>143</sup> Dioenez, *ganbela* pentsurako da eta *sagála* belarretarako.

24	PESEBRE PARA CERDOS (dentro de la vivienda) (E) Aska	-	Aspillé	Aská <sup>144</sup> Áspillé <sup>145</sup>	Aspillé <sup>146</sup>	Txerriéndako aská <sup>147</sup>
25	CUADRA DE VACAS (en la parte baja de la vivienda) (E) Beitegia	-	Ikullú Beietá juán	Beittié Beien aldeá	Ikullú <sup>148</sup>	Ukúllua bizitzen azpian, eta beitégié “vaquería” <sup>149</sup>
26	PLANTA SUPERIOR (1ª planta, destinada a la vivienda de la familia) (E) Lemiziko pisue.	-	Bizitzé	Bizitzé Érdiko plantá, etxebizitze	Bizitzé	Bizitokia, bizitze
27	RINCÓN JUNTO AL HOGAR / FUEGO (E) Sustondoa	Sutondoá	Berokií	Sutondoá <sup>150</sup>	Ékonomika ondoá Sutondoá <sup>151</sup>	Sutondoá
28	DORMITORIO (E) Kuartoa	Kuartoá	Kuartoá	Kuartoá	Kuartoá	Abitézioa
29	DESVÁN, SABAYAO (E) Sabaie, ganbara	Sabaié	Ganbaá	Sabaié	Ganbaá	Sabáie
30	VENTANA AL TEJADO (E) Txapitela	Léioá	-	Txápitelá Txapitelá	Txapitelá	_ <sup>152</sup>
31	FIEMO, ESTIÉRCOL (E) Ongarri	Óngarrié	Óngarri	Óngarrié	Ongarrií	Ongárrie
32	LEÑERA (E) Egurteie	Zazí egurrek eske	Iurterí	Eur pillé Eur montoná <sup>153</sup>	Iurtokí Iurteríí	Egurtókie
33	ALBAÑIL (E) Argiñe (eraikuntzaren egitura-obra), kisuskille (barneko lanak)	Igéltseroa <sup>154</sup>	Kisuskillí Kisuskiyí	Kisuskillé	Kisuskillí	Kisuskílle
34	VASCO, LENGUA VASCA (G) Euskera (M) Euskeldúne / Jolas eitten dút euskéraz	Éuskeá Éuskalduné Éuskias	Iuskeá	Euskeá Euskáldune Éuskeas	Iuskeá Éuskera Éuskeas Íuskalduné naiz	Euskéra Euskeras Euskaldúna

<sup>144</sup> Eransten du *aspillé* zurezkoa dela.

<sup>145</sup> Pentsurako, dio.

